

## Albokaren alde batzuk

(Some aspects of the *alboka* (A Basque musical instrument))

Gojenola Onaindia, Manu

Eusko Ikaskuntza. M<sup>º</sup> Díaz de Haro, 11-1<sup>º</sup>. 48013 Bilbo

BIBLID [1137-859X (2004), 8; 3-100]

Jaso: 01.07.05

Onartu: 01.09.27

---

*Euskal herri musikari agertzen diren soinu-tresnen artean, alboka izan da, txistu eta dultzainarekin batera, azken mendeetan iraunkortasunez eta nabarmen agertzen den horietako bat. XX. mende erdialdean oso gutxi ziren alboka jotzen zutenak, baina mende horren bukaeraldean eman zen bere berpizkundearen hasiera eta egun, soinu-tresna hau jotzen duten albokari asko dira berriro. Idazlan honetan XIX. mende bukaeratik XX. mende bukaera arteko alboka eta izan diren albokari buruzko informazio orokorra eta ugaria bildu egin da.*

*Giltza-Hitzak: Alboka. Soinu-tresna. Albokari. Herri musika.*

*Entre los instrumentos musicales presentes en la música popular vasca, la alboka es, junto al txistu y la dulzaina, uno de los que aparece de manera notoria e ininterrumpida durante los últimos siglos. A mediados del siglo XX eran muy pocos los que la tocaban y ha sido a finales de ese siglo cuando se ha iniciado su recuperación, siendo hoy de nuevo muchos los albokaris y variada información acerca de la alboka y los albokaris desde finales del siglo XIX hasta finales del XX.*

*Palabras Clave: Alboca. Instrumento musical. Albokari. Música popular.*

*Parmi les instruments de la musique populaire basque, l'«alboka» est, avec le «txistu» et la «dulzaina», l'un de ceux qui apparaissent de façon notoire et ininterrompue durant les derniers siècles. Au milieu du XXe siècle peu de musiciens en jouaient. C'est à la fin de ce siècle qu'a commencé sa récupération, et l'on compte de nouveau aujourd'hui beaucoup d'«albokaris» et on possède une information variée sur l'«alboka» et les «albokaris» depuis la fin du XIXe jusqu'à à la fin du XXe siècle.*

*Mots Clés: Alboca. Instrument de musique. Albokari. Musique populaire.*

## **I. ZATIA. ALDE BATZUK**

Lehen zati honetan, albokaz berba egiterakoan, Gorbeialdean eta haruntzaxoago –batez be– hogeigarren mendean zehar alboka jo izan dan esparruan, bere kokagune musikala eta erabilera sozialari buruz mintzatzen da. Honegaz batera, soinutresnen artean dauan kokapena, historia eta garapena, errepertorioa, albokari tradizionalen ezaugarriak, belaunaldi barriak, batzarrak eta lehiaketak, ekitaldi bereziak, izena...

### **1. SARRERA**

Albokea edo alboka, soinutresna erakargarria da bere doinu zakarrak eta inoiz durundariak, gozotasun sarkorra daualako. Emoten dauan doinu bikotxa bihotzeraino joaten da.

Soinutresna hau ikusi edo eskuetan eukiz gero, haren egitura bereziak be erakartzen gaitu. Adarrek eta egurrak, kainaberek eta argizariak, naturagaz bat egiten gaitue. Baina, pertsonaren trebetasuna eta irudimenaz be konturatzen gara.

Hain doinu berezia, hain egitura polit batetik urteten, hori da albokaren amua.

Bera nahiko da, beste ezer barik, inor erakartzeko. Baina, horrez gainera, kopia bizkor eta harrigarriak lagun dituala, gauza are erakargarriagoa heltzen jaku barruraino. Panderoaren narru eta burdin hotsak, bikotea osatu egiten izan dau albokagaz batera azken mende biotan. Lehen, guzti horrek jendea dantzara eroaten eban.

Oraintsuago, beste edozein soinutresnekin batera (hemengo edo kanpoko, lehengo edo oraingo, soinu tresna danak unibertsalak dira eta) bere burua harrota-sunez erakusten dau albokak. Albokagaz lehen jotzen ez ziran balada eta kantu zahar asko, orain dotore entzuten dira. Doinu barriak sortzeko ahalmena be erakutsi deusku, sentimenduak modu modernoan agertzeko gaitasunagaz. Euskal Herrikan kanpoko musika doinuak be jotzen dira orain.

Mendetan zehar eutsi izan deutso albokak bere tokiari gizartean eta musika munduan, hainbat albokari tradizional trebe eta ez hain trebei esker. Hogeigarren mendearen azken laurdenean, bere burua estu ikusi izan eban albokak, baina zenbait ikerle eta hainbat albokari barriri esker, etorkizuna somatzen jako.

Albokari tradizionalak eta barriak. Jota/porrue/martxa; kantu eta balada zaharrak; doinu barriak. Dantzan egiteko, kantatzeko, entzuteko. Hori da, berba baten esateko, alboka edo albokea.

### **2. IKERKETAK**

Albokari buruz agertzen dan lehen gauza idatzia Euskal Herrian, Telesforo Aranzadi 1916an idazten dauana da. Bertan, soinutresna honen izenez eta

jatorriaz dihardu, polemika biztu nahirik edo, eta oso modu argi eta bizkorrean. Egunen baten, izan daiteke XIX. mendeko argitalpenen baten albokaz idatzitako zeozer aurkitzea. Seguruagoa da esatea, dagoeneko agerturik egongo litzateke-la, inon horrelakorik egon izan balitz.

Albokaren gaia hurrengo ikutzen dauana, Resurrección María de Azkue da, 1918an. Urte horretan emoniko berbaldi baten, soinutresna honen ezaupide txikia jakinik, entzulegoari alboka bat erakusten deutso. Beste mintzaldi baten zabalago berba egitea agindu egin eban – “*como de él (alboque) os hablaré largamente en mi segunda Conferencia dado caso que tengamos tiempo de analizar en ella nuestra música popular instrumental*” – , baina gero ez eban egin berbaldiori; eta nahiz eta “Cancionero Popular Vasco”n “XXVI Del Alboque” izenburuko atala idatzi sarrerako aurkibidean, gero ez eban ezer idatzi horri buruz. Hau da, ez hitzez, ez idatziz ez eban ezer azaldu Azkuek.

Azkuek, dana dala, albokari, berak beste soinutresnei eskindu ez eutsen tokia eskindu egin eutsan. Izenari, sorrerari eta “Goizean Parisen” kondairari leku apur bat emon eutsen. Gainera, eta garrantzitsuena eta miragarriena dana, albokari bati –Idiazabalgoa ei zanari– enkargatu egin eutsan gama zabalago bateko alboka. Gero badino: “*nada sé de mi encargo*”.

Data honeek beranduzkoak emoten badabe be, pentsa daigun dultzainari buruzko lehen artikulua 1930ean argitaratu egin zala.

Gero, Jesus Larrea, Bilboko Museo Historikoaren zuzendariak, 1930ean beste artikulua labur bat idatzi egin eban. Artikulu hau, lau-bost leku desbardinetan agertu izan da. Bilboko Museoan gaur dagozan zortzi alboketatik, bere denborakoak bi izango dira. Pausu interesgarria emon egin eban. Albokarien artean txapelketak edo norgehiagokak egin behar zirala uste eban. Handik urte batzuetara, horrelaxeak antolatu ziran, nahiz eta aurretik inoiz lore jokuetan antolatua izan.

Honen aurretik, Larrea eta albokari buruzko ohar txiki bat dator “El Noticiario Bilbaino” egunkarian 1923. urteko apirilaren 24an, “¿El último albokari?” izenagaz. Bertan, *Hermanitas de los pobres*en aterpean Zeanuriko Uribe auzoko Intxaurre baserriko Jose Iturbe albokaria aurkitu egin ebala Jesus Larreak dakar. Ia larogei urte zituala, eta azkenengo albokaria izango ete zan inoan. Bilboko Udaletxeko “parlómetro” (grabagailu antzekoa) bategaz grabatzeko asmoa eukan.

Bilbokoan eta beste museo batzuetan be badagoz albokak, adibidez: Baionakoan, eta Donostiakoan Euskal Herrian; eta Londonekoan, Oxfordekoetan (bat 1896an eroana) eta Canterburykoan (1938n hara eroana), Ingalaterran.

Arian-arian, argitaratzen dabez albokaz gauza laburrak. Lan nagusiak gero-txoago datoz. Manuel García Matosek hainbat soinutresna eta leku askotako folklorea ikertu ebanak, 1956an albokaz oso artikulua garrantzizkoa atara eban. Gero, 1976an, Mariano Barrenetxeak, Aita Jorge de Riezuren hitzaurreagaz, albokaren gaineko lehen liburua argitaratzen dau. Juan Mari Beltranek liburu honi “albokaren Larousse”a deitzen deutso. Geroago, Barrenetxeak lan gehiago argitaratu ditu.

Kanpoko ikertzaileetan, Gallop eta Balfour izentatu daitezke, baina Anthony Baines ingelesari egin behar jako aitamen berezia, fita-tutudun soinutresnei buruz hain lan ikaragarri eta interesgarria egin izanagaitik 1960ean, “Bagpipes” [xirularruak] izeneko, alboka hor kokatzen dauala, modu zientifiko eta zabalean. Horren aurretik, Aranzadik inoskunez, 1898an Dr. Karutzek bere “Zur Ethnographie der Basken: Globus”en albokaren marrazkia be baekarren eta gainontzeko azalpen batzuk.

Aitatutako lan nagusiak aparte, gerra ostean hasi zan alboka dala eta han hemen zeozer idazten. Frankismo ostean apur apurka gauza batzuk argitaratu izan dira, nahiz eta esan behar oraindino lan gitxi dagoela. Aurrerantzean, zenbat eta gehiago argitaratu eta hobe izango da, alboka munduarentzako. Alferrik eritxi kontrakoak egon, oraindino jendeak hain gitxi ezagutzen dauan soinutresna honen mesederako lanak argitaratzea beharrezkoa da.

Idatzitako lanak alde batera itxita, esan behar albokaren gainean, berari soinutresnari dagokionez, ikerketa eta hobekuntza haundia egon dala. Aukera txiki-ko soinutresna hau asko garatu da, batez be azkenengo hogeitau urteotan. Nahiko lagun aritu izan da honetan, eta euren hobekuntzak inoiz albokagile tradizionalak be hartu izan dabez.

Gaur egun albokari buruz ikerketak egiterakoan, Oiartzunen dagoan Herri Musikaren Txokoa izena dauan tokira jo behar da. Han dago albokaz idatzi izan dan guztia, hainbat alboka grabaketa (disko, kasette, CD eta baita zuzeneko grabaketak be), alboka zaharrak eta barriak, Jose Mari eta Leon Bilbaoren albokak egiteko tailerra, eta Txoko horren arduraduna dan Juan Mari Beltranen jakituria be oso lagungarria da.

Interneten, albokaz informazio osoena sarean, web orri honetan aurkitu daiteke: [www.alboka.net](http://www.alboka.net), Ibon Koteronek dauan weba.

### **3. ALBOKAREN KOKAPENA SOINUTRESNEN ARTEAN**

Alboka aerofono motako soinutresna dogu. Aerofonoetan, mihinaren dardar bizkorren eraginez soinua emoten daben taldekoa da. Horreen artean, mihina –edo fitaren zati dardaratsua–, bakarra edo bikotxa izan daiteke. Alboka mihin bakarreko taldekoa dogu, klarinetearena. Fita eta tutu bi ditualako, klarinete bikotxa deitzen jako.

Gai honetaz zabalago jakiteko, beste batzuen artean, Curt Sachs, Anthony Baines eta Juan Mari Beltranek eginiko lanak ikusi daitezke.

## 4. ALBOKAREN KOKAGUNE MUSIKALA ETA ERABILERA SOZIALA

### 4.1. Eritxiak

Albokaren kokagune musikala eta erabilera soziala erromeriei lotuta agertzen da hogeigarren mendearen erdira arte. Artzainen soinutresnatzat jo izan da, baina erromerietan ibilia izan da nagusiki.

Mende honen azken laurdeneko jotzaile nagusi biren eritxiak nahiko bat datoz. Leon Bilbaok esaten ekian “*¿Pastores? Igual ni hablar con los pastores*”, Ibon Koteroni esan egin eutsan moduan. Leonek erromeriak basoan, ermiten inguruan egiten zirala batez be inoan eta baita baserrietan be “*Erromeria aparte, baserrietan be jotzen zan, etxean*”, alkarrizketatutako beste albokari tradizionalek be horixe dinoelarik. Silbestre Elezkano “Txilibrin”ek hau esan eustan, “*Lehen ez zan albokarik yoten. Baserrietan eta tabernean bai. Baiña fiestas vas-casetan eta holan, ez*”. “*Plazan, guk be ezkendun yoten*”.

Kontraesana badirudi be, atara daikegun ondorioa hauxe izango litzateke: alboka bere sorreran artzainek sortu eta jotako soinutresna izan daiteke. Baina, hogeigarren mendeko gerra zibilera arte, jotzaileak baserritarrak izan dira, nagusiki –ze artzainen bat be egon da– eta ermiten inguruko erromerietan eta baserriaren inguruan jotzen zan.

Batzuek ardiak edo behiak mendian eukiten baebezan be, eurak egunero lo egitera baserrietxetara jotzen eben. Nahiz eta lehen Gorbeian, batzuk udan –bagilean eta garagarrilean– mendian bizi ardiekin. Galtzen doan ohitura da hau. Ardi-zai edo behizai egozanean joko eben alboka, euren praktika gehienek gobernu behar horretan egiten ebezala. Juan Otxandiok eta Eujenio Etxebarria albokariak hala esan izan deuste.

Kalean bizi izan diran salbuespenak be egon dira. Edo baserrian bizi arren, esku beharra egiten ebenak.

Hogeigarren mendera heldu jakun erreperitorioa dantzarakoa da. Baina dantza edo erromeria, baserriko etartearen aurrean edo soloan ermita inguruan egiten zan, batez be. Baita tabernan be. Beraz, kasu honeetan, albokak funtzio soziala eukan.

Eztabaidak izan dira artzainen soinu tresna ete dan edo ez. Horrek baldintzatuko leuke non eta ze motibogatik jotzen zan, eta horrek erreperitorioa edo ze doinu klase jotzen zan esango leuskigu.

Ikertzaileen eritxiak emongo dira jarraian.

Jesus Larreak, Bilboko Museo Arkeologiko eta Etnografikoko zuzendariak 1930ean idatzitako artikuluan, albokariak batez be artzainak zirala dino, nahiz eta batzuk baserritarrak be izan. Herrietako plazetan jotzen ebela dino.

Manuel García Matosek (1956) mendearen hirugarren hamarkadaren inguruan Arratiko artzainek jotzen ebela dino, gipuzkoarrek eta nafarrek ordurako lagata eukela eta. Ardi zain mendian egiten ebezan ordu luzetan joteaz aparte,

baserrietan eta auzoetan joten ebela erromeria eta jaietako dantzei laguntzeko, egun horreetan emakume panderojotzaile bat alboan eukiten ebela.

Bainesek (1960) eta Welchek Atlantikotik eta Magrebetik, Uraletara eta India-ra dagoan esparruan dagozan “hornpipes”ak [fita-tutudunak] artzain soinutres-natzat jotzen dabez, jatorriz.

Mariano Barrenetxea (1976), albokaren jakintsuak, artzainek eta baserritarrek jotzen ebela dino. Egin be, euren biei naturalak jakezan materialagaz eginda dagoz albokak. Albokariak, bakartadea ahazteko, erabilten eben musika. Baita jendea poztu eta dibertitzeko baserrietan eta auzoetako jaiegunetan be. Barrenetxeak aurreko denboretan albokak indar handia eta bizitasuna eukala dino. Mendiak alaitzen zituan domeketan, herriko jaietan eta ezkontzetan. Geroago, kompetentzi handia sortu zan alboka, dultzaina eta eskusoinujotzaileen artean (hirurak be panderojotzaileagaz eta koplariagaz lagunduta) plazetan, baserri eta ermiten inguruan.

Barrenetxeak (1986) alboka euskaldunok berez kantatzeko moduari lotua dagoala dino. Panderoa albokagaz noiz batu zan ez dakigula esaten da, baina argi dagoala panderoa dantzen erritmoetan albokari laguntzeko batu jakola.

## **4.2. Erromeriak eta alboka**

### **4.2.1. PANDEROAREN GARRANTZIA**

Jendeak dantzan egin nahi izaten eban. Ermitetako basoerromerietan, eta baserri edo taberna inguruko jaietan –mende honen lehen lau hamarkadak arte, behintzat– emakume panderojotzailea eta koplak kantaria izaten zan musikari nagusia sarritan.

Horregaitik, inoiz, harez gainera, albokaria (edo dultzaineroa, edo beste musikari bat, eta tanbolinteroak zer esanik ez) agertzen bazan, gauza handia izaten zan. Beraz, esan daiteke alboka –panderojotzaile koplak kantariagaz batera– estimuko orkestra izan zala orduko denboretan eta aurreko mendetan. Panderoa eta koplak, dantzari estu lotuta egon izan dira beti. Emakume panderojotzailea, bera bakarrik, erromeriaren protagonista sarri izan zan. Koplak be kantatzen ebazan eta, horregaitik, koplak mordoa –berrogeitamar ingurutik gora– jakin beharra eukan, Amurizaren arabera.

Iñaki Irigoienek (1994) badino, dultzainaz diharduala, Bizkaiko jaietako estiloa, dultzaina, panderoa eta koplak –hirurak batera– zala (eta ez dultzaina bi, danborragaz). Joan diran mende bietan (XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran) dultzainajole asko ei ebilen Bizkaian, jendearean, formazino horregaz jotzen ebenak.

Mariano Barrenetxeak (1976) esan eban koplaria eta albokari bikotea, panderoa baino aurrerago batu zirala. Izan eitekean denbora pasarako –kantatzeko–, baina dantzarako be izan eitekean. Hau da, autore zaharrek –Iztuetak, esaterako– badinoskue lehen, kantuak gidatzen ebala dantza. Baina, Barrenetxea

alboka eta folklore jakintsuak dinoanez, panderoa dantzari laguntzeko batu jakon albokari.

Kontuan hartzekoa da Gipuzkoako albokarien estiloan, ez ebela panderorik erabilten. Hau da, albokari bik batera joten eban, eta kopla zatia heltzen zanean, batek ez eban alboka joten eta (horrek) kopla kantatu egiten eban. Hala egiten eban Zegamako Gorrotxategitarrak –Jose Migel izenekoa zan aita eta Antonio eta Patxi, semeak– binaka joten ebelarik, Juan Mari Beltranek esan eustanez.

Beraz, panderoaren garrantzia jakinik be edozein erromeritan eta baita albo-ka munduan be (hogeigarren mendeko albokari bizkaitarrak, erromerietan, ia beti panderoagaz lagunduta jo izan dabe), albokak pandero barik be jo izan dira hogeigarren mendean. Zer esanik ez, aurrekoetan.

#### 4.2.2. KORROA

Erromeri batzuetan, albokari bakarra barik, hiru-lau egoten ziran, Juan Otxandio albokaria zanak esaten eban. Ez eban –normalean– batera joten, bakotxak berena bakarrik jotzen eban. Eta erromeri berezi batzuetan, albokari asko (“*negar-garri albokariak*”) izaten ziran. Hau, Artetan eta Upomendin, adibidez, jazoten zan. Beste batzuetan be, beharbada halan gertatzen zan, baina ez dot daturik. Albokari bakotxagaz jendeak soltean eta zirkulu baten moduko forman egiten eban dantzan. Honi, korroa [“korrue”] esaten jakon. Korro bakotxean, dantzariei dirua kobratzen eutsen pertsona egoten zan, musikarien laguna zana.

“Korrue” sistemagaz dantzariei zuzenean kobratueran, albokariak –eta dultzaineroak, edo beste– ez dira udal ordainketetan agertzen. Horregaitik, gatxagoa da udal dokumentuetan, albokariei buruzko agiririk aurkitzea. Inoiz, alguazilak aginduta toki baten edo bestean plantatzen ziran. Baina, gehienetan, eurek jotzailek aukeratzen eban tokia (gustokoen ebena, edo goren egoana, hobeto ikusia eta entzuna izateko).

Denboragaz, herri haundietako plazetan enkante publikoan ataratako soinutresna joteko leku eta diru egonkorren sistemara heldu zan. Juan Aiesta dultzaineroa zanak esan eban udalak inoiz musikariari tokia kobratu egiten eutsola (Beltran, 1991). Erdian –toki onean– plantatuz gero, alguazilak gehiago kobratzen ekian, zokondorago paratzen bazan baino. Berak inoanez, inoiz lekua pagatzeko lain be ez ebela ataritzen. Baina, hau ez da alboka munduan jazo zan gauza.

Albokeroek beti ez eban kobratuko. Musika barriak –chotis, vals, polka...– sartu ziranean azkenengo mendeetan, horreek joteko gaitasunik ez eukan albokak, beste soinutresnen aldean. Horrelakoetan, afizioz joko ebela begitandu leiteke. Baina, jota eta porrua baino jotzen ez zan denboretan edo lekuetan, orduan kobratuko ebela pentsatu daiteke.

#### 4.2.3. LEHIAN

Toki haunditxoagoetan, korru gehiago sortuko ziran, soinutresna jole gehiago egongo ziralako. Albokarietaz landa, dultzaineroek be jotzen eban erromeri asko-

tan, eta zer esanik ez tanbolinteroek. Hor sortzen zan euren arteko kompetentzia jende gehiago euren ganatzeko. Herri musikariak (ez egoan orduan tradizional edo kanpokoen arteko diferentziarik: bardin zan alboka, dultzaina, zein tanbolina jo, edo bibolina, gitarra, soinutxikia, zarrabetea, mosukitarra... izan be, leku askotan soinu tresna bardinak jotzen dabez, edo denboraren joan ahalean egingo dabe, ze unibertsalak dira) dirua ataratzera joaten ziran, sarritan diru mordoia jasoten ebela.

Lehia horretan, hasieran jota, porrusalda eta martxa baino jotzen ez ziranean, bardintsu ibiliko ziran. Baina, pieza barriak jotzen hasi ziranean, orduan jatorko albokari kontrako bidea. Beste soinutresnekin, pieza gehiago joteko aukera egoan. Albokagaz ez. Eujenio Etxebarria albokariak dino alboka erromeri batzuetan jotzen zala, baina tanbolina danetan.

#### 4.2.4. ERROMERI KLASEAK

Interesgarria izan daiteke hona ekartea 1816an Bizkaiko fraile batek erromeriei buruz, dantza, soinutresna eta abarren gainean dinoana. Berak idatzitako gauza asko XX. mende hasieran asko aldatu barik egon baitira. Prai Bartolome Santa Teresa markinar idazle eta bizkaieraren maisuak idatzi egin eban “*Euscal-Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba*” lanean, aitamene asko egin zituan erromeri eta musika munduari buruz.

**Soinutresnak** dirala eta, hau dino: “Soinuba joteco erramientac bardinac izan ez arren, soinu guztiac dira bardinac, orain toquetan danez. Cein orgaunuba, cein biolina, cein guitarria, cein tambolina, cein trompia, cein sartain zaar bat, (base-errijetaco viguireetan useetan dan leguez) guztiequin jotzen da soinuba. Soinuba bada ona ta oneracua, joiquijac bere onac dira... Soinubari oi darraico dantzia. Soinubagaz ta dantziagaz eguiten da piestia, sarauba, viguiria...”.

Aurrerago, lau klaseko jaiak desbardintzen ditu: plazakoa, erromerietakoa, bigirak eta sarauak.

A) **Plazako jaiak.** Honela dino: “Plazaan arguitan tambolinagaz eguiten dirian naasteco dantzaac, avemarijetan tambolina isilduta gueratuten dirianac, Vizcain ta euscalerrijetan useetan ta eguiten dirian moduban, diriala eurenez pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac”.

Gero, adina (“edadia”), “edana”, jazkera (“jantzija”), eta beste gauzen gainean hitz egiten dau. Baina, hemen, ikusten da plazan, tanbolina zala nagusi. Adibide lez, Gipuzkoako kasu bat, Iztuetak (1767-1845) dinoskuna, 1800ean Tolosan, tanbolinteroek derrigortu egin ebezala dultzaineroak ixiltzera (“aserratu zitzairen bolingoza –dultzaina– jotzailleai, eta alkate jaunak esan izan zien emekitxo ezik, danbolin otsankidariak etzutela nai jo soñurik, aiek ixilli eragiten ez baziran”). Tanbolina, dultzainari nagusitu egin bajako beti, zer esanik ez albokari.

Esan daiteke, dultzainak eta albokak batez be herri txikietako plazetan eukela tokia, basoerromerietatik aparte. Nahiz eta dultzainak, bibolinak, gitarrak,



zarrabeteak eta panderoak –edo kornamusak, aurreko mendetan– toki zabala goa euki plaza gehiagoetan, albokaren aldean.

B) Aurrerago, **erromeriak** aitatzen ditu eta hauxe dino: “Ez da emen ecer esaten, erromedija eguna domeequia edo jai osua bada, egun a videetan ta vertan guizon ta emacume naaste dantzan chilibituen, pandereten, trompeen edo nesqueen soinubagaz iragotia gaiti. Bada, au irugarren aguintubaren contra berez pecatu mortala dana, edoceinec daqui...”. Hemen, korroak dantzan irudikatu geinkez basoerromerian ermita baten ondoan.

C) Lanaren ostean, egindakoa ospatzeko eta ondo pasatzeko **bigirak** egiten ziran. Honela kontatzen ditu Prai Bartolomek: “... biguirac izaten dira baseerrijetan, edo ezpatetiaren, edo gorubetiaren, artozuritutiaren, edo gazteen apari-merijenda baten ondoric... Batian campora urten, bestian barrura sartu. Bestian ezcaratz baztar baten illunian; bestian dantzan edo pandanguan edo beste asmo chaarragoren bat eguiten.” Baserriaren inguruan egiten zan jai, monjor edo ospakizun honetan edozein soinutresna erabilten zan. Panderoa, tresna bakartzat lehen jo dogunean koplari laguntzerakoan, kasu honetan zan nabarmenen. Edozein soinutresna, kontentu haundiz ibilten zan parrandarako, eta zer esanik ez dago, albokarik balego, baita be.

D) Azkenengoz, **saraubak** aitatzen dauz: “Sarauba, esaten da emen dala andi eche baten, guizon eta emakume naaste, gavaz eguiten daveen dantzia ta olguetia, echecho ta campoco, eureetarico edocein barruban sartuten diriala... Nequezarijeen sarauba da biguiria. Ta andiquijeen biguiria da sarauba”. Aurrerago, “gente apainduba ta ondo baino obeto apainduba juaten da andiquijeen biguirara... caballero edo zaldun, señora edo dama, dana dala, juaten da ondo apainduta biguirara”.

Ikusten dogunez, haundikien festak ziran. Musika be, berezia joko eben, eta ez plazan entzuten zana. Guzti hau lotu egin geinke lztuetak esaten ebanagaz, eta ondorio argi eta logikoa lez esan, bertoko musika ezaguna, eta gero eta gehiago kanpoko doinu barriak, beste lekuetatik ekarritako tresnekin (gure artean ezagutu ez, edo erabili bakoak edo oso gitxi erabiliak ziranak) joten zala, banda edo talde barrizailleen bitartez. Hemen, esan beharko litzateke banda militarrek XIX. mendean eragin sinistezina euki ebela gure doinu eta jaietan. Haundiengana heldu ziran lehenengo, banda horreen eraginez, gero, sortu ziran banda zibilak eta honeen bitartez, doinu barriak eta soinutresna ezezagunak ailegatu jakuzan.

Bizkaian tanbolinteroek, euren dantzarako errepertorio tradizionalagaz, eta bandak –hasieran, haundikien bitartez sartuta; gero, udalek ordaindutakoak–, batera bizi dira urtetan.

Dantzarako aukera eskaintzen daben lau jai honeek irazean azaldu eta gero, esan daikegu albokaren leku naturala hauxe dala: basoerromeriak eta baserrietan egiten ziran jaiak. Plazan be joko zan alboka, baina gitxitan, edo leku batzuetan. Albokaren esparru naturala basoerromerietan eta jai txikietan

–baserrian eta tabernan, ezkontza osteko bazkarietan, artajoteak eta antzeko azulolanen ostean– izan zan. Iztuetak be, antzeko zeozer dino –Gipuzkoari buruz–, hau da, musika eta dantza baserrian eta mendian bizirik dagozala, bere garaian.

Plaza batzuetara be heldu zan alboka. Horra hor Eujenio Etxebarria, Txilibrin, Leon Bilbao eta Emilio Sagarna albokarien eritxiak. Baina plazetan, batzuetan baino ez zan agertu alboka.

#### 4.2.5. ERROMERIEN ZEHAZTASUN BATZUK

1936ko gerra aurrean, jotzen eben eta dantzan egiten ziran pieza bakarrak, nagusiki, lehenengoa eta bigarrena ziran –dantza suelta edo jantza soltea–, biribilketagaz batera. “Soltea” esaten jako, nahiz eta lehenago herri batzuetan koplak kantatzen zanean, lotuan egin. Hau da, jota, porrusalda eta martxa, albokari askoren hiztegiak. Erromeri guztietako (edo gehienetako) doinu bakarrak izaten ziranez, albokak bere tokia ondo bete behar izango eban, pandero eta koplak zituala, jendearen harrera ona izan eitean.

Orokorrean, soinu-jotzaileek erromerietan, gerraurreko saio (“jota-porrue-martxa”) bakotzeko [“tokea”, Leon Bilbaoren berbatan] ordaintzen zana, txakur haundia (hamar zentimo) jasoten eben. Mende hasieran, txakur txikia (bost zentimo) be bai. Dantzarako denbora askorik be ez egoan, ze domeka eta jaiegunetako betebeharrak erlijiosoak honela ziran: komunio edo jaunartze jenerala; gero, meza nagusia, eta arratsaldeko lauretan errosarioa zan. Haren ostean, dantzan egiten zan.

Iluntzean, etxera joan beharra egoan. Ilundu egiten ebanean, “Aimaritan” (edo Arimenak, Bizkaiko beste eskualde batzuetan jotakoak, desbardinak izan arren) kanpaiak jotzen ziran. Danak etxera joan beharra eukien. Hau da, bai Areatzako sei zuloako txilibitu jotzailea dan Alberto Zuluagak, eta bai Arteako alboke-roa dan Leon Bilbaok be kontatu deuskuenak.

#### 4.2.6. LEHENENGOA ETA BIGARRENA

Azpimarratu egin behar da jotak eta porrusaldak –batez be–, panderoagaz batera euki daben garrantzia, mendebaleko musikan eta ospakizunetan. Ingurukoek be, jo eta dantzatu egin izan dabez antzeko doinuak, euren ‘lehenengoa eta bigarrena’ [“a lo ligeru, a lo pesau...”, adibidez, La Montañan].

Azkuek, bere CPVko hirugarren liburukian honela dino: “a las danzas que Iztueta llama ‘vizcai-soñuac’ y en la citada enumeración llama Bizkaidantza, hoy mismo llaman ‘bizkaikoak’ en pueblecitos del valle de Larraun. Nosotros los llamamos arin-arin. Federico Olmeda, en su ‘Cancionero de Burgos’ les da el nombre vasco de porrusalda. En algunas aldeas vizcainas he oído llamar fanderu-soiñu al arin-arin, y también al orripeko (fandango). En muchos países montañosos se danza al son de este ritmo: Asturias, por ejemplo, Santander y aun Catalunya con su sardana que tiene el mismo ritmo en aire menos vivo”.

#### 4.2.7. ALDAKETA

Gorbeialdean eta Bizkaia osoan, dantza lotuak, apurka apurka, hasten dira erromerietan euren lekua hartzen. Pasodoblea, vals-a, tangoa... dira gehien entzuten diranak lotuen artean. Dantza solteak, geldi geldika, urteak joan doazen martxan, bere burua bazturtuta ikusten dau bostgarren hamarkadatik aurrera. Geroago, mexikar doinuak be popular egiten dira. Azkenik, irrtiaren eta zinearen eraginez, era danetako musika jo eta dantzan egiten da. Berguicesek hala dinosku, bere 1990. urteko lanean.

Soinu txikiak –baita kromatikoak eta tekladunak be, seguru– erromerietako leku nagusia hartzen dau. Dultzainak eusten deutso piska bat haren toki hartze-ari, doinu barriok joteko gaitasuna daualako, baina albokak, gero eta gitxiago. Bien bitartean, tanbolinteroek beste funtzio soziala (bai erlijiosoa, bai soziala) beteten ebenez gero, segi egin eben euren ekin beharrean.

Dantza soltea baino ez egoanean, soinu txikiak, beste soinutresnen aldean, musika aukera zabalagoa izatez aparte, bizitasun ikaragarria ekarri eban gure erromerietara eta gure musikara. Joten zan musika aniztu zanean, eskusoinuak oraindino toki gehiago kendu egin eutsen beste soinutresnei.

Baina, esku soinua bera be atzean geratu zan, inork gitxik aintzat hartzen ebalu, panderoagaz batera egiten eben bikote nagusi lez.

Orkestinak agertzen diranean, mende erdiaren hasieraren inguruan, beste musikari danak desagertu egiten dira plaza eta erromerietatik. Binaka edo hiru-naka jotzen ebenak, hau da, alboka eta panderoa, dultzaina eta panderoa, baina baita soinua, dultzaina eta pandero formazinoa be –Gipuzkoan batez be–, ia ez dira gehiago entzungo. Ordutik aurrera, orkestina izango da talde bakarra. Bozgorailuek, bestetik, beste edozein soinutresna jan egin eben.

Orkestinek musikari gehiago eukezan (soinujole bat, edo gehiago; bateria edo jazzmana; saxofoia; kitarra; edo beste edozein soinutresna) eta, batez be, bozgorailuak. Orkestina honeekin “korrue”k desagertu egin ziran, ze musikari mul-tzo bakarra egoan, eta danak egiten eben dantzan haren aurrean.

Musikari talde barri honekaz, errepertorio oso zabala entzuten zan errome-rietan. Alde batetik, musika klase barri asko jotzen hasi ziran, baina zer esanik ez dago, mendetan zehar egin zanagaz hausiaz, dantza soltea gero eta gitxiago jotzen zan eta, ia ia, testimonial bihurtu zan orain hogeitamar urte.

Orkestinen eragina soinutxikian, berak esku soinuak be euki eban lehenago besteengan. Soinu txikerra, edo esku soinu diatonikoa [nahiz eta melodeoiak be egon], agertu zanean mendearen hasieran gure artean, bere aukera zabalago-ek (musika mota anitza joteko gaitasuna), doinu erakargarriek eta albokak baino soinu altuagoek, jendea bereganatu egin eta beste soinutresnak zokondoratu egin ebazan. Baztarte horretan, alboka izan zan gehien galdu ebana. Halan da be, Gorbeialdian eutsi egin eutson bere buruari, gerra aurreko erromeritan ager-tuz.

Albokak alde egin eban –edo bota egin eben– plazetatik eta baso erromerietatik. Juan Otxandio albokariaren hitzetan “*Total egon da galdute, hau, albokea. Orain bizkortu da*”.

## **5. BERBIZKUNDEAREN BALIZKO ERAGINA**

Urteak joan ahala, batzokien inguruan hainbat ekintza politiko eta kultural antolatu ziran, hitzaldiak, antzerkia, euskarazko eskolak, dantzariak, kirolak, zinea, jokoak... Diktadura ezarri zanean, toki honeek itxi egin ebezan. Atzera, 1930. urtean edegi ebezan.

Primo de Riveraren Diktadura aginte urteetan 1923-1930, euskal nazionalismoak ekintza politikoa alde batera itxi egin behar izan eban, baina berbizkunde kulturala, hau da pintura, dantza, musika, zinea, euskarazko argitalpenak, kirolak... bultzatzen saiatu zan. Euskal jaiak eta musika propagandarako bitartekoak izan ziran.

Lehen esan da “fiestas vascas” ziralakoetan ez zala albokarik joten. Esan beharko litzateke, agian, apur bat entzuten hasi zala. Errepublikan urteetan, euskal jaien inguruan alboka gehiago ezagutzen hasi zan.

Egoera politikoak, euskal berbizkondeak eta folklorea edo herri arima gorde-tea eta garatzeak, alboka ezagunago egin eban, baina neurri txikian. Tanbolinteroak eukan euskal abertzaletasunaren bedeinkapena, horren ikurretako bat bihurtzeraino. Eta horregaitik, leku nagusia beteten eban dantzarien batzarretan eta abertzaleen jaietan.

Errepublikak (1931-1936, gero gerla hasi baitzan), lehen aldiz sistema demokratikoa dakar. Albokariak hasi ziran apurka apurka mitinetan joten. Hau da, jendeak piska bat gehiago ezagutu zituan albokariak. Kontuan hartu behar da, soinu-tresna ezezaguna zala.

Eujenio Etxebarriak eta “Txilibrin”ek kontatu dabe zelan euren herriko batzokiek Urkiolako jaietara joaten ziran. Emilio Sagarna albokariak inoan berak eta Andoni Goikoetxeak mitin eta jai askotan jo ebela, Bizkaia osoan eta baita Bitorian be, baina beti batzokien inguruan.

Hamarkada horretan bizkortu egin zan alboka. Ikuspegi politikotik euskal nor-tasunaren ikurretako bat lez jo nahi egin eben, eta batzokien inguruan eraturako jaietan hartu eban lehen eukan baino garrantzi gehiago. Hala dinoe Eujenio Etxebarriak, “Txilibrin”ek eta Emilio Sagarnak.

Halan da be, esan behar da albokaren ezagutza zabaldu egin bazan be, apur bat baino ez zala egin.

“Txilibrin”ek mundu nazionalista ondo ezagututa be, alboka ez zala joten esan eustan “fiestas vascasetan” (edo beharbada, gitxi esan nahi izango eban).

Beste baten, esan eban gerra aurreko “joaldi” gehienetan joten ebela, baina gerra ostean etorri jakola albokari fama.

Berbizkundek, albokari bultzada emon egin eutson, baina ez oso haundia. Errepublikar urteetan apur bat ezagunago bihurtu egin zan. Baina, presentzia txiki-kiko soinutresna lez segidu egin eban izaten. Bere ohizko mundutik urten egin eban albokak pitin bat. Sakadatxo txikia eduki eban.

### **5.1. Albokari atipiko bi**

Ikusi izan dogun egoeran, garaian eta giroan, sortu zan Zeanuriko albokari bikote atipikoa. Kasu bitxia da Sagarna eta Goikoetxea albokari bi honeen kasua. Albokari klasikoetan bereziak dira, ze euren alboka jotzen ikasteko arrazoia, politikagaz edo euskal sena berbizteagaz lotuta egoan. Sagarnak inoanez, lehen aldiz jende kopuru haundi baten aurrean jotzen da alboka. Uri eta herri haundietan be –Bilbo, Gasteiz eta Donostia barne– jotzen da, mitinetan edo euskal jaietan. Ez ziran baserritarrak ez artzainak, kaletarrak baino. Eta alboka egiten ez ekien.

### **5.2. Soinujolearen garrantzia**

Begitandu daiteke urte hareetako euskal abertzaletasunak, alboka euskal ari-maren sustraien ezaugarrietako bat lez ikusiko ebala. Eta beharbada, antxinakoenetakoa. Nahiz eta soinutresna honek musikalki aukera gitxi eskindu eta bere egitura atabikoa eta doinu zaharkituagaitik, nazionalista munduko batzuei gustatu ez, era berean, antxinako munduko askatasunen gomutagarri lez, eskaera politikoak babesteko eta jendeari kutsu erromantikoa emoteko balio izan eban.

Tanbolinteroek itxura dotoreagoa edo *garbiagoa* euken, eta soinutresna konpletuagoa zan. Baina, bera be makaltzen hasita egoan aurreko mendearen (XIX) amaieran.

Carmen Rodríguezek (1999) hau dino:

“La identificación del txistulari con otros emblemas de la identidad vasca una vez que se produjo la crisis del fuerismo y el nacimiento del movimiento nacionalista, le dio en la primera mitad del siglo XX una fuerza que permitió su resurgimiento. Los txistularis se organizaron en una asociación, sus plazas oficiales se renovaron, se recogió el repertorio por escrito, se crearon medios de comunicación para sus practicantes, y se ganó nuevamente la calle”.

Tanbolinteroek gorakada nabarmena ikusi egin eben berbizkundean. Txistua-ren gainera, *soziedadeko* musikarako, pianoa egoan, biolina, gitarra, harpa, sokazko laukoteak eta abar.

Albokarietako asko, jeltzaleak ziran. Albokari karlistak be egon dira, baina ez dakit euren mitinetan jotzen baeben. Inongo pentsakerarik ez eukenak be, mor-doa egongo zirala iruditu leiteke.

Beharbada, albokari plazetan faltan izan jakon aintzat hartzea hogeigarren mendea aurrera joiala, politikaren eta euskal kulturaren berbiztearen inguruan lortu eban, neurri txiki eta soil baten.

## **6. GERRA OSTEKO AGERPENA ETA ONARPEN BARRIA**

Gerra ostean, euskal senaren usaina hartu eutselako orduko agintariek, edo esku soinua, tresna gehiagogaz (lehen, panderoa baino ez eban lagun) batu zala-ko –aitatu daitekez jazzmana edo bateria eta saxofoia berrogetamarreko hamarkadako urteetan, eta bajo elektrikoa eta kitarra geroago, hirurogeiko hamarkadatik aurrera– gauza da, alboka dantzetatik eta erromerietatik ia ia desagertu egin zala.

Joten zan, baina gerra aurrean baino asko gitxiago. Halan da be, gerla ostean esparru eta arlo zabalago batera heldu zan alboka: mende hasieran, Gorbeialdera nagusiki lotua egoan, baina gero Bizkaiko eskualde danetara eta herri askotara heldu zan. Gipuzkoan, bardin.

Gerra amaitu eta handik urte batzuetara, albokak leku barri bat aurkitu eban. Funtzino sozial barri baten: erakusketa edo exhibizinoa, batetik eta euskal kontzientziari eustea, antxinako jatorriari lotu egiten ginduzan herri sakoneko soinu-tresna, bestetik.

### **6.1. Dantza taldeak**

Bere aurrerabideetako bat, dantza taldeen ingurutik etorri jakon. Aitagarria da Dindirri, Beti Alai eta Andra Mari taldeetan albokariak hasi zirala jotan. Esan behar da Silbestre Elezkano “Txilibrin” eta Antonio Aiesta “Jitano” izan zirala hor ibili ziranak. Geroago, Mariano Barrenetxea be hasi zan. Ondoren, “Argia” dantza taldeak be erabili eban alboka, albokeroa Juan Mari Beltran zala.

Talde honeek, erromerietan bizi izan zan mundu ludikoa, lanari ihes egiten eutsana, beste mundu batera garraiatu egiten eben. Mundu urbano, sarritan industrial, batera eroan eben. Dantzak, soinutresnak eta jantziak mantendu egin ziran –kasu askotan galtzear egozanak– baina, mundu barri baten barruan.

Frankismo aroan, badakigu euskal kulturaren ezaugarriak debekatuta nahiz oso kontrolatuta egozala. Galazo eta urte ilunetan, hareetan be albokak erakusten eban bere burua inoiz. Leon Bilbaok eta “Txilibrin”ek esan dabenez, gerros-tean albokak ez dauka errez plazetan eta bizitzea. Mariano Barrenetxearen bitartez albokari batzuek plazan jotea zelan debekatuta izan eben badakigu. Adibidez, “Pontxo” Orue, alboka eukiteagaitik, salatu egin ebela. Bildurrez, sekula ez eban, jende aurrean, gehiago jo alboka. Edo Zeanuriko Amundarain koartelera eroan egin eben plazan joteagaitik. Goarda zibilek etxean jotea laga egin eutsen, baina ez plazan.

Galazoen gaineratik edo alboetatik, jendearen onarpena hasten da albokarekiko. “Txilibrin”ek badino 1944-5ean indarra hartzen hasten dala alboka “*Gerra aurrean festibal guztietan yoten gendun, baina albokeak ez eukan hainbesteko indarrrik*”.

Nik uste dot honegaz hau esan gura ebala: albokak ez dauala toki haundirik euki, bere berezko lekuetatik kanpo (ermita, baserria eta taberna). Gerra aurrean ez ebala jendearen partetik estimu haundirik euki –eta bera ibili ei zan leku askotan joten–, baina gerra ostean dantza taldeei loturik hasten danean –nahiz eta urte ilunak izan, edo horrexegaitik– jendeak albokarekiko begirunea eta onspena erakutsi ebala. Horrela ulertu egin behar da bere aurreragoko esaldia (“*baserrian eta tabernean baiño ez zan yoten*”) eta oraingoa.

Albokari garrantzitsu bi honeen berbatan aditu behar dana izan leiteke, gerraurrean, basoerromeriari eta baserriari lotuagoa egoana, laugarren hamarkadatik aurrera –eta batez be 1950ko hamarkadan, eta zehatzago, 1960ko hamarkadako urteetan– alboka jendetza haundiagorentzat hasi zala ezaguna egiten eta, zer esanik ez kasu batzuetan, erreferentzia izaten, baina bere toki naturala mendetan izan zana (basoerromeriak) lagata, eta dantza taldeen mundu desbardinera lotua edo jende aurrean erakusketa soil modura.

## **6.2. Alboka lehen diskoa eta argitalpena**

Frankismoak euskal adierazpen kulturalentzat izan eban jarrera gaitztoa eta akabatzailea ezin da ukatu. Baina horregaz batera, jende jakintsuagoa eta kulturalki jantziagoa agertzen da, eta giro baltz haretan, albokarekiko begirunea eta onartzea, bere ordurarteko historian zehar inoizkorik zabalenean dago. Ez gizarte osoaren aldetik, euskaltzale batzuen partez baino. Eta jende arrunt eta euskal gauzeetako pasibotasunean ebilzenen aldetik, interesa edo jakinmina.

Diktadurak, 1960. urtearen inguruan, gauzak apur bat aldatzearen plantak edo itxurak egin zituan. Euskarak ez eban lekurik orduko periodikoetan. Euskal ortografia ez zan erabilten lagaten, eta euskarazko eskela iminiz gero, erdarazkoa be ipini behar izaten zan. 1962. urtera arte ez zan euskarazko artikulurik onartzen egunkarietan. Urte horretatik aurrera, “El Diario Vasco”n hasi zan zeozer agertzen. “El Diario de Navarra”n (“Nafar izkuntzaren orria”) eta “La Voz de España”n (Basarriren eguneroko artikulua) 1966. urtetik aurrera. 1969. urtean “El Diario Vasco”n urtetan eban orriak, euskaltzaleek ordaindu behar izan eben. ‘Zeruko Argia’ barria 1963an hasi zan kaleratzen. Dana dala, plantak edo itxurak egin ebezana, eta gerora ikusi izan zan aldaketarik ez egoala, baina irrikituak edegi ziran.

Bizkaian, ‘Anaitasuna’ 1967an eta ‘Agur’ 1972an argitaratzen hasi ziran. Baina, bertsolarien presentzia nabarmena da 1958an, lehenengoz gerra ostean. Bilboko Arenalean lurraldeko finalean hamar milatik gorako lagun aldra haundia batzea, salbuespen modukotzat jo geinke.

Liburuetan –erreferentzia kultural nagusia dana– esan behar da oso gitxi argitaratzen zirala euskaraz.

Albokaren mundua be, bizkortzen hasi zan. 1963an Mariano Barrenetxearen foiletoa, eta 1964an bere diskoa, argitaratu ziran. 1965ean “Txistulari” aldizkarian hasi eben albokaren gaineko informazioaren barriemoteek eta 1967an atal berezia, “Albokari” izenekoa. Leon Bilbao eta Maurizia Aldaiturriagak 1964. urtearen bueltan jo eben alkarregaz lehenengo bider jende aurrean, gerra ostean.

Alboka, egoerak lagaten zituan arrakaletatik, hasi zan han hemenka entzuna izaten. Argitalpena eta diskoa, lehenengo aldiz Euskal Herrian, argitaratu ebazan Barrenetxeak.

Estatu Batuetan, Alan Lomaxek –estatubatuar eta ia mundu osoko milaka orduko musika jaso egin ebana urteetan zehar, hasieran bere aitagaz batera– euskal musika hutsezko LPa argitaratu egin eban bertan Ameriketara, eta han agertzen da, beste soinutresna eta kantuekin batera, 1952. urteko abuztuan hemen grabatutako alboka musika (doinu bi). Espainian, Manuel Garcia Matosek “Txilibrin” grabatu egin eban eta 1960ean eta 1970ean argitaratu bere “Antología del Folklore Musical de España” izeneko bilduman.

Berbaldiak be eratu egin ziran, alboka gai bakartzat ebenak.

### **6.3. “Euskal herri soinutresnen” emonaldiak**

Beste bidea, erakusketa edo, jendea alaitzeko modu soila, dantzarik bakoa zan. Edo, bere berezko mundutik kanpo, jendea erakartzeko izan eban abiltasuna. Hau, esan daikegu jaietan eta ospakizun berezietan jazoten zala. Hirurogeigarren hamarkadaren erdialdera hasi ziran honelakoak egiten. Honetan, aurreko lauen gainera (“Jitano”, “Txilibrin”, Barrenetxea eta Beltran), Leon Bilbao eta Eujenio Etxebarria be aitatu egin behar dira. Leonek inoanez, 1975-1990 bitarteko urteetan, egunean hiru bider sarri jo egin ebela, baina lau aldiz joteko abisua be askotan heldu jakela, baina lar zalako, ez ebela onartzen.

Erakusketa honeetan euskal herri musikan erabilitako beste tresna batzuekin batera, agertzen zan alboka. Inoiz, kantariak edo bertsolariak be izaten ziran alboka agertzen zan jaialdi berean. Erakusketok, Euskal Herrian zehar egiten ebezan.

Beste era bateko jaietan be agertu izan zan alboka, hau da, zahar etxetara joaten ziran beste musikari eta artistekin batera, han bizi izaten egozan zaharrak alaitzera, batez be Bizkaian, 1952. urtean hasita.

Panderojotzaileak, honetxek, ibili ziran, batez be, aitatutako albokarietak: Maurizia Aldaiturriaga, Erromualda Zuloaga, Gillermo Etxebarria eta Balbino Ojanguren. Gehiago be badira. Albokariak be bai.



## 7. ERREPERTORIOA

Albokagaz mende honetan **jota** – **porrusalda** – **martxa** sarrien jo izan diran dantzak dira. Hortik landa, badira beste kasuak.

Iturri zabalagoetara joanda, gauza gehiago jo izan da hiru dantza musika horreetatik at: beste kantu apurren batzuk, dantza banakaren bat (“puntepioa”, adibidez), edo doinu solte batzuk (“alboka soinua”, bat aitatzeko).

Joan dan mendera heldu dan musika hori ezin leiteke pentsatu albokagaz jo izan dan bakarra danik. Galdutako alboka doinuak jaso dira; kantu batzuek badabe alboka musikaren oinarria; egun, doinu tradizional batzuk albokaz joten dira. Orduan, lehen zergaitik ez ete zan besterik joko, bada. Eta ukatu ezinezko egia, musika joteraoan gizakiak bat batean edo inprobisatuz, joteko dauan ezaugarria. Hortik, doinuak eten barik sortzeko ahalmena dator.

Gainera, kontuan izan behar da Barrenetxea eta Riezuren arabera, alboka euskaldunok kantatzeko dogun moduari lotua dagoala. Hau da, alboka kantuari lotua egoala hasikeran, eta gero gidatu zituala dantzak, panderoagaz batu zanean. Nahiz eta dakigun, dantzak kantuen laguntzaz be eroaten ebezala antxina-koek. Beraz, kantatzeko errepertorio bat be izango eban albokak, dantzarakoaz landa.

Izan leiteke XIX. mendearen akaberan, eskusoinuak erromerietan jendea albokari kentzeaz gainera, bere erakargarritasun barriak hala eraginik, albokari errepertorioa be murriztu egin izana. Hau da, albokak erromeriari –jokoa galduta eukan inguruari– lotu egin eban bere burua, bizi ahal izateko. Horregaitik, jota, porrusalda eta martxa baino jotzen ez ziran erromerietako piezei eutsi egin eutsen albokak, jendea erakarri ahal izateko. Horregaitik, erromerietatik kanpo be, horrexek hirurak baino ez ebezan joko, beharbada. Hau da, apurka apurka, beste eratako alboka doinuak alde batera itxi egin ebezan albokeroek: kantatzekoak, zein dantzan egitekoak –baina garrantzi gitxikoak–, zein jotekoak, soilik.

Albokari gehienek jota / porrusalda / martxa joteraoan, bakotxaren aldaerak edo bariazioak ebezan. Horrela, esan geinke errepertorio anitza ez ebela, baina aldea egoala jole batengandik bestera. Kasu batzuetan, mantentzen dira zatiak orden berean, eta besteetan ez. Baina, dantzaren zatiak mantendu egin behar dira, dantzariei pausua galdu ez eragiteko.

Izen diferenteak ebezan, eta dabez, hiru “jantza”/dantza edo pieza klasikook:

- Jota / jotea / jotie / lehenengoa / lehenengue. Fandangoa / Pandangoa be hemen sartu daiteke, nahiz eta berez, gauza bera izan ez.
- Porrusalda / porrusaldea / porrue / porrusaldie / bigarrena / bueltea / buelta.
- Martxa / martxea / martxie / korrue / korroa...

“Txilibrin”ek esaten ekian *“albokea ondo yoteko, kantak yakin behar dira, Jotea, Martxea, ‘cansiones’, Goizean Parisen, Akerra Yantzan... Albokearen ber-soak yakin be(ha)r dire. Bersoak atara eta kanteu. Yakin ezkeru soiñue”*.

### **7.1. Iraganean, errepertorio zabalagoaren aukera**

Iraganaz, aukera bi izan leitekez: aitatutako hiru dantza mota baino ez ebe-zela joten; edo, ia segurutzat jo daitekena, doinu gehiago jotekie zala albokari-ek.

Joten ziran hiru horreetan be, aldea dago. Gipuzkoan, inguru baztatuagoa eukanez albokak, libreago jotekie eben, Juan Mari Beltranek dinoskunez. Horrela, estilo zaharra mantendu egin eben, hau da, Iztueta (1767-1845) aurreko dan-tzen neurriak. Bizkaian kompetentzia egoanez, egokitu egin ziran doinuak, dan-tzarako gogoak halan eskatzen ebalako.

Bakartadean egozala inprobisatzeko joera eukiko ebela pentsatu daiteke. Hau da, mendian edo larrean, berez urtengo eutseezan doinuak joko ebezala dirudi. Horren adibide lez aitatu geinkez, albokari zaharren errepertorioan ager-tzen diran oinarritzko doinu beraren aldaerak.

Baina, gaur egun hainbat herri kanta eta balada albokagaz jotekie badira (“Joxepa Antoni”, “Mutil Txaleko Gorri”, “Bart Hamarretan”...), begitandu geinke lehenagoko albokariak be, gai zirala honeek edo beste pieza tradizional batzuk joteko, batzuetan hala gertatzen zan modura (“Obabatxue”, “Donostiako”...).

Bestelako errepertorioa heldu ez bajaku, izan leiteke ez egoalako –jotekie ez ebelako– edo joan dan mendean (XIX), piezok joteari laga egin jakolako, eta jen-deak eskatzen ebana, hau da, dantzarako balio eben doinuak baino ez zirala geratu.

### **7.2. Iturriak**

Aurrera begira, betiko piezak albokagaz jo eta doinu barriak sortu behar dira-la argi dago, nire eritxian. Soinutresnak ezin diralako lotuta euki. Gizon emaku-meek gure sentimentuak eta nahiak komunikatzeko eta jakitera emoterakoan, ezin deusagu geure buruari mugarik imini. Munduko toki bakotxean berezkota-sunak erakutsiko dira musikan, baina barru izakerak gauzak urtetekie dabekie moduan emotekie ditu.

Musika, aldatzekie dan edo ez, denboran zehar, eta jatorritz hemengoa dan edo ez, euskaldunoi buruhauste asko eragin deuskuezan gaiak dira. Soinutresnekin be, antzekoa jazo jaku.

R. M. Azkuek itauntzekie dau bere “Cancionero Popular Vasco”n jaso ziran ber-baldi bietako lehenengoan (“Música Popular Vasca”n) ea ze herri, ze hizkuntza, ze herri musika libratu izan diran kanpoko eraginez edo kutsuaz. Domeketan,

herri haundi samarretan kanpoko doinuak entzuten zirala dinosku, baina sarritan nongoak diran jakin be ez ekiela:

“habaneras, polkas, schotisch, walses, mazurkas, seguidillas, jotas y zorziqitos koipes, que sólo tienen de vasco el nombre y el metro; y, sin embargo, el cancionero vasco vive, como vive nuestra lengua, a pesar de que todos los periódicos, todas las escuelas conspiran en lucha abierta contra su existencia; y vive sin vilipendio, sin que acaso en el ochenta por ciento de sus canciones se note, ni en su ritmo, ni en el fraseo, ni en su ámbito melódico, la infección de estos niveladores letales elementos”.

Orain, ondoren datorrena, gauza zentzuzkoa dala ezin ukatu. Gauzak beste modu batera, zabaltasunez, ikusi behar dirala erakusten deusku Azkuek. Halan dino:

“Verdad es que aquí no hay lengua que pueda jactarse de no haber sido influida por otra; así como no hay mar, ni siquiera el Caspio, con cuyas aguas no se mezclan las de otro mar, pues las nubes se encargan de recoger la evaporación de las aguas de todos los mares, y de condensarlas y repartirlas por toda la tierra; así como no hay cancionero en el mundo tratándose de pueblo siquiera barnizado de cultura, que pueda envanecerse de absoluta autonomía”.

Amaitzeko, eta ondorio lez edo, hauxe dino Azkuek:

“La evolución es ley primordial con la que el Creador rige la materia, no sólo la que se palpa y se oprime, sino aun la materia impalpable, el sonido. Y a esta ley están sujetas todas las lenguas y todas las canciones del mundo. Y así como sólo podría gloriarse de conservar aguas del siglo XIV quien, adelantándose 600 años a su época, las hubiese congelado, así solo el pueblo griego que yo sepa, puede gloriarse de conservar algunas de sus antiguas melodías, solidificándolas, por así decirlo, incrustadas en bloques de piedra y en pieles. Por lo que a nosotros afecta, la antigüedad no nos ha legado muestra alguna, gravada [sic], ni de nuestro vocabulario ni de nuestro cancionero. Tenemos, sin embargo, convicción plena de que semejante al mar, que agita en su seno, aguas multiseculares, nuestro cancionero agita en las ondulaciones de sus melodías, diseños, cadencias y ritmos de muchos siglos de antigüedad”.

Azkuek, kantei eta doinuei buruz dinoana beste zenbait autoreetan be irakurri daikegu. Aita Donostiak era guztietako eritxiak emon izan ebazan, behin baino sarriago, kontraesankorrak. Halan da be, kontatu euskun fandangoaren jatorri arrotzez berba egiterakoan, zelan ikusi ebazan Baztango tanbolinteroek, fandangoa joteraoan, txistua edo txilibitua laga eta klarinetea hartzen. Nahiz eta hemen urtetan sustraitua egon, senak esaten eutsen tanbolinteroek, kanpoko zala musika ha. Fandangoa, hemengoa ez zala somatzen eben.

Humboldték, “Los Vascos” liburuan -1800. urtean hona eginiko bidaia kontatzen dauan liburua- fandangoa hemengoa ez zala inoskun. Igarten jakon kanpoko zala (“Pues no tiene rudeza norteña, sino el sello visible de la influencia de un clima”).

Juan Inazio Iztuetak antzeko informazioa emoten dau dinoanean Hernanin galazo egin ebala udaletxeak fandangoa jotea, kanpotartzat eukalako. Hori

horrela izango zan, baina, 1727an Bilbon, jendeak fandangoaz egiten eban dantzari.

Fandangoa aparte itxita, Iztuetak bere *“Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia”* liburuan dino zelan XVIII. mendeko tanbolinteroek sartu ebezan kanpotar –ingeles, alemaniar edo frantziar– doinuak gure artean. Bero plantatzen zan Iztueta tanbolinteroek alborada bat jotera, ingeles minue edo frantziar balsa jotenean. Harrokeriaz erantzuten ei eben tanbolinteroek *“gu ez gara badaezpako musikariak, inork artzainen musika eskatzeko”*. Honeen aldean, erreperitorio tradizionala gordeten ebenak baegozala esan eban.

### 7.3. Erreperitorio txikia

Albokaren erreperitorio txikiaren arrazoiak topatzen hasiz gero, soinutresnak berak eukazan posibilitate urriak aitatu izan dira, eta hala izan leiteke. Azkuek esan eban bere CPVn *“a lo muy reducido de la gama del albugue se debe... que melopeas... conocidas de los albugeros, al querer emitir las piezas con este instrumento, salgan muchas mutiladas”*.

Honen aurrean, albokaren posibilitateak zabaltzeko, idatziz ezagutzen dogun lehenengo aldiko ahalegina egin eban: *“encargué a un pastor de Aizkorri una alboka de gama más extensa. Nada sé de mi encargo”*.

Albokari ze ondorio ekarri egin eutsen be argi ikusi eban:

“Tal vez debido a esta reducida extensión (solo llega a la séptima) o tal vez por la invasión del antipático acordeón, más chillón que el albugue, más fácil de tocar y sobre todo menos fatigoso, lo cierto es que hay ya muy pocos albugeris. Su instrumento ya no despierta otros ecos que los que duermen en las estribaciones del Gorbea y del Aitzgorri”.

Honetaz, jotzaileen kopuruari buruz, beste leku baten hitz egingo da.

### 7.4. Ekarpene barriak

Gorago esan dana, pieza barriak sortzearen aukera eta beharizanaren gaia ekarri da hona. Baina, barriak sortze lan, kanta eta doinu tradizional ugari dogu Euskal Herrian. Kontuan hartzeko berbak dira *“Txilibrin”*ek esan eustazanak bere etxean: *“Kanta asko hemekoak, baiña inok ez eban atara. Beti jota, porru eta martxea. Orain yo behar dana da «cansiones de euskalherria»”*.

Hogeigarren mendearen azken hogeitun urteotan, oso inportantea izan da albokak euki dauan gorakada. Azkenengo albokari tradizional edo klasikoek jardueratik aparte, soinutresna *“tenperatuaz”* edo perkusinozkoak ez diran beste tresna batzuekin batera joteko moduko albokak egikeran, batetik eta doinu barriak sortuaz, bestetik, albokak zokondotik urten dau.

1980. urte ingurutik hona, lan handia egin dabenak folk taldeak izan dira. Horren aurretik, **“Ez Dok Amairu”**koak izan ziran alboka erabili eben lehenengo-

tarikoe (1966. urtean sortu zan taldea eta gerotxoago, albokari modura, Bandres ibili zan, taldea 1972an desagertu arte). Gero, **Sustraia** izeneko folk taldea sortu zan 1973an eta albokaria Juan Mari Beltran izan zan.

1978an **Izukaitz** (Fran Lasuen eben albokero) eta 1979an **Errobi** (Anje Duhalde zan albokaria) akaso lehenengoak izan ziran hirurogeitamarreko hamarkadaren azkenetan alboka erabilten. Baina meritu handia euki arren, erabilera testimoniala da. Izukaitzek, beste doinu batzuen artean, “Karrakan trakatan” tradizionalan ahalegin polita egin eban. “Hilbehera” izeneko doinua be jo eben eta 1980ean desagertu egin ziran. Errobik “Alboka” izeneko kantari erabili eban alboka, “Ametsaren bidea” diskoan. **Haizea** taldeak be 1979an badarabilela emoten dau doinu baten.

Lehenengotarikoak, alboka beste soinutresna baten modura taldean erabilten, Oskorri, Azala, Kazkabarra eta Txanbela izan ziran. Larogeigarren hamarkadan hasi ziran alboka sartzen, doinu batzuk jotera.

Larogeigarren mendearen hasieran, **Oskorrik** ikaragarritzko bitzta emon egin utsan albokari 1980. urtetik aurrera, “Plazarik plaza” diskoagaz hasita. Taldeko formazio diferentetan hiru albokari izan ditu: Joserra Fernández, Aitor Gorostiza eta Josu Salbide.

Oskorri, diktaduraren azken urteetan sortu zan, 1971. urte inguruan, eta euskal musikan paper garrantzitsua izan dau. Talde nagusia edo, behintzat, inportanteenetakoa. Euren berbatan, folk industrialak egiten dabe. Hasieran euskal poetak musikatzen ibili izan ziran batez be (Aresti, Etxepare, Amuriza...), doinu tradizionalak eta euren sortutakoak erabilia. Soinutresnen aldetik era guztieta-koak erabili izan dabez, eta euren artean hemengo herri musikan nabaritzen diranak, eta baita be, denboragaz, alboka.

Joserra Fernández dabe lehen albokaria 1980. urtetik aurrera, hamar urtetan diharduena, xirula eta harmonika (hau, Mississippiko deltako bluesman batek baizen ondo jotzen dauana) joteaz aparte. Gero, denbora laburrean –pare bat urte inguruan– Aitor Gorostiza dauke albokero (eta xirularia, xirularrojolea...), eta azkenengo ia hamar urteotan, Josu Salbide (baita flautak, klarineta, dultzaina, flageoleta, Uilleann pipes... be jotzen dituan).

Oskorrik albokari leku bizkorra eta egokia emon izan deutso musikan. Indarra eta benetakotasuna transmititu egin dabe. Albokak bere tokia oso ondo beteten izan dau, gustora entzuten izan da. Joserra Fernández maila handiko albokaria da. Josu Salbidek be maila altua erakutsi dau. Biak dira haizezko zenbait soinutresna jotzen dabenak.

Alboka erabilitako doinu batzuk honeexek dira: “Kaioluma zikina”, “Adio Katalina”, “Gipuzkoako buelta”, “Ezpatadantza”, “Hiri Porru”, “Korrika”, “Arin Reggae”, “Arta Ganbaran”, “Zalaparta”, “Aizkorriko Lamia”, “Alabatxoaren kantua”, “Kausino, euskal filosofo”, “Logure naz”, “Aitite ta amama”, “Damea, damea”, “Udabarriko lora ederra”, “Albaiterua”, “Txikertxu polit hori”, “Zortzi nobio”,

“Belaskilloren kantia”, “Maurizia pandero joleari”, “Nire begi ninia”, “Ume horren eskua”, “Negarrez jaio nintzan”.

**Juan Mari Beltran** talde desbardinetan (Sustraia, Azala, Txanbela, Goikoetxea & Beltran, Beltran...) ibili da eta aparte, beste batzuei lagundu egin deutse (Furunda taldeari, esate baterako, gehiagoren artean), eta multi-soinutresnajele honek albokari toki garrantzitsua emon deutso bere doinuetan, bai berak sorturiko askotan, eta bai beste edozeinetan.

**Azalak** doinu tradizionalak jo zituan 1983tik aurrera albokaz, “Mutil txaleko gorri”, “Iurretakoa”. Juan Mari Beltran talde honetako lehenengo albokaria da, larogeigarren hamarkadaren hasieran. Honek alde egin eta gero, emakume albokari batek, Marta Cochok, jotzen dau “Azalaren Martxa” izeneko kalejira zoragarria bigarren diskorako. Taldea, 1989an desegin zan.

**Txanbela** izeneko taldea sortu egin eban Juan Mari Beltranek, Azala laga eta gero, lehen diskoa 1984an argitaratu ebela. Doinu tradizionalak, “Garat-i albokaz”, “Txindokiko Itsaso”, “Goizaldean arrastia”, zein barriak “Albokaren jotia”, “Bosteko”, “Sagardotik GinTonikera”, “Euskaraz bizi” jotzen dabez, eta albokari tratamendu interesgarria emon jako talde honetan, berau ondo jota eta konponketa egokiak egínez, albokari –agutzen dan doinuetan– lehentasunezko tokia emonez.

Aitatzekoa da Beltranek –soinu tresna anitz jotzen dituana eta euskal musika tradizionala sakonki ezagutzen dauanak– hain ondo ezagutzen dauan Gipuzkoako alboka doinu zaharrei egindako egokipena, zehazki Patxi Gorrotxategi Zegamako albokariak jotzen eban “pandangoa, bueltea eta martxea”.

“Furunda” izena eban taldearen honelako doinuetan jo eban alboka Juan Mari Beltranek: “Neskatxa baten kontuak”, “Talamanttuna”, “Hankabaloia” eta “Bill Gatesen gabon kanta”. Javier Álvarezek “Rasputin” izeneko kantuan alboka jo eban.

Juan Mari Beltranek beste talde edo kolaborazio berezia egin dau, “Goikoetxea & Beltran” izenekoa, eta musika tradizionala bersortzeko ahalegina oso ondo lortu eban. Albokaz, honelakoak jo dabez: “Fandango aparta”, “Saltoka”, “Deia”, “Azken dantza”. Juan Mari Beltran izeneko taldean, alboka honeetan doinuetan jotzen dau: “Gorrotxategitarren pandangoa”, “Martxa errena”, “Rau, rau, rau”, “Arditurri”, “Sorgin etxea”, “Arrapaladan”.

**Kazkabarra** taldeak albokari bi izan zituan: Joxe M. Urreaga eta gero Xabier Gil. Kazkabarrak musika tradizionala ebilen hasikeran, 1985. urtetik aurrera. Geroago, albokarako bereziki Bixen Beltranek sortutako doinuak, jo ebezan: “Euskararen aldaba”, “Baxenafartarrak”, “Goiz goizetik”, “Uso zuria-buruntzapi”, “Gure kalejira”, 1991ean desagertu arte.

Albokarako doinuak sortu ebezan lehenengoak, Beltran anaiak izan ziran, euren talde banatan. Kanten edo piezen funtsezko eta berezko soinutresna lez alboka erabilten hasi zan lehen aldiz.

Titiriteros de Sebastopol antzerki taldeagaz batera, antzerki-musikala egiten eban **Trikipunk** bikotean, Elena Bezanilla Albisuak jotzen eban alboka. Segurua-go, lehen emakume albokaria izan zan.

**Lauburu** taldeak lehen atzerritarra aurkezten deusku alboka jotzen, John Taylor irlandarra. Alboka, honeetan jotzen da: “Uharte-arnegi” eta “Martxa britainia-rra”. Ez da atzerritar bakarria izango baina.

Soinutresna honek talde bati izena be emon deutso: ‘**Alboka**’. Albokaria, hemen be irlandarra da, Alan Griffin. ‘Alboka’ izeneko taldeak, soinu tresna bera-ri lotutako izena erabiliz, publiko zabalari asko lagundu izan deutso soinutresna hau zelakoa dan, eta ze soinu daukan, jakiten, musika desbardina edo barriztua ondo joteaz gainera. Lehenago sortua izan zan hau talde hau, baina alboka 1998an sartu eban Griffinek.

Doinuetan batzuk: “Mendaro /Patxi-kontra”, “Hortz zorrotzak dituen arkumea /Txakur berdea”, “Grabo /Lau puntuak”, “Ezpatadantzak: Aita Juaniko / Perretxikotan / Binako”, “Hi, Zelta!”, “Lau mazurka: Adarra”, “Jauntxoa”. Doinu batzuk tradizionalak dira eta besteak Griffinek sorturikoak.

Rock’n Roll munduan be sartu da alboka, eta iparraldera be abiatzen da lehe-nengoz. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa izan doguz aurrelari euskal lite-raturan, hogeigarren mendera arte eta musikan be, *Xiberoako* musika tradizio-nalaz eta iparralde osoko kantaz landa, Mixel Labegerie izan zan lehen euskal “kantautorea”, eta **Errobi** eta **Minxoriak** lehen euskal rock talde ezagunak. Biek erabili eben alboka, eta albokariak Anje Duhalde, Errobin –lehen esan lez– eta Josu Salbide, Minxoriak-en izan ziran.

**Xabaltx** izeneko taldean, Pantxoa Bergara kantariak gidatutakoa, Gasteizko Karlos Subijana izan zan albokaria. Folk taldea dan **Zapozainen**, alboka Xavier Miega “ZeZe”k jotzen dau.

Orain urte batzuk desegin zan **Exkixu** talde bizkaitarrean, Iñigo Ibarretxek jotzen eban alboka –eta geroago **Gatibu** izenekoa–. Exkixu rock taldean albokak ondo hartu eban bere tokia, doinu modernoei egokituz, eta gazte askok alboka ezagutu eben euren esker.

**Sugan** taldean, Aitor Gorostizak jotzen dau. Honek, **Izeki** izeneko taldean be jotzen eban. **Euritan Blai** izeneko taldean, Juan Ezeiza da albokaria. **Trikitixa Kon-trairon** Iñigo Lópezek, eta **Betagarrin** Gonzalo Zaldibar Karrantzak jotzen dabe alboka. Betagarrin, “Conxuro d’a quemada”, edo “Soldadutza” izeneko kantue-tan jotzen da. **Drònadár** izeneko taldean, albokaria Ivan Allue da.

Talde barriagoetan, **Eguen** bandan Fran Lasuen da albokaria, eta **Mixel Ducau & Caroline Phillips [Bidaia]** izenekoa, Mixelak jotzen dau alboka. **Kuku-ma** izeneko taldean –lehen Sorbeltz izena ebana– Xabi Valle da albokaria.

Jazokera nabarmenena “Leonen Orroak” lana argitaratzea izan da, 1996an. Alboka da soinutresna nagusia eta doinu guztietan jotzen da. **Ibon Koteron** albo-

kariak alboka jo eta lau doinu sortu ebazan lan honetakoak, beste piezak Kepa Junkerarenak dirala: “Odolaren boza”, “Adar okerra”, “Arrana-karran”, “Ziztadantza”, “Sugoiaren dantza”, “Itxinako behe-lainoak”, “Zirkinipez”, “Zenarruzako sekretua”, “Dringilin dango”, “Hamaika kolore”, “Baltzolaria bidean”, “Leonen orroak”, “Zummâra”, “Barakaldotik Arratiara”, “Txirikila” eta “Atxular atea”. Disko honen aurkezpenerako, Leon Bilbao eta Maurizia Aldaiturriagari omenaldia egin jaken Artean.

Esan daiteke lan honen ostean albokaren papera eta presentzia musikan eta gizartean aldatu egin dala, eta orain, asko talde gehiagoetan –baita euskaldunak ez diranetan be–, eta asko doinu gehiagoetan entzuten da alboka, bai “folk” munduan, bai “rock” munduan, baita beste eratako musiketara be. Alboka, askoz ezagunagoa bihurtu da, leku askotan agertzen da alboka eta okasino garrantzitsuagoetan entzuten da. Lehentxoago –atal honetan– aitaturiko talde gehienek Koteronen eragina dauke.

Ibon Koteronek batez be, Kepa Junkeragaz eta Tomas San Miguelegaz jo dau alboka, aitaturiko biek sortutako doinuak albokaz joaz eta jantziak. “Leonen Orroak” diskoko doinu batzuek gainera, Kepa Junkerak sortutako “Kalejira albuk”, “Billy from overseas”, “Neguko balsa / La valse”, “Busturiko bikingoak”, “Urdaibai”, “Bok-espok”, “Oliene” piezetan jotzen dau alboka Koteronek. Tomas San Miguel arabarraren doinu honeetan da albokaria Ibon Koteronek: Obertura de Lezao”, “Maurizia”, “Zaldi dantza”, “Pléyades”, “Una leyenda áurea”, “Santa Age-da”, “Between”, “Obalao”, “En un eterno retorno”.

Baina, baita Tapia & Leturiagaz (“Txapelau” doinuan), Oreka TX (“Landarbaso” eta “Ekia” doinuetan), Tejedor hiru neba-arreba asturiarrekin edo Berrogüetto talde galiziarreagaz be. Beste batzuen artean, esate baterako, “Lizarrako bidean” doinua, Romano nafar gaitajoleari egin jakon omenaldirako diskoan jo eban Koteronek alboka. ÑKU taldearen “Fuego” doinuan be, alboka jo eban, eta irrati sintoniak be sortu ditu.

Bere bakarkako bigarren diska 2004ko urtean atara eban, “Airea” izenekoa. Lan honetan, tonalitate edo afinazino desbardineta albokak, lehenengo aldiz, erabiliak izan ziran (La doriko standarra & Sol-era hedatua; La doriko standarra; Sol-era hedatua & La Mixolidiokoa; Sol-era hedatua, eta Txilibriren erako alboka). Piezetan, sei Koteronenak dira, bat herrikoia eta gainontzekoak Junkera edota Asier Erzillarenak: “Airea”, “Nabilela”, “Tsambouna”, Lurraren nigarra”, “Lekarro gorian”, “Mixerra”, “Albokeroen martxea”, “Maite bat maite duenak”, “Txirriren hegaldia”, “Bakun da biderra”, “Txili sauce” eta “Zinburruna & fitak dantzan”.

Albokak lagungarri dituen soinutresnak, orokorrean ikutu etniko zabala, europarra, afrikarra eta ekialdeakoa, emoten deutse lanari. Perkusinozkoak eta zarrabetea landa, albokaren senideak diran tresnak be entzuten dira: launedak, Gastor-eko gaita, duduk, liru, mänkeri. Lehenengo diskoa Leon Bilbaori eskindu egin eutson omenaldi modukoa bazan, honetan Txilibri dau gogoan Ibon Koteronek. Atara barria danez, ezin da oraindino “Airea”ren eraginei buruz



berba egin, baina “Leonen Orroak” izeneko lanak iraultza ekarri baeban alboka –eta musika– munduari, bigarren lan honek be ondorio emonkorrak izango ditualakoan nago.

## 8. ESPARRU GEOGRAFIKOA

Alboka ez dakigu ez noiztik, ez non joten zan be. Iraganean, gaur euskal lurraldetzat hartzen doguna, eta bere inguruko lurraldeetan, joko zan seguruago alboka. Baina, ezin da zehatz esan zein zan esparrua, denboraren poderioz murriztuz joan zana, baina han-hemen aurkitu izan da jole solteren bat.

Hogeigarren mendearen hasieran, Bizkaian Gorbeialdean eta harantzatxoago be jotzen zan. Aranzadik, albokari buruz –1916an– argitaratu egin eban lehen artikuluan, “*Arratia, Léniz y Goyeri*” izentatu egiten ditu albokaren esparru lez. Azkuek, albokari gipuzkoarrak be aitatzen ditu –“*el de Idiazabal me dijo que ellos, como tañedores de albugue, descendían de los arratianos*”.

Gorbeialdea, Bizkaiko –eta Arabako– hogeigarren mendeko alboka esparru nagusi lez jotzen dogu. Hau da, Arratia eta inguruan dagozan herri batzuek: Bedia, Lemoa, Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza, Zeanuri, Dima, Zeberio, Zaratamo eta Galdakao.

Galdakaoko Juan Otxandio albokaria zanari jaso neutson informazioaren arabera, Orozko, Otxandio, Ubidea eta Legutianoko (Arabako Gorbeialdea hau be) albokariak ezagutu izan zituan, nahiz eta gehienen izenekin gomutatu ez –Ubidean Olanotarrak aiatu ebazan–. Baina, Juan Otxandio oso zehatza zan datuak emoterakoan eta beti bertsino bera emoten eustan alboka munduko edozein gauzataz. Nik sinisgarritasun haundia hartzen neutson, esan eustazan gauzak beti bardinak eta zehatzak ziralako, eta nabaritzen jakolako albokarekiko interes eta ezagutza haundia. Orozkori dagokionez, Urrexola auzoko Urrexolagotiko baserriko kortan aurkitu eben alboka bat.

Beste alde batetik eta bere senideei jaso deutesdanez, Okendo herrian be egon zan albokari bat, Juan Jose Mendieta Pagazaurtundua (1885-1966) izeneko. Albokaz gain, soinu-txikia be jotzen eban. Ezkontzerakoan, 1920an, musika joteari laga egin eutson.

J. M. López de Elorriaga, “Coppi”k dino, Sociedad Excursionista “Manuel Iradier” (104 eta 105. zenbakietan) aldizkarian, 1969. urtean, jende zaharrak gomutan ebala Araba aldeko Gorbeialdean zelan mutikoak egoten zirala alboka eta dultzaina jotzen, behizain edo artzain egozan artean. “Coppi”k, Zigoitiako albokari bi be aitatzen dauz gerra aurrean, Gasteizen jotzen, 1935ean.

Bizkaiari dagokionez eta aitatutakoaz gain, Enkarterrietako Zallan be egon da albokaririk, Mariano Barrenetxeak (1976) dinoskunez.

Durungaldean, hogeigarren mendearen aurretik ia segurutzat jo daiteke albokariak egozala eskualde horretan. Alde batetik, Aita Donostiak dinoskulako,

1777ari dagokionez, berak Amador Carrandiren “Catálogo de manuscritos, lista de tenientes y Monografía de la Merindad de Durango”n (Bilbo, 1922) hau aurkitu ebala “Considerando perjudicial la orden de suspender, en verano a las cinco y en invierno a las dos y media, la diversión del tamboril, silbo y albugue...”. Honek, inguru horretan, alboka popularra zala esan nahi dau. Bestetik, Azkuek jaso zituan alboka doinuak eskualde horretako bere barri emoleengandik. Gero, Durangaldeko baserri bitan be aurkitu izan dira albokak, Aingeru Berguicesek (1986) dinoanez.

Busturialdean, Berguicesek (1990) eskualde horretako herri musikaz lan sakon eta mardulean, berak ez ebala aurkitu alboka aitamenik, ez arrastorik dinosku. Eskualde horretan salbuespena izango litzateke Florentzio Egiarte, Gorozikako dultzaineroa zana eta baita albokaria be. Egiarte (1894-1980) izan leiteke, beraz, Busturialdeko azken albokaria. Gorozika –Muxika udaleko auzoa– pentsatu behar da ez dagoala Galdakao eta Arratitik urrunegi. Baina, akaso Arratia inguruan asko ibilitakoa zalako, ikasi eban. Lea Artibain oraindik gatxagoa izango zan egotea, eta horregaitik ez dot hona ekarriko jasota dodan oso zehatza ez dan aitamenik.

Mogimendu haundia egoan orduko denboretan, aberea batetik bestera erooten. Jendeak alkar ezagutzen izaten eban –herri batekoak besteetakoak– eta izan leiteke albokak XX. mendearen hasieran izan eban baino esparru zabalagoa euki izana.

Egunen baten, datu gehiago agertuko diralakoan, oraingoz behintzat zain egon behar, aurreko mendeetan –edo XIX.ean, behintzat– ze albokari, eta nongoak ziran, jakin ahal izateko, baita XX. mendekoen zerrenda zabalagoa be osatzeko.

Bizkaitik eta Arabatik kanpo, Aizkorri inguruan be egon dira. Hau da Aretxabaleta, Oinati, Goiherriko Zegama, Idiazabal, Segura...

Albokaren eragina mendi haundien altzotan emon izan dala esan leiteke: Gorbeia, Aizkorri, Urbasa, Pagoeta eta Aralar mendien inguruetan. Baina esan dan lez, antxina, euskal lurralde guztietara hedatuta egongo zan.

Eta hala jazotzen da gaur egun. Hau da, albokari tradizionalak (solfeorik jakin barik, irakasleak betiko metodoz erakutsita; baserrian, mendian edo kasu batzuetan, eleizaldean bizi izan diranak; familia, auzo edo herritik ikasi dabenak; alboka egiten jakin dabenak) alde batera itxita, gaur egun edozein herrialdetan egon daitezke albokariak. Horretarako eskola asko dagoz, eta albokagile profesional eta ez-profesionalak.

## **9. ALBOKARI TRADIZIONALAK**

Albokari tradizionalak ezagutzeko idatzizko bide nagusia eta ia bakarra, **Mariano Barrenetxearen** (1976, 106 or.) zerrenda da. Izenburuan esaten danez,

“notable”tzat joten dituanak datoz. Hortik aparte, zenbat egon ete dira XX. mendean zehar, eta zenbat haren aurrekoan, XIXgarrenean?

Bide idatzizkoaz batera, albokari tradizionalak eurak be baditugu beste iturri bat.

### 9.1. Zenbat eta zelakoak

**Azkuek** bere CPVn dino “lo cierto es que hay ya muy pocos albokaris” eta “ya no despiertan otros ecos que los que duermen en las estribaciones del Gorbea y del Aizkorri” edo **Rodney Gallopek** “The alboka, a Basque survival”n (1939) hiru baino ez zituala ezagutu (Amundarain, Etxezarraga eta Iurrebaso) inoan. Bere semea dan Nigel Gallopek, Euskal Herrian 1927an jaioa eta Londonen bizi danak, ezin eustan sinistu 2000. urtean alboka bizirik egoanik, ez eta bere aita-ren garaietako albokariak be: “Txilibrin”, Sagarna, Etxebarria.

Rodney Gallopek aitatzen dabezan hirurak, **Jesus Larreak** –bederatzi urte lehenago argitaratutako artikuluan (1930)– zehazki aitatzen dituanak dira, nahiz eta Larreak gehiago dagozala aditzera emon, Bizkaian eta Gipuzkoan, artzainen eta baserritarren artean (gomutatu behar da 1923an, Larreak Jose Iturbe azken albokaria ete zanaren zalantza eballa, baina zazpi urteetan joleak aurkitzen eta ezagutzen hasi ei zan). Larreak informazio emole nagusia Alejo Etxezarraga izan zan, baina baita Amundarain be. Biak eroan zituan Bergarako Eusko Ikas-kuntzaren 1930. urteko batzarrera.

**García Matosek** informazio emole bakarra euki eban 1956an (“Txilibrin”), eta hiru albokari baino ezin izan ebazala aurkitu (“Txilibrin” eta beste bi –agian, Tiburtzio eta Jitano, bata anaia eta bestea lagun hurkoa ebazalako Txilibrinek–) idatzi eban Matosek. “Txilibrin”ek gitxi egozala esango eutsan seguruago, eta Matos gehiagoren bila, saiatu be ez zan egingo, “Txilibrin”engan barriemole ona aurkitu ebalako, bai albokagile eta bai jole modura. Gainera, Bilbon bizi zana, eta kontaktatzeko errezagoa ebana, kanpoan bizi zan Matosek.

Azkuek, baztarrak arakatu zituan Euskal Herri osoan eta lan ikaragarri garrantzitsua eta haundia egin eban, eta aparte, lagun asko ezagutu zituan. Baina, albokari gitxi ezagutu ei ebazan.

Lan honetan datozenak baino gehiago egon izan dirala argi dago. Ze, alkarrizketatutako albokariaren arabera, nahiko falta dirala zerrenda horretan dirudi. Sarritan izenak ez daukez gomutan, baina badaiki, kasurako “Txilibrin”ek, Lemoan laubost egozala, Bedian be batzuk, Zeanurin asko, eta Igorren dozena inguru bere etxeok kontatzen badoguz. Hau da albokari baten testimonioa –albokari ezaguna eta asko ibilitakoa– baina, gerra ostean fama gehien hartu ebana eta asko egozala esan eustana. Leon Bilbaok be badino gerraurrean albokari asko egoala.

Hain ezaguna izan ez dan Juan Otxandio albokariak be, albokari asko aitatu zituan. Tradizionaletan gazteena (1927), Otxandio 1936ko gerrara ez eben ero-

an eta zaharrak ezagutzeko aukera euki eban –adinagaitik gerrara eroan ez ebezanak–, bera baino apur bat zahartxoagoak ziranen gainera, hau da, frentera joan ziranak. Albokari asko izentatzen ditu, besteen izenak ez daukaz gomutan, eta esparru zabalagoa aitatzen dau: Orozko, Otxandio, Ubidea, “Billarreal” (Legutiano). Juan Otxandioren eritxiak entzunik, argi lagaten dau asko eta asko izan dirala albokariak.

Kontuan hartu behar da hogeigarren mendearen lehenengo hogetabost urteak ezagutzeko gazteegiak zirala hemen datozen alkarrizketatuak. Horregaitik, pentsatu leiteke izenez ezagutzen diranak baino gehiago izan dirala.

Gainera, orduko denboretako zereginetan, arazoak –beharrak– eta lo egitea aparte, ez egoala entretenimentu haundiegirik, berbetan edo jokoan eta olgetan egitetik landa. Alboka, dultzaina edo txistu / txilibitua lortzea edo erostea ez zan gatxa izango. Eta orduak emoteko, musika beti izan da pertsonaren kontsolagarri eta olgaugarri.

Errez irudikatu leikez Gorbeialdeko eta inguruko herrietako mutikoez eta mutilek alboka jotzen ikasten. Eta gero, etxean edo behizain, jotzen ibiltea. Heldutakoan be, batek baino gehiagok eutsiko eutsen albokari. Baina ez erromerietan joteke, afizino modura baino. Hau ei zan Jose Mari Bilbaoren kasua.

Albokari onak, gitxi izango ziran. Gure belarrietara ezagunenak lez heldu jakuzanetatik, batzuk. Honetan, beharbada Manuel Olaizola “Uztapide” zorrotzak esan eban bardina esan daiteke, norbaitek garai zaharretako bertsolarien maila edo kalitateaz galdetu eutsonean: “Onak, lehen ere, gutxi”.

Belaunaldiei edo eskolei buruz berba egitea gatxa da, baina zeozer esan leiteke.



XX. mendeko hasierako urteetan Anbros Gorostiaga buru eban lehen belaunaldia: Kasimiro Gurtubai, Domingo Inunziaga, Juan Kanala-Etxebarria, Jose Iturbe, Anton Iurrebaso, Juan Bautista Orue, Ramon Iruarrizaga...

Bigarren baten, Graziano Lekue “Txisperue” eta Migel Larrinaga “Txuskkoa” aitatu leitekez belaunaldiko buru lez eta beste batzuk: Inazio Uribarri “Andaluze”, Alejo Etxezarraga, Alejo Gurtubai “Barberue”, Manu Barandika, Pedro Sagarraga, Santamaria, Jose Mari Bilbao, Bernardino Zautua, Juan Kruz Valle...

Erdian, Graziano Lekue “Txisperue” Zeberioiko albokaria (arg. K. Urzaa bilduma)

Hirugarrenean, Juan Jose Amundarain “Muñegi”, Florentzio Egiarte, “Pontxo” Orue, Luziano Langara, Quintana, Bernardo / Tiburtzio / Jose eta Benito Elezkano, “Buztarri”, Benito Iragorri, Antonio Aiesta “Jitano”, Olanotarrak, Leon Artabe, “Gazte”, Silbestre “Txilibrin” Elezkano, Emilio Sagarna, Leon Bilbao, Andoni Goi-coetxea, Juan Lekue, Eujenio Etxebarria, Juan Otxandio...

Eskolak egon diranik ezin da esan -ez eta ukatu be-, baina bai zaletasunak, eta estiloak. Horrela “Txuskoa”, onena lez, jotzen eben Bilbaotarrek (Leonek, aitari entzundakoa, ze berak ez eban ezagutu). “Txisperue”, ostera, Elezkano Uribarritarrek. Juan Otxandiok, “Txisperue”, “Barberue” eta Tiburtzio Elezkano jotzen zituan onenentzat. “Txilibrin”ek, barriz, “Txisperue” eukan trebeena lez, nahiz eta aurrekoei buruz galdetuta, Anbros Gorostiaga jo burutzat, eta hau esan: “onena”.

Esan beharrik ez dago belaunaldiek alkarregaz topo egiten dabela. Gizartearen eta musikaren sailkatze naturala da. Honeetako batzuk, baten bategaz hartuemon berezia euki eben: Tiburtzio Elezkano, “Barberue”gaz ondo moldatzen zan alboka batera jotzen eta atzera aurrera ibiltzen (belaunaldi desbardinetaoak izanda be). Edo “Txilibrin”, “Jitano”gaz. Beste batzuek alkar ezagutu be ez eben egiten, edo alkarren entzutea euki bez.

Hartuemonak ez dira beti errezak izan. Mundu zabalean, musikarien artean tira-birak egon izan dira. Eta dirua tartean baegoan, orduan are eta gehiago. Albokariaren artean be, zergaitik ez. Beharbada, batzuk, edo batzuk lantzean behin, ez egozan prest besteei erakusteko, edo hareen aurrean joteko. Baina, badakigu Upomendin albokari asko batzen zerala.

Hogeigarren mende amaierako azken laurdenean, Leon Bilbao eta “Txilibrin” geratu izan ziran albokari nagusi eta klasiko lez, hau da, disko gehien grabatu ebezanak ziralako -eta ia bakarrak- eta jendeaurrean joaldi gehien egin ebezanak ziralako. Bai plazan eta erromerian, bai eta erakusketa moduan edo bere esparru naturaletik at. Esan daiteke eten barik ibilitako albokariak ditugula. Alboka joteaz gainera, albokagile be agertu izan ziran makina bat tokitan, euren albokak erakusten eta saltzen.

“Txilibrin”ek kartzela urteak kenduta ez eban ezelango etenik euki (antza, gartzelan be lortu egin eban alboka eukitea), ez jotzen ez egiten. Leonek, aita bizi jakola, fitak baino ez ebazan egiten. Alboka jo, gerra aurrean jotzen eban, eta ostean bardin, baina plazetako eta jende aurreko jardun etenbakoa 1964. urte-tik aurreragokoa izan eban.

Salbuespenak egon dira. Jose Mari Bilbaok, “Pontxo” Oruek, Jose Amundarainek edo Benito Iragorrik be ez eben etenik eukiko euren etxeetan jotzen dago-kionari, baina asko gitxiago ibili izan ziran jende aurrean -sasoi txarragoak toka-tu izan jakezelako, seguruago, edo ez ebelako nahi izaten-. “Jitano” asko ibili izan zan, baina beste biak baino gitxiago -beharbada, asko lehenago hil zalako-. Albokagintzan, Otxandiok eta Etxebarriak etena euki eben. Euren beharretik erre-tiroa hartutakoan, atzera hasi ziran albokak egiten, urte luzeen ondoren.

Antza hiru gauzetan euki eben Leonek eta "Txilibrin"ek: albokari familietan jaiok izan zirala; bihar etzirako eurak biak geratu dirala albokari nagusi lez, euren disko eta grabaketei esker –inoiz, beste grabaketa batzuek kontrakoa erakutsiko ez balebe–, eta alboka jendeaurrean gehien jo egin ebenak izan diralako; eta albokagile lez be, eurak biak izan dira orduko denboretan askogaz gehien saldu ebenak, eta han hemenka dagozan albokak, gehien bat, eurenak dira.

Aldea be baeuken. Lehenengo eta bat, "Txilibrin" folkloreaken pertsonaia garrantzitsua izan da: dantzari onenetakoa, panderojotzaile onenetarikoa, koplakantari ona, albokari onenetakoa eta albokagile onenetakoa. Leon Bilbao albokari lotua egon da. Albokari onenetakoa eta albokagile onenetakoa izan da, panderoa, normal jotzen ebala. "Onenetakoa" esaten dan lekuetan, baten baino gehiagotan "onena" esan leiteke.

Baina, Leonek gaitasun berezia eukan: besteek jotzen ebena bardin bardin joteko errezetasuna (horra hor "Pontxo"ren berbak "*zure aurrean ezin lei yo, dana ikasten dozu eta*"). Nekez egon dira hori egiteko gai ziran beste asko. Horretaz aparte, beste albokariei zatiak eta/edo ornamentuak hartu egiten eutsezan eta berak asmatutakoekin, aldaera barriak sortu. Hau da, hiru piezok ("jota-porrue-martxea") bersortu egin ebazan, hiruetatik bakotxaren zenbait aldaera ebala. Ezagutu izan doguzan albokari tradizionaletan goia jo egin ebala dirudi. Bere ondoren, albokari barriak datoz, doinu barriekin.

Gazte hasibarriek erakusteko jarreran, Leon oso eskuzabala izan zala dirudi, erakusteko gogo handia ebalako. Behin itaundu egin eutsen gazteak onak ala txarrak izango ete ziran, eta berak erantzun eban 'hobeagoak' izango dirala.

Batzuk Leon, eta beste batzuek "Txilibrin" jotzen eben onena lez. Esan beharoko litzateke, biak albokari eta albokagile oso oso onak izan dirala.

Konpetentzia horrek euren artean be, hartuemon gatx batera eroan egin ebazan. Ulertzekoa da, ze ataritzen eben diruaz aparte –bai jotzen eta bai albokagile lez–, eurak biak geratu dira albokari klasiko nagusitzat jo geinkezanak lez, bihar etzirako.

Dana dala, interesgarria izango litzateke norbaitek konparaketa musikala egitea albokari haundi bion estiloaz eta joteko moduz. Ikerketa oso polita eta garrantzitsua, hurrengo baterako, norbaitek egin dagian.

## 9.2. Senidetasuna

Beste ezaugarri edo gauza berezi batzuk be aitatu daitezke. Bat, senideen arteko berezkotasuna albokarekiko. Horrela, hasteko, esan leiteke Inazio Uribarriren lobeek (Tiburtziok eta "Txilibrin"ek, Benitok, Bernardok eta Josek) ikasi egin ebela alboka jotzen osabarengandik. "Txilibrin" ez egoan seguru bere osabak norengandik ikasi eban, baina Dimako Alejo Etxezarragagaz egin eitekeala inostan. Jose Mari Bilbaoren semeak –Leonek– be jotzen eban alboka.

Gainera, "Pontxo"ren aita be albokeroa zan. "Pontxo" Orue eta Eujenio Etxebarria lehengusu bigarrenak ziran. "Jitano" Aiestaren aitita be albokaria zan. Juan Otxandioren osaba dultzaineroa zan. Amundarainen aita be, albokaria ete zanaren ustea dago. Aparte, esan behar Leonen emaztea eta Eujenio, lehengusu-lehengusinak zirala. Iragarritarretan be egin dira musikariak.

Arrazoi sinplea izan daiteke motiboa: musikarien etxeetan odolean dakarrelako erreztasuna eta zaletasuna ondorengoek. Edo entzun eta entzunaren eragin naturala. Horrez gainera, Arratia, Zaratamo, Zeberioek eta abarrek, lagun giti eukela biztanle orduko sasoietan eta transmisinoa errezagoa izango zan. Transmisinorako, jendea, guk uste dogunaren aldean, asko mogitzen zan batera eta bestera, eta ikasteko nahiko erreztasun izango eben.

### 9.3. Lanbidea

Lanbidez, gehienak baserritarrak ziran. Batzuek lantegira edo tailerrera jo egin eben, "Jitano"k lez. Batzuek suertatu ziran enpresa bardinetan. Enpresei dagokienez, "Euskalduna" untziolan "Txilibrin"ek eta Andoni Goikoetxeak egin eben behar sasoi bardinean. Baina, urte batzuk lehenago, Sagarna be ibili izan zan untziola horretan. Juan Otxandio eta Juan Lekue, biak txoferrak izanik, Transportes Urrutia-n suertatu ziran lanean sasoi bardinean.

Aitatu izan dira behar industrialak eta zerbitzuzkoak, baserrikoagaz batera edo baserria laga eta gero. Sagarnak "pastoreak" zirala danak dinosku, bera eta Goikoetxea hasi ziran arte. Euren maisua zan Amundarain, artzaina zan. Herrietara alboka joten joaten ziranean, albokari zaharrak inguratu egiten ei jakezan Sagarna eta Goikoetxeari, eurak be albokariak zirala esatera eta sarritan alboka erakustera.

Berak Sagarnak albokari zaharrak "*danak pastoreak*" zirala esan eustan. Baina, argi dago albokari buruzko lan honetan agertzen diranetan bakar batzuk baino ez zirala artzainak izan. Honeetan, gehienek, etxeko behiak edo ahuntzak zaintzen ebezala eta gero, lo egitera baserrietxera joaten ziran. Baina, egon izan dira artzain batzuek Gorbeian hilabete bi egiten ebezanak udan. Izan eitekezan albokariak tartean. Juan Otxandiok kontaktzen eban bera 8 urtegaz ardi eta ahuntzen zain ibiltzen zala, atzera aurrera, eta alboka jotzen orduan hasi zala. Baina, berak Otxandiok badino, Gorbeia artzainak sartzen zirala, eta euren artean, albokariak. Otxandioren arabera, basoan eta mendian albokari asko ebilen.

Sagarnak eta Goikoetxeak, beharbada, Zeanuri ezagutzen eben batez be. Zeanurin, eurak ez ziran baserritarrak, baina Amundarain artzain lanetan ebilen baserritarra zan eta Otxandiok aitatzen dituan "*Zeanuriko 'Gazte' eta beste batzuk*", edo "Txilibrin"ek dinozan "*Zeanurin albokari asko*" beharbada, baziran mendian eta basoerromerietan ibiltzen ziran albokariak, baina kalean jendeak -eta kasu honetan, Sagarnak- sarri ikusten ez ebazanak.

Sagarnak albokari danak artzaintzat jotzen zituan. Otxandioren berbak entzunik, albokarietan artzainak baegozala, eta nahiko; beste asko, barriz, baserrita-

rrak ziran. Leon Bilbaok, artzainekin barbarik egin be ez ebela egiten inoan, baina horrek ez dau esan nahi artzain danak ezagutzen ebazanik edo inoiz ikusita zituanik, ezta eurretan albokariak ez egoanik be. Dana dala, sortzez, alboka artzain inguruko soinutresna dala dirudi, esparrua ikusita (Aizkorri, Aralar, Gorbeia, Pagoeta eta Urbasa) eta jakintsuen eritxia (Azkue, Baines, Barrenetxea, García Matos, Larrea...) irakurrita. Gero, baserritarrengana zabaldu zan.

#### 9.4. Ikastea

Alboka joten ikastea, lehen, aurreko albokari batengandik egiten zan gauza zan. Akaso, berez eta laguntza barik, ikasi izana egon leiteke bat edo bat, Benito Iragorriren moduan. Baina, gauza gehienetan lez, lehendik jotekian baten-gandik ikasi egingo eben albokari gehienek.

Dakidanez, Jose Mari Bilbaok honeexei erakutsi egin eutsen: Eujenio Etxebarria, Leon Artabe, Leon Bilbaori. Migel Larrinaga "Txuskoa"k, Jose Mari Bilbao, Alejo Gurtubai eta beste batzuei. Amundarainek Sagarna eta Goikoetxeari. Alejo Gurtubai "Barberue"k, Juan Otxandio eta "Jitano" Aiestari (nahiz eta honek aiti-tagaz be zeozer ikasi). Alejo Etxezarragak, Juan Lekueri. Inazio Uribarrik bere lobak ziran Bernardo, Benito, Tiburtzio, Jose eta Silbestreari. Baina, berari "Andaluze"ri, "Txisperue"k edo beharbada, Alejo Etxezarragak.

Honeek irakasleek be ikasiko eben bat edo batengandik, baina ez dakigu norengandik. Katea osatu leiteke egunen baten, denboran atzera joanda, beharbada.

Albokariak, musikariak izan diran neurrian, beste soinutresnak joteko joera be euki dabe kasu batzuetan. Ezer jo izan badabe, panderoa izan da. Panderojotzaileak izan diran albokarietako batzuk: Tiburtzio, Jose eta "Txilibrin" anaiak, Leon Bilbao, "Jitano" Aiesta.

"Txilibrin" izan da panderoa jotekian oso trebea. Gitxi lakoa. Beste albokariei buruz galdetuta, panderoa jotekian ete ekien, hau esan eban: "*Ez. Inok ez. Txikirri txikirri. Holan danak. Panderoak geuza asko dekoz ondo yoteko. Premioatan. Panderoa orain neuk be eztot yoten le(he)ngo moduen. Le(he)n, hainkak altzaute*". Honek, bere osaba zan Inazio "Andaluze"k, adibidez, ez ebela jotekian esan eban. "Txilibrin"ek atabala eta danborra be jotekian zituan. Bere hitzetan, albokari gehienek alboka baino ez eben jotekian. Bere anaia Tiburtziok panderoa oso ondo jotekian ei eban, Silbestrearen berbatan. Eujenio Etxebarriaren eletan, albokarietan "Txilibrin" izan da panderojotzaile bakarra. Ondorio lez, pentsatu leiteke albokariaren artean egon dirala panderojotzaileak, baina gitxi.

Beste soinutresnarik jotekian baeben jakin guran, panderoaz landa, dultzaina ei zan albokari batzuek jotekian ei ebena. Benito Iragorri oso ondo jotekian ei eban dultzaina, egurrezko dultzainak eta baita albokak be egiteaz landa. "Txilibrin"ek berak be apur bat jotekian eban. Eujenio Etxebarriak be nahi izan eban ikasi, baina ez ei eukan nork erakutsi nahiz eta bere herrian bat edo bat egon.



Soinutresnez gain, gehienak dantzariak izan dira, orduko gizartean ia pertso-na guztiekin gertatzen zan lez. Batzuk on onak –Elezkanotarren kasua–, eta beste ia albokari danak jakin izan dabe dantzan. Eujenio Etxebarria izan daiteke salbuespenetariko bat.

## 9.5. Alboka bi batera

Alboka bi, edo gehiago, batera inoiz jo izan dira, nahiz eta afinazino prolemak egon. Juan Otxandiok inoskun Galdakaoko Alejo Gurtubai “Barberue”k eta Igo-reko Tiburtzio Elezkanok oso ondo jotzen ebela:

“Hak –Tiburtziok– eta Alejok –Gurtubaik– biek batera, haren alboka soini-ri aparte entzun be(ha)r izaten zan, aparte eh! Haren irrintzia, ata(ra)ten eben musiketa, soinua, hain fiñe, ha fiñe, ha fintasune, urrin entzuten zan gero!

Ze(r)a eitten zan, udan bero e(g)in baina hotzikara sartu, hango albokak entzunde biek batera, Alejo ta Tiburtzio, batera, batera, biek batera, papapa-pa baten, baina zelan yo!

(Tiburtziok eta Alejok) Baina alboka yo! Hareen albokak entzuten ziren bai-na urrintetik eh! Niri neuri, aragia, narrue, olloen pikoak lez paraten, hareek entzuten. Ea! Irrintzie!”

Leon Bilbaok sekula ez ebazala entzun albokari bi batera jotzen erromerietan, esan eban. Baina, goiko biak landa, beste batzuek be jo ei dabe alkarregaz eta batera. Adibidez, Sagarnak eta Goikoetxeak –inoiz eurak biak eta Amundarainek be bai–; “Jitano”k eta “Txilibrin”ek; “Txisperue”k eta Inazio “Andaluze”k be, antza. Barrenetxeak (1976) Igorreko Anbros Gorostiagak albokak beste bategaz batera joteko prestatzen zituala dino.

Argazki zahar batzuetan albokari taldeak agertzen dira, baina Ibon Koteronek dino ez dakigula batera jotzen baeben. Afinazino prolemak ezagututa, gatx ikusten dau.

Bilboko 1997ko karnabaletan, Txilibrinek 5 albokari batera jotzen ikusi zituan, eta egin eban komentarioa hau izan zan: “*Sekula ezto horrenbeste albokari batera yotzen ikusi*”.

## 9.6. Alkarren barri

Alkarren barri albokariek ete euken, gauza kontraesankorra da. Hau da, batzuek, beste asko ezagutu dabez. Besteek, ez.

Juan Otxandiok dinosku basoan “*batzuek batera, eta beste batzuek bestera ibiltzen ziran. Ez zan oraingo modure*”. Esan nahi eban, ia egun guztia –eta guztiak– beharrean egiten ebezala. Eujenio Etxebarriak alkarren barri baebela dino, nahiz eta danak ez ezagutu, baina asko bai.

Normala danez, batzuek aukera haundiagoa, edo zorte haundiagoa, euki eben. Beste batzuek gitxiago. Zenbat eta afizino gehiago, eta gehiago saiatuko ziran besteak ezagutzen eta ikusten, lanak aukera emoten baeutsen. Zenbat eta hobeagoak, eta ermitetara eta plazetara albokari lez joateko posibilitate haundiagoa.

## 9.7. Tamainua eta eroatea

Alboken tamainuaz, lehenago albokak txikiagoak izaten zirala esan izan deuste albokari zahar batzuek. Juan Otxandio albokariaren hitzetan, Zeberioko "Txisperue" eta Bediako Manu Barandika izan ziran alboka haundiagoak egiten hasi ziranak. "Txilibrin"ek, haundiak egiten bera hasi zala esan eustan. Baina ezin da txikiagoak zirala esan, orokorrean, nahiz eta kasu batzuetan horrela izan.

Albokariak aldean, kolkoan edo alkondara barrutik eroaten ei ebezan albokak. Honek, afinazino kontuagaz ze ikusirik euki leike. Berez, errez desafinatze-ko soinutresna da hotzberoaran arabera, baina gorputzaren berotasunagaz gaxagoa da alboka desafinatzea, ze gorputzaren tenperaturagaz albokak haren antzeko hotzberoari eusten deutso bere ondoan egoneran.

Albokari batzuek alboka bi eroaten ebezan ia beti. Gaur egun be horrela da, ze afinazinoa oraindik ez dago segurtatua, nahiz eta asko aurreratu.

"Txilibrin"ek eta Eujenio Etxebarriak azkenengo urteotan poltsa baten alboka bi eroiezan jaialdietara joiazanean. Poltsak, sorbaldatik esegitekoak ziran, baina baita eskuan edo jakaren patrikan eroateko txikiagoak be. "Txilibrin"ek esan eustan Ameriketara egin ebazan osteretan –saltzeko eroaten eban alboka piloa aparte– joteko, alboka bi eroaten ebazala.

## 10. ZUBI EUSLEA ETA ALBOKARI BARRIAK

### 10.1. Zubia

Tradizionalak batetik, eta gaur ezagutzen diranak bestetik, erdian, bien artean, zubi modura, **Mariano Barrenetxea** (1938) galdakaotarra aitatu behar da. Ikertzaile lan oso inportantea egin dau, eta gainera alboka jo dau hainbat lekutan. Bai erromerietan, bai exhibizino modura. Albokagilea be bada.

Mariano musikaz jantzita dago, solfeoa daki eta tanbolinteroa da, oboea joteaz gain. Horri esker egin eban hain lan inportantea. Albokari tradizional batek, ezin izango eban hori egin. Folklorezale huts batek be ezin izango eban. Barrenetxeak beharrezko baldintzak daukoz ikerketa beharrak egiteko.

Berrogei urtetik gora emon ditu albokaren alde lanean. Bazter guztiak arakatu ditu datu bila, gerra osteko albokari zahar gehienak ezagutu ditu, eurei buruzko doinu, datu eta argazki ugari jaso ditu, eta inoiz, albokak be bai. Beragaz zorretan dagoz ondorengo albokariak, albokazaleak, musikazaleak eta folklorenzaleak. Hona hemen bere gainean Juan Otxandiok esan ebana: "*Mariano ibilli da*

*baztarrotan bille, iñon dan arratoiak baiño... topetan holako izenak edo albokan indarra edo dekienak... beno, danak ibilli ditu, komediek”.*

Berak daki hogeigarren mendean ze albokari egon dan, ze mailakoak ziran, euren bizitzako gorabeherak, norengandik ikasi egin eben eta nori erakutsi, nor-tzuk batzen ziran, non eta zertarako, zelan joten eben, eta gainera, batzuk grabatuta ditu.

## **10.2. Barriak, eskolak, albokagileak**

Barrien artean, **Juan Mari Beltran** (1947) nafar-gipuzkoarra aitatu behar da lehenengo: ikerle arloa, irakaskuntza, eta albokaria izatea lotu ditu. Horren gainera, doinuak be sortu ditu albokarako. Ikerle-artisau modura, alboka asko iker-tu dau. Berrogei soinutresna inguru joten ditu (haizezko ia danak: klarinetea, flautak -txistua be flauta da, hiru zulokoa-, saxofoia, xirularrua, dultzaina... eta beste asko: txalaparta...). Aita Donostiaren lanak batzen lagundu egin eban Aita Jorge Riezu. Euskal musikaren ezagutza sakona dau, eta munduko herri musiketaz -orokorrean- jantzia dago, baina musika organologia (soinutresnak) da bere arlo nagusia [bertokoak, batez be, baina mundu zabalekoak be bai].

“Alboka sol3-sol4” izenekoa asmatu izanari ikerketaren goia deitu behar jako. Oktabak emoten dituan alboka da, eskala diatonikoa osatuz. Hainbait doinu joteko aukera zabalagoa emoten dau. Bihar etzirako asmakizun garrantzitsuenetakoa.

Gainera, Gipuzkoako albokaren gorabehera eta informazio guzti guztiak jaso ditu. Gorrotxategitarrekin -lurralde horretako azkenak- hartuemon estuak izan dauz. Bizkaiko azkenengo laubostekin be hartuemon sakonak euki ditu eta ondo dakiz euren berezitasunak eta musika klasea.

Albokak egiten eta joten 1965ean hasi zan. Alboka hainbat tokietan, folk taldeetan, “Argia” dantza taldean eta bakarka, jo dau. Doinu barriak sortu ditu eta zaharrak egokitu.

Gipuzkoan izan diran albokari barri gehienak bere eskolatik urtendakoak dira.

1960-79 urteetan ikasi ebenen artean (nahiz eta gaur egun lagata euki gehienek) honeexek aitatu daikeguz, bat edo bat ahaztuko bajat be: Kepa Pérez Urraza, (Leon Bilbaogaz ikasitakoa), Alberto Zabala (Kepa P. Urrazaren ikaslea), Jon Benigno Egiguren (“Jitano” Aiestagaz ikasitakoa), Nestor Goikoetxea, Jon Alfonso García Arizmendi (“Beti Ernai” dantza taldean batetik, eta bestetik panderojotzaile baten laguntasunagaz erakusketa gisan jotzen eban), Jose Inazio Gumuzio, Joseba Larrieta... Bizkaian.

Arabian, Jose Mari López de Elorriaga, ezizenez “Coppi” lez ezagunagoa dana. Albokaria izatez aparte, albokagilea be bada. Soinutresna gehiago egin eta jotzen ditu. Arabian, denbora luzean, bakarrik egon da alboka munduan.

Gipuzkoan, L. M. Bandrés, “Ez Dok Amairu” taldeko albokaria zan. “Arratia” kantari alboka jotzen dauana da, koplaria Xabier Lete dala, 1970. urtean “Herri-

koi Musika Sorta 1” izeneko diskoan agertzen dana. Beste batzuk, Juan Jose Iturrioz eta Iñaki Montes Astigarraga izan dira.

Eskolak edo Akademiak garrantzitsuak izan dira albokariak prestatzeko. Bilboko “Academia Municipal de Alboka y Panderó” 1967/8an jarri zan martxan, burokraziaren zenbait oztopo gainditu eta gero. Irakasle nor izango eta, gora behera batzuk izan ziran. Azkenean, Jon Alfonso García Arizmendi izan da urteetan hango irakasle. Bilboko Zazpi Kaleetako Santa Maria kaleko Muxika eskolatan emon izan dira eskolak.

1980-1989 urteetan gazte aldra garrantzitsua hasten da: Joserra Fernández, Jabi Santamaria, Aitor Coterón, Kepa Junkera, Alberto Santamaria “Katarro”, Aitor Gorostiza, Sabin Bikandi... 1982an Zeanuriko albokari gazteen lehiaketa egin zan. Hiru albokari aurkeztu egin eben euren burua. Hamarkada horren azkenengo urteetan eta 90ekoaren hasieran belaunaldi barri bat sortu zan. Esan behar da Joserra Fernández, Oskorrin ibili izan zan albokaria –soinutresna gehiagoren jolea izatez gainera– oso albokari ona izan dala. Gitxi etorri dira bere modukoak.

Albokari danen artean, aitagarriena **Ibon Koterón** (1967) bilbotarra da. Hau, 1987an hasi zan alboka jotzen. Dultzaina be oso ondo jotzen dau. Xirula / txistua eta zeharkako flauta be nahiko ondo eta beste soinu tresna batzuk be ezagutzen ditu. Esan behar da, albokari iraultza ekarri izan deutsan albokaria izan dala. Albokari sekula pentsatzen ez ziran posibilitateak ekarri, edo hobeto esanda, atara egin deutsoz. Pieza barri erakargarriak sortu ditu batetik, eta bestetik balada eta kantu tradizionalak –albokaz jo bakoak ziranak, mende honetan behintzat, dakigunez– jo izan ditu.

Gainera, alboka kanpoko taldeetara eroan dau. Bera da albokaren marka, edo albokajole garrantzitsuena, bere burua albokagaz identifikatzen dauana, eta besteek, albokagaz bera identifikatzen dabena. Irakasle arloan, eskola sortu dau. Hainbat eta hainbat albokari onak urten dabe bere eskolatik. Honeetako batzuek, euren piezak sortu dabez eta baita, eskolak emon be.

Albokaren aukerak modu liluragarrian biderkatu ditu, teknika aldetik eta doinu sorkuntza sentsibilidade aldetik. Sortu dituen doinu erakargarriak aparte, doinu tradizionalei konponketa ikaragarri onak egin deutsoz. Nekez irudikatu daikegu Koterón lakorik iraganean, eta urte asko pasatu beharko dira bere antzeko beste bat agertzeko, nahiz eta bere ikasleetan, albokari oso onak agertu diran. Tonalidade barriko zenbait alboka erabilkeran, aldakuntza nabaria dakar soinutresna honen aukerei eta soinuari.

1990 urtetik aurrera, Ibon Koterónen eskola (azken urteotan –1992-2002– “Infernuko Auspoa” izena hartu dauana, eta gero, “Lur Soinuak”) izan da albokari aldra atara dauana. Alboka eskola nagusia izan da. Hortik urten dabe, beste asko eta askoren artean, honeexek: Julen Begoña, Fede de Dios, Alberto Marcos, Alberto García, Pedro Ezkurra, Iker Díez... Asier Elorriaga, Asier Balentzia... Anton Calleja, Iker González... Xabi Etxeita, Andoni Vecchio, Igor Goikoetxea “Ondarru”... Dabi Arbaiza, Ibon Askargorta, Xabier Bilbao, Ageda Kamiruaga... Bizkaian. Eta Araban, Xabier Valle Álava...

Han hemen klaseak emonez (Bizkaiko leku askotan ibili da irakasten Koteron, eta baita Amurrioren be) eskola sortu dau, bere zenbait ikasle goi mailako albokari dirala.

Sortzeko ahalmena dala eta, esan behar da Koteron salbu, Fede de Dios galdakoa dala zenbait doinu barri sortu dituana. Erakargarriak eta barrizailleak dira berak sortutakoak. Koteronegaz batera, alboka beste maila batera daroie. Toki askotan ibili da alboka jotzen. Alboka irakasle profesionala be bada Fede, ikasle asko izan ditu eta gaur egun ikasle gehien dituen irakaslea da. Eskolak emon ditu Durangon, Zeanurin, Galdakaon, Santurtzin, Bilbon, Ondarrun...

Julen Begoña aitatu egin behar da jotera dauan estilo berezkoagaz, albokari tradizionalengandik hain gertu dagoana, harritzekoa bada be. Doinu zaharrak albokarako be egokitu ditu, eta barriren bat be sortu. Bakarrik hasi zan, eta gero Koteronen inguruan ibili izan da. Julen Begoña, Sopelan –bere herrian–, Barakaldon eta beste toki batzuetan ibili da irakasten. Leku askotan jo dau alboka.

Alberto Marcos be nabarmendu egin da jotzen eta irakasten. Irakaslea da Gallartan, Barakaldon, Getxon... Iker Diezek, Igorren emoten ditu eskolak...

Beste eskolak be egon dira Bizkaian, aitatutakoak landa. Mariano Barreneiteak Galdakaon Andra Mari taldean euki ebana, adibidez. “Txilibrin”en etxetik bat baino gehiago pasatu dira, Joseba Uria, esaterako, beste batzuen artean. Leon Bilbaoren baserrira be asko joan dira ikasi nahirik. Eskolak, beste herri batzuetan be hasi dira emoten, oraintsu: Plentzian, Gernikan...

Ezin aitatu barik laga Juan Mari Beltranek Hernanin alboka erakusten dauala hango Udala Eskolan orain urte mordera (1984-5. urteko ikasturtetik aurrera), ikasle asko handik ibili dirala. Bere ikasleetan, batzuek aitatzeko, Jabi Morcillo, Elena Bezanilla Albusua, Gabriel López Muñoz, Oskar Angulo, Aitor Larrañaga, Josetxo Txapartegi, Garikoitz Izagirre, Aritz Ezeiza, Ainhoa Eizagirre, Ardaitz Garzia... Gipuzkoako beste alboka eskolak honeexek dira: Usurbil (Oskar Angulo, irakaslea) eta Trintxerpe (Aitor Larrañaga, irakaslea). Lehen, Erreterian be egon zan alboka eskola eta irakasleak Elena Bezanilla, eta gero, Oskar Angulo izan ziran.

Gasteizko Udaleko Folklore Eskolan Karlos Subijanak emoten ditu eskolak. Albokari nahikok urten dabe handik be. Nafarroan gitxi dagoz. Gehiago izango dira, ze 2002an hasi da eskola bat Iruñean. Lapurdin, banaka batzuk badira. Kanpoan, Elena Bezanilla bilbotarra bizi da Sevillan.

Albokagileetan –albokari gisa– Mundi, Osses eta Imanol Atxa aitatu behar dira.

Gaur egun sekula baino albokari gehiago, eta euren artean, albokari aldra oso ona dago, oso ondo jotzen dauana. Aitatzekoa da albokariak gazteak dirala, ia danak 40 urtetik beherakoak diranak.

**Albokagile** modura, urte gitxi arte, tradizionalak izan doguz. Hau da, Leon Bilbao, “Txilibrin”, Eujenio Etxebarria, Juan Otxandio, Juan Lekue... Barriak etorri

dira honeen ostean. Asko dira alboka bat edo alboka batzuk egin dabezanak. Gehien jardun diranak, edo ezagunen ditugunak, honeexek: “Coppi”, Mariano Barrenetxea, Juan Mari Beltran, Jose Antonio Martínez Osses, Joseba Gastiain, Imanol Atxa, Karmelo Kanpo, Raimundo “Mundi” Flores, Aitor Coterón, Erlantz Gil Zarandona, Koldo Telleria...

## **11. ALBOKARIEN BATZARRAK, LEHIAKETAK, TXAPELKETAK, OMENALDIAK, EGUNAK**

Albokari tradizional batzuek kontatu deustenez, eta Mariano Barrenetxeak, albokari eta alboka ikerle danak, idatzi dauanez, albokari tradizional askok Upo mendian batzeko ohitura euken, gixxienez XX. mende hasieratik mende horren erdirarte. Batzar garrantzitsutzat jo daiegun, ze albokaren munduko gauza nagusiak albokari printzipalen eta gehienen edo askoren eskutik tratatzen ziran.

Helburua, alboka jo eta ondo pasatzea zan. Bide batez, alkarri informazioa emon. Hau da, doinuak eta aldaerak alkarri ezagutzera emotea, baita soinutres-nagaz beragaz egin edo asmatu eitekezan aldakuntzak.

Tokia –Upo mendia– albokariaren esparru geografiko nagusiarenaren (Arratia, Galdakao, Zaratamo, Zeberio) erdi puntua edo dalako.

Ohikotzat jo daitekezan batzar honeetatik at, ondoren, lehiaketa edo txapelketa batzuen barri agertuko da, XIX. mendeko bigaz hasita, eta jarraian XX. mendekoak. Hemen, albokari “egunak” eta era guztietako batzarrak sartu dira.

1. **1886**an Albokari lehiaketa egin eben **Durangon**, “Fiestas Euskaras”en barruan. Garagarriaren 26an egin zan eta irabazlea Manuel San Sebastian izan zan.

Honela iragarrita egoan: “*Concurso de Alboqueros en el que cada opositor ejecutará dos piezas de libre elección en aires vascongados, siendo el premio un albugue con incrustaciones de oro y plata*”.

2. **1897**an Albokari lehiaketa, Lore Jokoen barruan, egin zan **Areatzan**. Jokok irailaren 11, 12 eta 13an izan ziran, D’Abbadie’ren alargunaren babesean (urte bereko martiaren 18an hil zan Antoine).

Irailaren 11an dultzainero eta albokariaren lehiaketak jokatu egin ebezan. Bost albokarik aurkeztu egin eben euren burua. Saria 15 pezetakoa zan. Jose Iturbek eskuratu egin eban eta besteei bostna pezeta emon eutseezan. Jo egin eban piezetako bat da gaur egun “alboka soinua” lez ezagutzen dana. Aurreko ekitaldiaren eta honen barri Kepa Pérez Urrazak emon eustazan.

3. **1935**ean **Lemoan** egin zan txapelketa.

4. **1943**an **Galdakaon** lehiaketa egin eben. Jo egin ebenak: Inazio Uribarri “Andaluze”, Antonio “Jitano” Aiesta, Tiburtzio Elezkano, Silbestre Elezkano “Txili-

brin”, beste batzuen artean. Lehenengoa, bigarrena eta martxa jo egin behar izan ebezan, pandero barik. Irabazlea, “Txilibrin” suertatu zan.

5. **1953an Zeberion** txapelketa jokatu egin eben. Parte hartu egin ebenak “Jitano” Aiesta, Benito Elezkano, Silbestre Elezkano “Txilibrin”, Tiburtzio Elezkano, Ildefonso “Pontxo” Orue eta Inazio Uribarri “Andaluze” izan ziran. Txapelketa honen eta aurrekoaren barri Iñaki Elezkanok emon eustazan.

6. Urtea ez dakidala, beste lehiaketa bat egin eben **Galdakaon**. Parte hartu ebenak: “Jitano”k, “Txilibrin”ek eta hirugarrena ei zana, Jose Amundarainek. Hau, ostera, ez zan lehiaketa zalea. Hirurak parra egin behar izan eben.

7. **1964an Galdakaon** postura egin eben “Jitano” Aiestak eta “Txilibrin”ek. “Jitano”k irabazi egin eban. “Txistulari” aldizkarian dator.

8. **1967an**, bagilaren 18an, **Galdakaon** Mariano Barrenetxeak eratu egin eban albokariaren batzar bat. Bertan Albokariaren, Panderojotzaileen eta Koblariaren Alkartea sortu zan. Lehendakaria Jose Maria Bilbao izentatu egin eben, eta Aita Jorge Riezu kapellau. Agertu ziran albokari askoren artean, Marianoz gain: Bilbao aitasemeak –eta Jose Leon mutikoa, Leonen semea–, Jose eta Silbestre Elezkano, Benito Irarri, Pontxo Orue... Panderojotzaileak eta soinulariak be agertu ziran.

9. **1968an**, abuztuaren 18an, **Galdakaon** ostera be egin zan, aurreko urtean lez, albokariaren batzarra. Hemen, dultzainero bi be egon ziran. Batzar bi honeen barri, Barrenetxeak emoten dau.

10. **1974ko** apirilaren 28an, **Euban** “*Euskal Herriko I. Albokari Txapelketa*” (orduko izena) egin zan Leon Bilbao eta Maurizia Aldaiturriaga, “Txilibrin” eta Balbino Ojanguren, eta Kepa Pérez Urza eta Erromualda Zuloagaren artean. Kepa Pérez Urza bigarren gelditu zan... lehenengo biak parra egin eben eta. Epai mahaian, beste batzuen artean, Nestor Goikoetxea eta Mariano Barrenetxea egon ziran. Nestor Goikoetxeak emon eustan lehiaketa hau kasettean grabatuta, [www.alboka.net](http://www.alboka.net) dalakoan entzun daitekeena.

11. **1975eko** maiatzaren 4an, **Zeberion** Albokari Eguna edo “*Euskal Erriko Albokariaren Laugarren Agerpena*” (kartelaren izena) egin zan. Jo ebenak, honek: Leon Bilbao eta Maurizia Aldaiturriaga; “Txilibrin” eta Gillermo Etxebarria; Kepa Urza eta Juanita Gorroño; Alberto Zabala eta Eduardo Egiarte; eta Jon Beni Egiaturenek, bakarrik. Eujenio Etxebarria kartelean iragarrita egoan, baina ez eban jo. Kepa P. Urrazak emon eustan honen barri.

12. **1982ko** garagarrilaren 4an, **Zeanurin** Undurraga auzoan Albokari Gazteen Txapelketa egin eben. Arauak:

- “1- Hogeitamar urtetik beherakoak izan behar dabe.
- 2- Panderojotzailea eroan behar da.
- 3- Biribilketa, jota eta porrusaldea jo behar dabe.
- 4- Panderojotzaile [“pandereteru”] batek albokari gehiagogaz jo ahal izango dau”.

Epaimahaian, beste batzuen artean, Leon Bilbao egon zan. Hiru albokarik aurkeztu egin eben euren burua. Irabazlea, Jabi Santamaria suertatu zan. Bero- nek esan eustan partaideak hiru izan zirala.

13. **1989**an, apirilaren 30ean, **Zeberion** “*Bigarren Albokarien Agerpena Zeberion*” izeneko ekitaldia egin eben eta bertaratu ziranak Leon Bilbao, Felisa Arribalzaga eta Eduardo Egiarte; “Txilibrin” eta Arantza Olabarrieta; Alberto Santamaria eta Jon Gaminde; Jabi Santamaria eta Sabin Bikandi; Joserra Fernández eta Motriko; Ibon Koteron eta Andoni Aldekoetxea. Ibon Koteronek emon eustan jaialdia grabatuta dauan kasettea, hau be, lehen aitaturako web orrian entzun daiteke.

14. **1994**an **Hernanin** hasi zan hiru eskolen (Bilbo, Hernani eta Gasteiz) urte- roko batzarra egiten. Hasieran, bagilaren 27an, SanJuanetako azken egunean izaten zan. Eskolan batzen ziran hiru eskoletako lagunak eta euren esperientziak alkarri ezagutzera emon. Baina **1999**an, urrian hasi zan Hernaniko kaleetan zehar albokaldia egiten. Gero, plazan aktuazino bereziak egiten dira. Urte horretan, Ibon Koteron bere taldeagaz, Alboka taldea –Alan Griffin albokariagaz– eta Xabaltx –Subijana albokariagaz–. Bazkaldu ostean, atzera kalejira. Urte horretan, “Txilibrin” eta Eujenio Etxebarriari omenaldia egin jaken. Juan Otxandio joatekoa izan zan, baina osasunagaitik ezin izan eban. **2000.** urtean, zapatu gauez, Txanbela taldeak eta Juan Mari Beltran taldeak errezitala emon egin eben, kantu guztiak albokaren presentzia eta nagusitasunagaz. Gero, domekaz, kalejira eta joaldia plazan. **2001.** urtean, larunbatz, Malapartatuen Batza. Domekaz, kalejirak eta plazako ekitaldia albokari askogaz. **2002.** urtean Ibon Koteronek bere “Lurraren Negarra” projektu barria aukeztu egin eban, “Airea” lanaren aitzindaria izango zana. **2003.** urtean, Barakaldoko Hala Dzipo egon zan jotzen. Azken urte batzuetan Emilio Sagarna izan zan joateko, baina osasunagaitik ezin izan eban. Azken urteetako kartelek Otxandio (2000), Sagarna (2001), Patxi Gorrotxategi (2002) eta Txilibrinen (2003) argazkia eroien.

Ekitaldi hau, Upomendin egiten zanaren ordezkotzat edo jarraipentzat jo daiteke.

15. **1996**ko abenduaren 2an **Artean** Leon Bilbao eta Maurizari omenaldia egin jaken. Arratikoko herri bakotxean, Euskal Herriko leku guztietatik joandako albokariak jo egin eben goizean goizetik. Eguerdian, “Goizean Parisen” antzestu zan. Gero plazan, bazkalurretik jo egin ebenak honeexek izan ziran: Eujenio Etxebarria, Juan Mari Beltran, Julen Begoña Garaizar, Oskorriko partaide batzuk Josu Salbidegagaz, eta Karlos Subijana. Arratsaldean, frontoian, hainbat musikaririk lagunduta –Hiru truku (Ruper, Bixente eta Tapia), Maixa eta Ixiar, Anton Latxa eta Natxo de Felipe, Laboa, Leturia, Amuriza, Sarasua, Junkera, Xiradela...– Ibon Koteronek jo egin eban alboka.

16. **1998**an **Bilbon** Silbestre Elezkano “Txilibrin”i egin jakon omenaldia. Egun bitan egin zan. Lehenengo egunean, Abenduaren 17an barikuz, berbaldia egon zan “*Alboka, III. Milenium-ean*”. Berba egin ebenak Juan Mari Beltran, Ibon Koteron, Jabi Santamaria, Karlos Subijana eta Sabin Bikandi izan ziran.



Honen ostean, alboka emonaldia egin eben. Albokariak: Juan Mari Beltran, Julen Begoña eta Asier Arroyuelo panderoan, Karlos Subijana eta Sabin Bikandi panderoan, Fede de Dios eta Asier Elorriaga panderoan, Asier Elorriaga albokaria eta Mikel Soto panderoan, Sabin Bikandi eta Andra Mari taldeko bikote bat dantzan, Alberto Marcos eta Alberto García alboka joten batera eta Mikel Soto panderojotzailea, Iñigo Ibarretxe albokeroa eta Igor Arsuaga gitarra jotzen, Iker González eta Anton Calleja albokariak biak batera, eta Ibon Koteron honelako taldeagaz: Ruben Isasi eta Iñaki Plaza soinu txikia jotzen, Alex Gonzálezek perkusinoa eta Leturiak panderoa. Gero, amaitzeko, danak batera jo eben martxa bat.

Domekaz, abenduaren 19an, Arriaga Antzokian jai zabalago baten, taldeak agertu ziran batez be. "Txilibrin" operatu egin behar izan ebenez egun bi lehenago, jaialdiari hasiera Mariano Barrenetxeak emon eutson albokagaz. Joseba Uriá, albokaria. Gero, Fede de Dios; Alboka taldea (Alan Griffin albokari zala), Juan Mari Beltran taldea, Eujenio Etxebarria historikoa eta Motriko, Andra Mari dantza taldea (Bikandi albokari zala), Kepa Junkera eta Ibon Koteron.

17. Araban be hasi dira albokari topaketak egiten. **2002an Otazun** egin zan, urriaren 12an. Eta **Albainan**, 2003an, baita urriaren 12an be.

## **12. ALBOKAREN AITAMENAK ETA EKITALDI BEREZI BATZUK HISTORIAN**

Albokaz jaso izan diran lehen aitamen batzuk, euskal testuetan, komunikabi-deetan, edo herri zehatzetako liburuetan idatzitakoak, baita alboka audioan jasoten danean eta irakaskuntzan sartzen danean, beste ekitaldi berezi batzuekin batera, honelako honeexek dira:

– 1443an Garibaik idatzi egin eban Mondragoen dantzarako eta katurako erabili ebezala albokak, panderoak, tanbolinegaz batera, Aita Donostiak dinoanez.

– 1673an Portugaleten albokero bati ordaindu egin eutsen ("A un albuguero que asistió a bispera y día de Nuestra Señora"), Iñaki Irigoienek (1994) jaso dauanez. Ondoren datozen zati biak be Irigoienek topatu eta idatzitakoak dira.

– 1675 eta 1682an, Portugaleten osterara be albokariei egindako ordainketak aitatzen dira ("pagos a albugueros y tamborileros que asistieron a las fiestas acostumbradas").

– 1679-1713 epe horretan Arzentalesera eroan eta ordaindu egin ebezan albokari, tanbolintero eta dultzaineroak. "Un año figura el gasto que hizo Çabala el albuguero".

– 1708an, Bilbon, Mena auzoan ez eutseen izten atzera aurrera eabilzen tanbolinteroek erromerietan jotzen. Hau da, udaletxeko funtzionario ez ziranei. Urte horretan tanbolintero "autonomo" bat bota egin eben. Bere lekua albokari bik bete egin eben. Baina, honekin be bardin gertatu zan, Carmen Rodríguezek (1999, 30. orrialdea) dinoanez ("su lugar fue ocupado por dos albuqueros, prosiguiendo en los mismos escándalos y pecados públicos").

- 1727an Etxanon, Larrea jauntxoaren soloan galazo egiten dabe dantza, tanbolina edo alboka erabiltea, Kepa Pérez Urrazak jaso dauanez.

- 1727an, Zeanurin,

“Expediente de juicio criminal instruido por la Chancillería de Valladolid en grado de apelación de la sentencia dictada por el Corregidor de Vizcaya entre la anteiglesia de Ceánuri y la villa de Villaro sobre la costumbre de los vecinos de la anteiglesia de Ceánuri de celebrar fiesta en los días de San Bartolomé y el Jubileo de la Porciuncula en el término de Zubizarra con tamboril, danza y alboque y colocando barracas de comida y bebida”.

Bizkaiko Foru Ahaldundian dagozan Zeanuriko Udal Fondoetan dago.

- 1747an Ordiziko udalak erabagi hau hartu eban:

“Aimarietan danbolina jotzez gelditu zedin, honela agindua bait zegoen probintziako aginduetan, ez zezatela soinutresnarik jo ezkontzetan, enparantzan dantzatu daitezela eta ez Aiuntamentuaren arkupetan; dantzaldi batetik besterako tarte horretan, gizonak eta emakumeak banandu zitezela toki ezberdinetara, mutil ezkongaiak ez dezatela dantza egin panuelorik gabe, eta ez zezatela jo inolako dantzaldian tapatan, alboka edo unzurrunkaketan deritzan soinua eta, bukatzean, neskak bakarrik etxeratu daitezela otoitz ordurako, mutillen laguntzarik gabe”.

Ikusi, Juan Olaetxea: “Monografía de la Villa de Villafranca de Ordizia”, Donostiako Aurrezki Kutxa, herri liburuxka sailean, 71. orrialdean.

- 1826an, alboka aitutzen da Gabonetako Bizkaiko bertso batzuetan:

“osastearen osastez  
bibolin **albokiaz**  
chilibitu eta chirolas  
neurrico osakinduaz”.

- 1828an Fernando VII eta Josefa Maria Amalia Espainiako errege-erreginak Durangora joan ziranean, albokariak jo egin eben (“los albugueros que estuvieron durante la permanencia de Sus Majestades”). Irigoienek (1994) aitamena da hau be.

- Albokaria eta panderetera agertzen diran ezkontza erakusten dau “Una boda en Vizcaya” izeneko kuadroak, XIX. mendearen azken laurdenean eginikoa. Egilea Mamerto Seguí Aretxarala da. Margolari hau, Bilbon jaio eta hil egin zan (1862.02.11-1908.06.18). Pintura hau, 1890. urtean egin zan Espainiako Erakusketa Nazionalera eroan egin eben erakustera. Basurtuko “Escuela de Artes y Oficios”ko irakaslea izan zan Seguí 1897tik aurrera.

- Lehenengo batzokiaren zabalitzean -1894.07.14an- albokariak jo egin eben. Biharamonean, domekan, kantatu egin zan eta pianoa, txistua eta albokak jo, Barrenetxeak dinoskunez (1986, 53. orrialdean).

– 1913an grabatu egin eban Dr. Rudolf Trebitsch alemanak garai hareetako zilindro baten Igorreko Anbrosio Gorostiaga. Albokaz jota, porrusalda eta martxa jo ebazan Anbrosek, eta panderoan Josepa Ealok lagundu eutsen.

– Jesus Larrea, Bilboko Etnografia Museoko arduraduna zanak, Zeanuriko Jose Iturbe albokaria nahi izan eban grabatu 1923an, Udaletxeko grabatzaile bategaz. Ez dakit grabatzerik lortu baeban.

– Donostiako Victoria Eugenia antzokian, 1928an Urbiako albokari batek jo egin eban, Monzonek eroanik. Jose Mari Olaizolak, Aizkorriko albokero bat Donostiako erromeri batera eroan eban. Barrenetxeak emoten ditu datuok (1976, 9. orrialdean).

– Bergaran Eusko Ikaskuntzak 1930ean eratutako bostgarren kongresuan, albokariak jo eben: Alejo Etxezarraga, Juan Jose Amundarain, Jose Migel eta Antonio Gorrotxategi aita semeek. Panderetera, Dimako Pantxike Larrinaga izan zan.

– Gasteizen, 1935ean, Zigoitiako –Arabako– albokari bik jo egin eben, “Francia” izeneko kalean (baserritarren batzeko lekua), Olano deitura eban jaun batek eroanik, Jose Mari López de Elorriaga, “Coppi”k esan eustanez.

– Dantza taldeetan albokariak jotzen hasten dira, “Dindirri” eta “Beti Alai”n 1945 eta 1947. urteetan, sortu eta batera. Albokariak, “Txilibrin” eta “Jitano” Aiesta izan ziran.

– Alan Lomax amerikar musika ikerleak LP osoa euskal musikagaz argitaratu eban Westminster bilduman. Grabaketa 1952ko abuztuan egin zan eta albokaz *porrusaldea* eta *martxea* jotzen dira. *Jotea* be grabatu egin eben, baina ez zan argitaratu. Albokaria, Andoni Goikoetxea izan zan, eta panderojotzailea bere arreba Arantza, “The Alan Lomax Collection”-eko Matthew Bartonek esan eustanez.

– Manuel García Matosek artikulu oso interesgarria argitaratu egin eban 1956an, “La ‘Alboka’ Vasca” izeneko. Albokaz lehen argitalpen sakontzat jo daiteke.

– “Andra Mari” dantza taldean Antonio Aiesta hasten da alboka jotzen 1960. urtean, Barrenetxeak dinoanez (2000, 23. orrialdean).

– Manuel García Matosek, “Txilibrin” grabatu eta argitaratu egin eban, “Antología del Folklore Musical de España” I eta II izeneko diskoetan, 1960ean eta 1970ean. Gero, 1980ean be argitaratu egin eban beste antologia bat, “Libro de Oro” izeneko. Jota, porrusalda eta martxa jotzen ditu “Txilibrin”ek albokaz.

– 1963an albokaren berreskurapena hasi zan soinutresna honi buruzko argitalpen soil bategaz –hamasei orriko foiletoa–, oso interesgarria dana eta lehen argitalpen hutsa izan zana albokari buruzkoa. Izena, “Andra Mari. Folklore Vasco”. Egilea, Mariano Barrenetxea izan zan. Alboka zelan egiten dan, zelan jotzen dan eta beste, ekarren.

- El Diario Vasco egunkarian, 1963garreneko garagarriaren 19an, eskaera bat egiten dau Andra Mari dantza taldeak: Bergarako Eusko Ikaskuntzaren kongresuan (1930) ataratako argazkian datozen lau albokarietatik, bizkaitar biak ezagunak izanik -Etxezarraga eta Amundarain-, ea Gipuzkoar aita semeak nor-tzuk ziran. Zumarragakoak izan eitekezan esaten zan ohar horretan, eta adina kontuan izanik, semea bizirik ete egoan nahi eben jakin. Zegamako Jose Migel Gorrotxategi -Nafarroan jaioa- eta Antonio semea ziran bi horreek, lehen esan lez. Beste seme bat be albokaria zan: Patxi Gorrotxategi (1913-1998), ezagutu dogun azken gipuzkoar albokari tradizionala.

- Bilbo-Arratia Tranbiaren azken bidaian albokariak jo egin eben, 1964. urteko zemendiaren 30ean.

- Xabier Gereñoren Cinsa etxeak, alboka diskoa atara egin eban 1964. urtean. Albokaria, Mariano Barrenetxea zan, eta panderojotzailea Erromualda Zuloaga izan zan. Bigarren edizinoa 1967an agertu zan.

- "Txistulari" izeneko aldizkarian albokaz informazinoa argitaratzen hasi eben 1965ean. "Albokari" izeneko atal berezia hasi zan "Txistulari" argitaratzen 1967an, oso modu irregularrean 1971. urterarte, 11 zenbakietan zehar.

- Berbaldiak eta alboka joaldiak egon ziran leku askotan, eta Europan zehar alboka ekitaldiak be egin ebezan. Bizkaian eta Gipuzkoan, batez be, joaldi mor-doa egin eben albokari batzuek. Lehenengo jota lehiaketa albokagaz eratu egin eben Urbi Basaurin. Leon Bilbao eta Maurizia Aldaiturriaga alkarregaz jotzen hasi ziran 1964/5. urtearen inguruan.

- Bilbon "Academia Municipal de Alboka y Pandereta" sortzen da 1967-02-23an. Lehen urratsak 1964an hasi ziran. Lehenengo ikasturte osoa 1968/9koa izan zan. Irakaslea, Jon Alfonso García Arizmendi izan zan, nahiz eta "Txilibrin" izatekoa izan, baina bere atzerriko joanetorriekin, aldatu egin zan. Basaurik be gura izan eban hasi eskola, baina azkenean, Bilbon baino ez zan ipini.

- Galdakaon egin zan albokariaren batzarrean sortu zan 1967an Albokariaren, Kobleriaren eta Panderojotzaileen Alkartea.

- "Bizkai" dantza taldean, Kepa Pérez Urraza izan zan jotzen ebilen albokaria eta "Argia" dantza taldean, Juan Mari Beltran.

- Bilboko Nazioarteko Erakusketa Azokan, "Txilibrin"ek eta Mariano Barrenetxeak alboka erakusketa eratu egin eben 1974. urteko irailaren 28tik urriaren 6ra, "II Ferial Agrario"aren barruan.

-1976. urtean "Alboka. Entorno folkórico" albokari buruzko lehen liburua argitaratzen da. Mariano Barrenetxea egilea da, Aita Jorge de Riezuren laguntzagaz. Liburu hau funtsezkoa izango da albokarentzat.

– Bilboko Nazioarteko Erakusketa Azokan 1978. urtean Exfilna –Exposición y Jornadas filatélicas nacionales– izenekoa egin zan bagilaren 6tik garagarriaren 2ra arte. Kartelak eta zigiluak, alboka erakusten dabe.

– 1970 eta 1992. urteen artean Leon Bilbaok eta “Txilibrin”ek hainbat disko argitaratzen dabe.

– 1993-4an Herri Soinutresnen Irakasle Gaitasun ikasturtean, albokaz be egin izan zan, Eibarren. Partaideak, honeetxek izan ziran: Oskar Angulo, Julen Begoña, Juan Mari Beltran, Aitor Coterón, Ibon Koteron, Aitor Gorostiza, José Antonio Mtz. Osses eta Karlos Subijana.

– 1996. urtean alboka soinutresna nagusia dauan lehen CDa eta kasetta argitaratzen da, “Leonen Orroak” izenekoa, albokaria Ibon Koteron dala.

– Bilbon, karnabaletan eta aste nagusian, 1997 inguruan hasita, albokariek urtero jotzen dabe Zazpi Kaleetan zehar, udalak eroanik.

– 1999an Portugaleten “La Canilla”n jota txapelketa eratzen da, musika albokagaz jotzen dala. Albokaria, Ibon Koteron da eta panderojotzailea, Asier Elorriaga. Urtero egiten da harrez gero.

– 500 lagun inguru ibili ziran dantzari albokaren musikagaz Erreterian eratutako “Erromeri Eguna”n 1999. urtean, eta baita gero 2000. urtean be. Albokaria J. M. Beltran izan zan. 2001. eta 2002. urtean, barriz, Ibon Koteron ibili izan zan albokero. 2003an, ostera, Fede de Dios izan zan albokari.

– Getxo-Folk jaialdian, 2001. urteko edizinoan, eskoziar kornamusajole taldea, asturiar eta italiar taldeekin batera, ‘Infernuko Auspoa’ (Leonen Orroak) izeneko albokari, kainabera eta panderojole taldea ibili zan kalez kale, irailaren bostean.

– 2002. urteko urtarrilaren 17an José Antonio Martínez Ossesek irabazi egin eban Arabako Diputazio Foralaren Blas Arratibel izeneko artesanian saria, albokaz lan batez: “Alboka, Euskal Herriko klarinete bikoitza”.

– 2002. urteko urriaren 17an *Alboka midia* aurkeztu egin eban Aitor Urteagak Gasteizen.

– 2004. urtean Ibon Koteronek “Airea”, bere bigarren diska aurkeztu eban. Lehengo aldiz, tonalidade desbardineta albokak erabilten dira: La doriko standarra & Sol-era hedatua; La doriko standarra; Sol-era hedatua & La Mixolidiokoa; Sol-era hedatua, eta baita era tradizionalen alboka be.

### **13. IZENA, JATORRIA ETA EZAGUTZA**

Hainbat izen ditu albokak, M. Barrenetxeak, R. M. Azkuek eta besteek erakutsi egin deuskuenez: **alboka**, **albokea**, **albokak**, **albokie**, **pastoresoinu**, **pan-**

**derosoinu, zinburruna, adarsoinu, artzaisoinu, tapatan, unzurrunzaketa.** Juan Mari Beltranek **itadarra** jaso dau, “(f)ita + adarra” batuketatik datorrena.

Hemen esan behar da albokari tradizionalen artean pluralean esateko ohitura egon dala. Hau da, Juan Otxandiok esaten eustan “albokak” esan izan dabela albokariek beti. Beste albokariei be, “Txilibrin”i, Leoni, Eujenio Etxebarriari edo Sagarnari, hala entzun izan deutset soinutresna izentatzerakoan.

Soinutresna honen jolea danari be, izen desbardinak agertzen jakoz: **albokaria** (“*albokarie*”), **albokeroa** (“*albokerue*”), **albokalaria**.

Hainbeste izen eukitea soinutresna batek, eta batzuk hain desbardinak, beharbada hau dinosku: alboka oso sakabanatua egon dala, eta beraz, euskal lurralde danetan jo izan dala, baina era berean, ez daukela beste soinutresna batzuek (txistuak eta dultzainak be, izen gehiago euki dabez, baina izenen zenbaki zehatza eta txikia) euki daben onarpena edo, behintzat, ezagutza eta presentzia izan. Izenaren eta soinutresnaren jatorriaz ezbai haundiak egon dira.

Izenari dagokionez, hona hemen jakintsu batzuen eritxiak:

– Jorge de Riezuak dino alboka eta *albogue* aparte ikertu egin behar dirala, euren arteko erlaziorik dagoanik pentsatu barik. Estudioaren emoitzak emongo dabe erantzuna. *Alboguea* izen literarioa da, bera tresna ez dogu ezagutzen eta. Idazleek ez dabe informaziorik emoten. Ez dakigu bat edo gehiago diran. Cervantes da albogueak definitzen dituen bakarra, baina albokagaz antzik edo zer ikusirik ez dauka berak aitutzen dauan soinutresnak [perkusi-nozkoa].

– Mariano Barrenetxeak (1986) dino gauza bi alkarren ondoan edo alboan dagozanean, alboka dagoz esaten dala: “fite eta tutu, alboka dagoz” edo “fitak ez dagoz alboka”. Orduan, hortik jatoriko izena soinutresnari, tutuak edo fitak alkarren ondoan edo alboan dagozelako.

– García Matosek arabieratik etortea posibletzat joten dau (nahiz eta okerrekoa izan daitekela onartu) *al-bukum*, *al-buke*, edo *al-buk* berbetatik, arabeak Espainiara sartuta. Arabeek sartu izan baeben be, horrek ez dau esan nahi eurek asmatu egin ebenik. Errusiako *jaleika*, Waleseko *pibcorn*a, edo Greziako Terna irlako tresna be hor dagoz, albokaren antza dabenak. Albogue eta alboka hitz bardinak dirala uste eban, eta soinutresna oso antzekoei edo ia bardinei deitzeko erabilten zirala inoan.

– Rodney Gallopek, euskaldunon artean gustora bizi izandako diplomatiko ingelesa –euskara ikasi eta ikertzailea bihurtu zana– uste eban alboka *albogonetik* etorrela, jatorri hispano-moriskotik.

– Franzisko Garmendiak dino grekerazko *bukanetik* [tronpeta] arabierazko *alboc* sortu zala, eta hortik datorrela alboka.

– Justo Garate mediku bergararrak eta “Acción Vasca”ren sortzaileetarikoa batek, Argentinan atzerriratuta gerra oste ia osoan bizi izan zanak, 1966an idatzi egin eban *albo* eta *-ka* batzetik etorrela.

Soinutresnaren jatorriaz, hau esan dabe ikertzaile batzuk:

– Curt Sachsek dinoanez, klarineteak ez dauka bape garrantzirik Ekialde Urrean. Bere jatorria ezezaguna bada be, zibilizazio zaharretan aurkitu izan da. Lehen aldiz, klarinete bikotxa lez agertu zan [Sardinian hirukotxa, *launeddas*]. Bere kokapena Indiko Ozeanotik, Mediterraneotik pasatuz, Atlantikora doa. Klarinete bikotxok Sri Lankan, irla grekoetan, euskaldunon artean, eta Waleseraino agertu izan dira.

– García Matosek, seguruago, arabiarren aurretik baegoala beste toki batzuetan be, uste eban, eta Asian kokatzen dau bere sorrera, Balfour ingelesari segituz (honi, Bainesek be badarraio), eta zehazki, Indostan inguruan. Handik Europara, bai iparretik eta bai hegoaldeetik heldu zala dino Matosek, jendea eraso militarren bitartez ailegatu zala edo hemendik pasatu baino ez zala egin. Indian aurkitu izan dan klarinetea albokaren antzekoa izatea, eta Europan zehar dagozan besteen gainean be, esan geinke, klarineteok dauken aniztasuna (zuloen zenbakian, tutuen neurrian, fita motak...) herri bakotxak emon deutsezan aldaketak baino ez dirala.

– Mariano Barrenetxeak (1986) dinosku albokari buztarria kenduz gero, *jalei-ka* antzeko soinutresna izango gendukela; eta tutu bat kenduko bageunskio, horren antzeko soinutresnak aurkituko gendukezala munduan. Albokaren senideak. Adibidez, Lemoako Pedro Sagarraga albokariak alboka joteaz at, tutu bakarreko ‘albokea’ be jotzen eban. Badira munduan adar bateko eta baita biko tresnak, edo adar bakoak fitak agerian dabezanak. Soinutresnak garatuz joan dirala dinosku, berez edo beste zibilizazioak ezagututakoan. Leku batzuetan era batera egin dabe, eta besteetan bestera. Albokak euki leikezan senideetan, garen ezin hobera heldu da.

– Juan Bautista Varela de Vegak dino, Balfour-i segituz, albokaren jatorria asiakoa dala. Manuel García Matosegaz be bat dator, Indostanetik oso urrun ez dagozan lurraldeetatik. Emigrazioen bitartez sartu ziran Europan, zein inbasioak zein etorte hutsaren eraginez.

– Ibon Koteron albokariak ([www.alboka.net](http://www.alboka.net)) bereiztu egiten ditu izena eta izana. Riezugaz bat egiten dau. Hau da, alboka eta albugue izenak ez dago argi senidekotasunik daukeenik. Baina, halan baleukie be, horrek ez dau esan gura soinutresna bardina izentatzen dabenik. Koteronek lehenengo aukera –izena– onartzen dau, baina horren ondorioz, bigarrena esatea, inondik inora ez.

Munduko beste leku askotan badagoz albokaren antzeko soinutresna franko eta ez da harritzekoa, esango neuke, ze unibertsalak baitira soinu tresnak. Dana dala, eta datorren lekutik datorrela, alboka –hemen sortua edo antxina kanpotik ekarria– ondo sustraitua dago, eta hemengo soinutresna da. Jatorriari ez deusatz

nik garrantzi haundiegirik emoten, baina jakintsu batzuen eritxiak ekarri nahi izan dodaz atal honetara.

Alboka, ez da ezaguna izan, joan dan mendean (XX.ean), behintzat. Azkuek badinosku, emoniko berbaldi baten, alboka bat erakutsi egin eutsela entzulei, euren ezagutza txikia zala eta.

Baina, ordutik hona, albokak eta albokariak ez dabe euren burua asko ezagunagoa egiterik lortu. Gaur egun eta gazteen artean, askok alboka ikusieran, oraindinokarren ea zer dan galdetzen dabe.

Orain hogeitamabost urte inguru, 1965. urtean, "Txistulari" aldizkarian J. L. Bengoak –albokaren aldeko ekitaldiak antolatutako kazetaria eta artikulu batzuk idatzitakoa– esan eban, berak liburua atarako baleu albokaz, ea zenbatek erosiko leukeen. Askok jota, ehunek, inoan. Zorionez, Barrenetxeak egin eban behar hori eta liburua, ehun ale baino gehiago argitaratuta, agortu egin zan.

Euskal Herrian, eta batez be mendebaldean, dantzarako jotzen ziran beste soinutresnen aldean senide ezezaguna zala dirudi. Bere musikarako gaitasun mugatua izan leiteke horren motibo, arnasa bueltatzearen zailtasunaren mitogaz batera. Egia esan, albokariak be gitxi izan dira. Edo uste baino jole gehiago, baina presentzia kaskarragogaz.

Baina sekula ez da historian gaur dagoen horrenbeste albokari egon. Ez eta maila haundiko horrenbeste albokari be.

Egin izan diran ikerketak eta, batez be, argitaratu izan diran diskoek lagundu izan deutse ezagunagoa izaten. Etorbizunean, uste dot doinu barriak, soinutresnaren garapen teknikoak, laguntza informatikoak eta munduko musika aldatzen doan prozesuak, albokaren musika ezagunagoa eta bere aukeretan seguruagoa izaten, lagunduko deusalakoan nago.

Zenbat eta ikerketa gehiago egin, eta hobe izango da albokaren etorkizunarentzat. Gehiago ezagutuko dogu bere historia, ingurua...

#### **14. AKABERA: KAINABERA**

Atal honetara, intuizino –edo uste– bat ekarri nahi neuke.

Albokaren bikotekidea panderoa izan da. Inoiz, panderoa eta txaramelak be bai. Baina mendebalean (eta inguruko, baina baita kanpoko beste lurralde batzuetan be) inoiz erritmoa joteko erabili izan dan kainaberak –soinutresna idiofonoa–, bikote egokiagoa sortuko leuke, panderoaren orde, nire eritxian. Hau gustu kontua da. Baina, Urdulizko Joseba Uribe kainabera jotzen entzun nebantetik etorri jatan eritxi hori. Gero, "Infernuko Auspoako" lagun batzuk entzun izan ditut alboka, kainaberagaz laguntzen, eta alboka eta kainaberaren arteko alkar hartzea, panderoarena baino hobeagoa begitandu jatan.



Gaur egun, dakigunez, alboka beste soinutresna askogaz batera joten da, zorionez, eta hortik doakioz bihar etzirako ahalmenak. Baina, esan nahi dot, modu tradizionallean, kainaberak bikote egokiagoa sortzen dauala albokagaz.

Kainaberajole tradizionalak gitxi ezagutu dira mendearen bigarren zatian, Joseba Uribek dinoanez. Ezagutu diranak, Bizkaian. Bera izango da azkenengotarikoa, seguruago, Laukizko Txetxu Urrutiagaz batera. Bere irakaslea, Berango bat izan zan, Jaime Bilbao.

## **EPILOGOA.**

### **Albokaren garapena: Ikuspegi desbardinak eta behin behineko eritxiak. Edo “Albokaren alde, Batzuk”**

Albokaren munduko gauzak ahal danik eta sailkatuen eta hotzen ipinten saiatu naiz. Eritxi orokorrenak, edo aztertutako informazio guztiaren arabera, nik alboka munduari ikusten deusadazan alde nagusiak eta azpimarratu beharrekoak diranak, ondorio gisa, epilogoan sartu ditut.

Ez dogu errez albokak segitu dauan bide luzearen biragune eta errebuelta guztiak ezagutzea. Bere inguramena izan dau eta mundu zehatz baten bizi izan da. Gorago esan dodan lez, alboka senide nahiko ezezaguna izan da erromerietan jotako soinutresnen artean Bizkaian. Beste soinutresna horreen aldean bazartuago bizi izan da hogeigarren mendean, edo presentzia txikiagoa ebala. Lan honi izenburua “*Albokaren alde, Batzuk*” ipini izan baneutson, akaso ez zan hain desegokia izango.

Nik neuk, azken mendeari lotutako informazioa jaso dot batez be. Gauza batzuk ia aldaketa barik helduko ziran XX. mendera haren aurreko denboretatik. Baina ez dakigu XIX. mendean eta aurrekoetan ze alderdi, eta zelan, aldatu egin ziran. Denbora joan ahala, ia dana itxuraldatu egiten da eta bermoldatu. Edo beharbada, horren barruan, gauzak bardinak dira. Muina, baktxaren barruko sentimentuak, pozak eta tristeziak. Pertsonok beti izan doguzanak. Aldakuntza haundirik barik. Azala barriz, musika, bere etenbako mudantzakaz.

## **Giroak**

Albokaren tokia herri musikan ermitetako basoerromeriei, baserriari eta tabernari estu lotua egon da “jantzan” egiteko. Baserriaren inguruan egiten ziran jaietan eta monjorretan jotzen izan da, baina baita bakartadean be. Mendian lanterik. Mendian be jotzen izan dabe artzainek.

Errepublikaren denboran, alboka bultzatzeko ahaleginak egin ebezan, ekitaldi politikoen inguruan. Baina ezin da esan arrakasta haundirik lortu zanik. Errepublika osteko diktaduran dantza taldeek, emon eutsen albokari onspen barria, arian arian, herri soinutresnak ezagutzeko jaialdiekin batera. Mota honetako ekitaldi biekien zeozer zabaldu zan alboka. Baina euskaltzaleen artean batez be. Hau da, gitxi. Baina lehengo garaien aldean, nahiko. Kanpoan, Manuel García Matosek “Txilibrin” grabatu egin eban, eta albokaz artikulu oso interesgarria argitaratu.

Hirurogeigarren hamarkadan, aurreko hogeitun urteetan hasitako albokarekiko babesa, bizkortu egin zan: Mariano Barrenetxeak argitalpen laburra eta disko txikia atara zituan, berbaldiak be egin ebazan Barrenetxeak, alboka zelan jotan dan eta zer dan erakutsiaz. Leon Bilbao be hasi zan plazan eten barik jotan. Jende aurreko saioak gehitu egin ziran soinu tresna erakusketekin eta dantza taldeen ohizko ekitaldiekin batera. Esan leiteke 60. hamarkada oso garrantzitsua izan zala. Apurren bat be hasi ziran idazten alboka zala eta, sakontasun haundirik barik baina.

Lan teoriko nagusia Mariano Barrenetxearen eskutik agertu zan 1976. urtean. Albokarenganako interesa ekarri eban askorentzako eta duintasuna emon eutson. Barrenetxeari esker, liburu honegaz, maila zientifiko-musikala hartu eban soinutresna honek. Esan nahi dot, sakon aztertu egin ebela alboka Barrenetxeak eta Riezuk. Normalizazio bidean abiatu zan, eta lehengo baztarketa eta baserritarkeriatzat joteta, aldatu egin zan.

Albokero tradizionalak gitxika alde egin euskuen, baina era barriko joleak plazaratu ziran. Eskolak be sortu ziran, modu apalean bada be. Albokari barrietan, aitagarriena, Juan Mari Beltran izan zan.

Folk taldeak izan ziran hurrengo sakada garrantzitsua albokari ekarri egin eutsenak, demokraziaren aroan, XX. mendearen azken hogeitun urteotan. Honekin, publiko barri batek ezagutu egin eban alboka Euskal Herrian. Piskanaka hemendik kanpora be hasi zan ezagutzen. Talde honeetan, musika barria eta tradizionala jotan eben albokaz.

Halan da be, autortu behar ordura arte albokak presentzia txikerra ebala. Albokari tradizionalen heriotzen hutsunearen gainera, sortu ziran folk taldeak ez ziran izan, ez asko, ez ugariak. Alboka bizirik egoan, baina osasun gitxi eban, diktaduraren azkenengo urteetan eta mendea amaitzear egoala, azkenengo urteak arte.

Demokrazian urteak aurrera doazala, mendea amaitzeko lau urte geratzen ziranean, etorri zan iraultza txikia. Ibon Koteronek argitarau eban disko osoa albokaz jota. Musikari egin eutsezan konponketak eta dituan soinutresnak lagun dituala, alboka dimentsino barri batera eroien. Irudikatu be egiten ez genduzan doinu klase anitza eta erakargarriak entzun genduazan.

Irakaskuntzan –joan dan mendearen azken bost-hamar urteotan eta barrieren hasikeran–, hainbat doinu tradizional egokitu egin dira albokarako, eta barriak atara, edo sortu. Horregaz batera, Leon Bilbao eta “Txilibrin”en jotak, porrusaldak eta martxak –seina diskoen bidez ezagutzen ditugunak, batez be, zuzeneko grabaketen gainera– euren aldaera, mordente eta berezitasun guztiekin irakasten dira gaur egun eskoletan hainbat eta hainbat ikasleei. Honi esker, albokari asko gai dira Leon eta “Txilibrin”en jotak, porrusaldak eta martxak euren modura, ia bardin bardin, joteko. Koteron, Beltran, Subijana, Joserra Fernández, Julen Begoña, Fede de Dios, Josu Salbide, Alan Griffin, Alberto Marcos, Asier Balentzia eta beste batzuei esker, albokari klasikoaren estiloa eta musika ez da galdu.

Lastima da albokari askoren (Amundarain, Orue, Benito Irigorri, Tiburtzio Elezkano, J. M. Bilbao, edo honeen aurreko Inazio Uribarri, Gurtubai, Etxezarraga, edo zer esanik ez Anbros, "Txisperue" edo "Txuskua" albokari haundien) musika ez ezagutzea. Hau da, grabaketak ez eukitea. Horrela, albokari bakotzak jotak, porrusaldak eta martxak –edo beste doinu klaseak– joteko eban berezitasuna salbatu egingo litzateke lehenengo eta bat, eta bigarrenez asko zabaldu egingo litzateke, orain arte azken albokari haundi biek, irakaskuntzaren bitartez, egin dan antzera.

Bizkaiari dagokionez, ia eskualde danetan sortu dira albokariak Koteron eta bere ondorengoei esker: Bilbon, Durangaldean, Arratian, Lea Artibain, Busturialdean, Txoriherrin, Ezker ibarrean, Mungialdean, Orozkon...

Galdakao herria kasu berezi modura goratu nahi neuke, albokarako dauan zaletasunagaitik, ze han jaio edo bizi izandako lehenengo albokari tradizionalak ("Txuskua", "Barberue", "Jitano", Benito Irigorri, Juan Kruz Valle, Langara, Quintana, Otxandio) eta Barrenetxea landa, gazteetan badagoz zenbait. Izentatu nahi neukez Fede de Diosen eta Ibon Koteronen eskolako ikasle galdakaoar honeetxek: Pedro Ezkurra, Iker Díez, Jone Iurrebaso, Asier Balentzia, Eneko Ibargarai, Ibon Askargorta, Karlos Gómez... eta baita bera Fede eta Asier Elorriaga be. Asier Elorriaga Galdakako albokaria aitatu behar da panderojotzaile modura, maila apartekoa daualako. Beste albokari batzuk be badagoz: Dani Lara, Sabin Bikan-di, Patxi Rayo... Aitatutako batzuetan, Mariano Barrenetxearen eragina be bada-go.

Gipuzkoan, apurka apurka, probintzi osora hedatuz doaz albokariak Hernani, Usurbil, Erreterri eta Pasaia irakasteuneetatik, Beltran eragile nagusia izan dala. Araban non nahi dagoz albokari banakak, baina Gasteiz eta Amurrio ingurua dira nagusi, Subijana [Gasteizen] eta Koteronen [Amurrian] eskolei esker

Alboka, teknika barriei egokitu da, egiterakoan, afinatzerakoan, grabatzera-koan, eta ahal izan dan arlo guztietan. Aitatzekoa da albokaren irakaskuntza, informatikara zelan egokitu dan. Koteron aitzindari da honetan. Bitarteko hone-ek dituan bere metodoa hedatzen danean, ahozabalik geratu leitekez hainbat, albokak irakaskuntza arloan egin dauan aurrerakuntza ikusita.

Albokaren aurrerapausoetan mende osoaren egoerek euki dabe garrantzia, baina hogeigarren mendearen azken hamar-hamabost urteetan etorri dan aurre-rakada nagusiak askatasunezko egoerari eta bertoko zein kanpoko musikoen arteko hartuemonari asko zor deutso. Baina batez be, albokariak musika –solfeoa– jakin eta beste hainbat soinutresna jotzen dabena izan diralako izan da.

Aurretik, Barrenetxeak solfeoa baekian eta baita tanbolina eta oboea jotzen be, eta Beltranek berrogei soinutresnatik gora jotzen dau, irakaslea da eta musika-oso jantzia dago. Mende amaierako urteetan, Koteron eta bere ondorengo aldra eta baita Alan Griffin, Joserra Fernández, Josu Salbide, Subijana... albokariak be, musiko jantziak dira eta ia danak beste soinutresnaren bat edo gehiago (klarinetea, saxofoia, kitarra, flauta, eskusoinua, pianoa, xirula, harmonika, dul-

tzaina....) joten dabe. Albokari klasikoak be musikoak ziran, baina honeek barriok asko jantziagoak dira. Albokagile barrien ekarpena be ezin da ahaztu.

Erromeria / dantza taldeak / folk taldeak / soinutresna nagusia, izan dan garapen horretan, albokagintzak aurrerapen ugari ekarri ditu, tresna sendotuz dentsidade haundiagoko egur klase desbardinak (hemengo ezpala eta kanpoko granadilloa) tutuetan erabilita kainaberaren ordez. Baita plastikozko fitak eginaz be, kainaberazkoen ordez. Fitetan esan behar da, mihina kainaberazkoa dala. Beharbada, aurrerapen garrantzitsuena alboka tenperatzea edo perkusinozko ez diran beste soinutresnekin batera joteko tonoa emon ahal izatea da, beste neurri eta aldaketekin.

Azken pausua geratzen jako albokari eta albokariari: bakarlari izatea. Orain mendeak be izan ei zan, panderoagaz batu aurretik. Baina, kontzertuak emotea esan nahi dot, erreperitorio anitz bategaz. Oraindik, erabilten dan albokari urte asko geratzen ei jakoz bere aukera musikalak agortu arte. Baina, aurrera begira, Juan Mari Beltranek sorturiko “alboka sol3-sol4”, edo oktabak emoten dituan alboka, dalakoagaz hori egitea asko posibleagoa izango da.

Bakarlari izateaz gainera, beste soinutresnekin batera be erabiliko da, entzuteko, kantatzeko, dantzaz egiteko...

## **Joleak**

Lan honetan badatoz hogeigarren mendean jotzen ibili izan ziran albokari batzuk. Grabaketa gitxi dagoanez, gatx egingo jaku bakotxaren joteko modua eza gutzea. Alkarrizketatu egin dodazan albokariaren arabera, eurak nagusi edo trebetzat jotzen ebezan batzuk, badira. Grabaketen bitartez, zein zuzeneko emonaldietan, gehien ezagutu izan doguzan azken albokari haundi biei [Leon Bilbao eta “Txilibrin”] erreparatuz gero, hiru dantza musikak jotera erakutsi ebezan desbardintasunak kontuan harturik, argi ikusten da beste albokeroek be euren arteko alde handia eukiko ebela.

Danen joteko modua ezagunagoa inoiz egingo balitzakigu –posibilidade gatx hori irudikatuz–, estiloak eta antzekotasunak ataratea edo erakustea erreza izango litzateke. Baina agian, eskolak be, osatzeko moduan egongo ginateke. Grabaketen faltan, ezin da demostratu egozanik, ezta ez egozanik be.

Ez dakit lan honen bederatzigarren atalean datozenetik aparte, asko edo gitxi faltan izango diran XX. mendean. Nahiko esango neuke nik, batez be mende hasierakoak. Zenbat gehiago esatea, gatxa da. Baina, pentsatu behar da euren baserrietan edo artzain beharrean jotzen ebenak, asko gehiago egongo zirala hemengo zerrendan datozenak baino. Trebeenak zeintzuk izan ziran jakitea, osterara, errezago izan daiteke. Onenak, izen edo fama ebelako, ezagunagoak egin ziran.

Aitagarrientzat honeexek ondoren datozenak joko neukez. Uste dot, hemen ondoren datozen danak, albokari oso onak edo onak izan zirala. Gehiago izan leiteke gotea. Baina honeek, behintzat, danak izan ziran maila altuko albokeroak.

Klasikoak. Onak ziralako, erromerietan be, kasu gehienetan, gehien ebilzanak izan ziran.

Belaunaldiak, adinaren arabera finkatzen dira. Belaunaldiak hogeitabost urtetakoak izaten dira gitxi gora behera, teorikoki, beste arloetan. Albokari klasikoek dagokienez, hogeigarren mendeari azken hogeitau urte inguru kendu behar jakoz, jole tradizional gehiagorik egon ez zalako. Jaiotako azkenengoa Juan Otxandio izan zan, 1927. urtean.

Euren artean ikastea izan eitekean, baina baita aurreko batengandik be, normalagoa litzatekena. Belaunaldien arteko joteko estiloaren lotura jakitea, gatxagoa da. Hemen, nire eritxian, XX. mendean zehar bereizi egin daitezkezan hiru belaunaldi (A, B, C) sailkatu nahi ditut. Euren arteko loturak, hau da, belaunaldi nagusiko nortzuek belaunaldi gazteagoko nortzuei irakutsi edo nortzuegan eragina euki eben jakitea gatxa da, baina uste dot posiblea dala hirugarren belaunaldikoak bigarrengoagaz euki leikezan loturak aurkitzea.

Albokari bakotxak, alboka joten ikasi eta gero, bere aldakuntzak eta asma-kizunak egingo ebazan. Hori, seguru. Baina, maisuaren edo inguruaren eragina eukiko eben. Horregaitik, batzuek, besteengandik baino, antzerago joko eben.

**A.** Anbros Gorostiaga igorretarra, mende hasierakoen artean albokero garrantzitsuena lez kontsideratu daiteke. Zaharrek hala esan izan deuste, baina gainera 1913. urtean Dr. Trebitsch alemaniarra Euskal Herrira etorri zanean, bera Anbros, grabatu egin eban. Onena –edo onenetarikoa– nor zan esango eutsen ordukoak. Anbrosen garaikideetan, Jose Iturbe zeanuritarra be trebea ei zan.

**B.** Mendearen hurrengo belaunaldian, bi aitatu daitezke albokari errime-nak lez: Graziano Lekue “Txisperue” zeberiotarra bata, eta Migel Larrinaga “Txuskoa” dimatarra bestea. Uste dot bakotxak bere “eskola” edo inguru-koak izan ebazala joteko moduan edo ikasterakoan. “Txisperue”n kasuan, Alejo Etxezarraga dimatarra, Inazio Uribarri “Andaluze” Zaratamokoa, bere eskola-koak edo inguru-koak ziran, gehiagogaz batera. “Txuskoa”k, ostera, beragan-dik ikasitakoak, Jose Mari Bilbao artearra eta Alejo Gurtubai “Barberue” gal-dakaoarra zituan, beste batzuen artean. Autortu behar dot, Alejo Etxezarraga izan eitekeala inoren eskolakoa ez izatea, albokari zaharrei entzun deutseda-nagaitik.

Honeetxek eurok be, “Txisperue”k eta “Txuskoa”k –eta Alejo Etxezarragak, akaso– eukiko eben bakotxak euren aurreko eredu, seguruago. Baina ez dakit zeintzuk izan eitekezan. Honek ez dau esan nahi belaunaldien arteko hartuemonik edo antzik ez egoanik. Esate baterako, bigarren belaunaldiko “Barberue” (“Txuskoa”ren eskolakoa zana) asko ibiltzen ei zan Tiburtzio Elezka-nogaz alboka jotzen, eta Tiburtzio, hirugarren belaunaldikoa izanik be, “Txisperue”ren eskolakoa zan, ze bere osabarengandik ikasi eban, eta honek, “Txisperue”ren eragina eukan –nahiz eta Alejorena be euki beharbada, zeberiotar-rena aparte–.

Azpimarratu gura izango neukena hau da, estilo antzekoa izango ebela eskola edo sail bakoetakoak, euren musika joteraoan, gauza batzuetan behintzat. Edo besteengandik desbardina. Nahiz eta sarri, lantzean behin –edo inoiz bez– alkarregaz ibili. Musikaz landa, beharbada grina bardinak eukezan soinutresna egiterakoan, zaintzerakoan, eroaterakoan...

**C.** Mendearen hurrengo belaunaldian, honeetxek aitaturko neukez: J. Jose Amundarain zeanuritarra, Pontxo Orue lemoarra, Benito Iragorri arrañoitarra, Tiburtzio Elezkano igorretarra eta, azkenik, mendearen amaieran eta bihar etziko ezagunenak lez geraturko diranak, Silbestre Elezkano “Txilibrin” igorretarra eta Leon Bilbao artearra.

Amundarain belaunaldi bien erdi samarrean dago, baina azkenengo sailean sartzea pentsatu dot, nahiz eta danengan apartekoena izatea be izan leiteken. Mende erdiko artzain bakarretakoa zan, eta bigarren eta hirugarren belaunaldikoekin ibili zan. Hau, belaunaldi bietako eskola edo estilotik apartekoa izatea gertatu leiteke.

Azken klasiko bietan, “Txisperue”ren eragina [“Txilibrin”engan] eta “Txuskoa”rena [Leonengan] somatu leitekela esan behar da. Elezkano anaiengan euren osaba Inazio “Andaluze”ren –irakaslearen– eragina egoan, eta honek “Txisperue”gaz zerikusia eukan, nahiz eta agian baita Alejorena be izan. Leonek, aitaren eragina izango eban, eta Jose Mari, “Txuskoa”ren ikaslea zan.

Guri, XX. mendearen azkenera, albokari eta albokagile ezagunenak lez heldu jakuz “Txilibrin” Elezkano eta Leon Bilbao. Ezagunak, zentzu zabalenean. Euren albokak erosteko modua izan dabe askok, baita albokagintzaz edozein gauza itauntzeko era be euki, fitak erosteko edo hartzeko, eta kainaberak aldatzeko modua. Euren grabaketei esker jota, porrusalda eta martxaren aldaera desbardin, mordente, ornamentu eta berezitasunak heldu jakuz.

Izan daiteke honeetan bietan, guregana aurreko estilo danak heltzea. Baina, gatx da hori pentsatzea, pertsona (albokari, kasu honetan) bakoetaren inprobisatzeko ahalmena ezaguturik. Honeek bion arteko desbardingintzasunak ikusita alboka joteraoan, eta Eujenio Etxebarriaren hitzak gomutatuz (“*lehen danok diferente yoten genduan*”, “*bakotxak bere gauzek sartu eta kanbieu piezak*”) pentsatu behar da, aurreko albokarietatik gitxi edo apur bat heldu jakula. Nahiz eta kalidadekoa izan.

Lan honetan zehar esaten danez, aurreko hiru belaunaldiko honeetariko batzuk euren ikasleak be euki egin ebezan, eta ez burutzat joten ditudanak bakarrik. Horreen ikasleetariko asko, hain ezagunak izan ez badira be.

Dana dala, ezagutu dodazan albokarietan Leon Bilbao izan da beste askoren aldaerak eta estiloak, zati eta alderdiak bat egin, eta albokaren musikaren fusioa egin ebana, maila baten. Besteen gauza asko jaso zituan, baina bere aporazioa ez zan txikiagoa izan. Leon Bilbaok eban aniztasunari, gehitu behar jako erritmoari hain bikainki eustea beti. Eta lelokeria emoten badau be, alboka ondo afinatuta jotzen eban beti.

“Txilibrin”ek, bere aldetik, bere aldaera gitxiko hiru dantza piezak barrokismo dotore eta haundiagaz jotzen zituan beti, baina García Matosek idatzi ebanek, aldaera barik. Hau, horrela izanik be, oso albokari ona izan da “Txilibrin”. Gaztetatik igarten jakon ekarren trebetasuna ze, 1943an, txapelketa irabazi eban beste albokari klasiko batzuen tartean: Tiburtzio anaia –nik ezagutu dodazan albona munduko gehienek oso abila zala esaten eben eta, inoiz, bera “Txilibrin” baino hobea goa–, eta Inazio osaba, irakaslea ebana.

Leon Bilbaoren ostean, albokari barrietan, Ibon Koteron izan da bere oinordekoa. Leon eta “Txilibrin”en estiloak darabilena bere konposizioetan (diskoetako eta argitaratu barik dagozan doinuetan) eta biak batu dituana, modu baten, ze aurreko bien ezagutza sakonetik salto haundia emon dau, alboka lehen inoiz pentsatu ez zan mailara eroanaz. Gainera, albokari gazteenetan, bai Leonek eta bai Txilibrinek goraitatu egin izan dabe. Leon Bilbaoren onarpena eta adiskidantza baebala bagenkian. “Txilibrin”ena ez da hain argi egon. Baina, nik neuk entzun izan deusat hiruzpalau bider “Txilibrin”i, Koteronen maila goratzen albokari lez. Beltran be, albokari lez, estimuan eben honeek klasiko biok, baina Koteronek ipini dau listoia.

Belaunaldien arteko hartuemonak dala eta, esan behar da ez zala bakarrik jazo tradizionalen artean. Leon Bilbao, “Txilibrin”, eta Eujenio Etxebarria albokari gazte eta barriekin be ibili izan ziran jaialdi bardinetan jotzen. Edo Pontxo Orue eta J. M. Bilbao albokaz gazteekin berba egiten. Albokagile modura, albokari eta albokagile gazte askok euki dabe zaharrek hartuemonak. Ezin da esan etenik egon danik.

## **Doinuak**

Albokari zaharretan, nagusiki, “jotea, porrusaldea eta martxea” baino ez dabe ezagutu, euren aldaerekin.

Lehenengo aldiz XX. mendean, albokagaz doinu barriak –albokarako bereziki sortutakoak– edo kantu tradizionalak jotzen hasi ziranak, folk taldeak izan ziran. Izen hau zeozelan deitzeagaitik darabilt. Dantza taldeetan, albokaren erabilpena tradizionala zan, eta “Ez Dok Amairu”n be, antzera.

Ibon Koteron agertu arte, ekarpen haundiena Txanbela eta Oskorri taldeek egin deutse albokari, tresna hau garatuz eta era askotako doinuetara egokituz. Plazetan ibili izan diran folk talde guztietan, esan leiteke eurok biok emon izan dabezala, batez be, lehen pausuak bidea Koteroni prestatzeko.

“Leonen Orroak” diskoaren ostean, asko zabaldu eta aniztu egin da han hemenka entzuten dan alboka musika mota. Lan hau, albokarentzako abiapuntu garrantzitsua izan da. Lan horrek harritu egin baginduzen, orain era askotako albokariak eta alboka musikak agertu dira eta agertzen dabilz, eta batek baino gehiagok harritzeko ahalmena dakar, berari esker.

## **Kemena**

Presentzia eskasa izan badau be Bizkaian XX. mendean txistua, dultzaina eta soinua haundi zein txikerren aldean, albokak ez dau bere burua guztiz ezkatututa

ikusi. Albokeroek beti ahalegindu izan dira euren artean batzen, eta egoeren gainetik, euren burua erakusten izan dabe albokariak hainbat ekitalditan. Beti egon dira presente bizitza musikalaren inguruan, modu apalean baino ez bada be. Erromeriei eta dantza munduari eutsi izan deutse ahal izan daben moduan (hau da, txarto). Baina, albokariak euren arteko loturak beti mantendu izan dabez, asarre edo enbidien gainetik, munduko musikari anitzei beste lekuetan be jazo jaken antzera. Upo mendiko batzarrak izan daitezke horren lekuko nagusia.

Lan honen hamaikagarren atalean ikusi daitekenez, albokari tradizionalen arteko egunak, txapelketak... egin izan dira, hogeigarren mende guztian. Hori, XIX. mendeko 1886 eta 1897. urteetan egin ziran Lore Jokoetako albokariaren lehiaketekin hasita, gitxienez. Gero, nik jasorik dodazan 1935, 1943, 1953 eta 1964. urteetan, bederen, egin ziran norgehiagokak.

Gorago esan dodanez, albokari tradizionalekin ez zan amaitu alkartzeko joera, ze barriak be hasi ziran eurekin batzen. Ez da etenik egon tradizional eta barrien artean. Horrela, 1967an Galdakaon eraturako batzarrean, Mariano Barrenetxeak eta Nestor Goikoetxeak (Jose Leon Bilbao be han ibili zan) albokari tradizionalekin batera jo egin eben. 1968an, batzar antzekoa antolatu egin eben. Gero, 1974 eta 1975. urtetan Euban eta Zeberion, Kepa Pérez Urrazak -bietan-, Alberto Zabalak eta Jon Beni Eguigurenek -bigarrenen- parte hartu egin eben Leon Bilbao eta "Txilibrin"egaz batera (Eujenio Etxebarria iragarrita egoan 1975ean, baina ez zan joan). Ostera be Zeberion, 1989. urtean, Leon eta "Txilibrin"egaz batera belaunaldi eta aldra barria agertzen da: Ibon Koteron, Jose-rra Fernández, Jabi Santamaria eta Alberto Santamaria.

1994an, Hernanin hasi ziran Euskal Herriko albokariak batzen. Ordurarte, jotoke estiloak oso sakabanatuta egozan. Beltran eta Koteronen eskolak alkartzan dira nagusiki, baina beste albokari gazte batzuk be agertu izan dira. "Txilibrin" eta Eujenio Etxebarria be izan dira han. Juan Otxandio eta Emilio Sagarna be joatekoak izan ziran, baina osasunak ez eutsen laga. Hernaniko kale emeraldietan betiko jotak, porruak eta martxak jotzen dira, baina baita konposizino barriak be. Han batzen diran berrogeitamar-hirurogei albokarietan, albokagile askoren albokak erabilten dira: Osses, Gastiain, "Txilibrin", Leon Bilbao, Atxa, Eujenio Etxebarria, Beltran, Kanpo, Lekue, "Mundi" eta beste batzuenak. Talde desbardinetan ibiltzen dira hamar-hamabost albokari inguru batera jotzen (inoiz, bigarren "boza"gaz). Kaleetan, alboken lagun, panderoak eta kantua izaten dira. Inoiz, kainabera eta txaramelak be jo izan dira, eta baita eskusoinua be. Dantza soltea be izaten da. Uste dot lehengoari -tradizinoari- eusten jakola, baina, barrizatutako doinuak eta giroa be, ikusi daitezke.

Atal honegaz alboka eta albokariak beti bizirik egon izan dirala hogeigarren mendean gura izan dot erakutsi, bere sasoi txarrak pasatu baditue be. Albokari gitxi (eta gero, banakak), doinu apurrekin, esparru mugatu baten, lantzean behin alkarregaz batuaz, jende gitxi inguruan dantzan eukita, ia sekula batera jotzen ez ebenak, panderoa lagun bakarra izan eben soinutresna. Baina eutsi izan deutse albokariak.



Orain, inoizko egoera onean dago alboka mundua. Ezagutu izan ditugun albokari klasiko biren doinuak jotzen dira. Zahar gehiagoren doinuak jotzen ez badira, euren joteko modua ezagutzeko aukerarik egon ez dalako izan da. Baina, gauza barriak be han hemenka, asko sortu dira. Gero eta gehiago datoz. Bai konposizi-noetan, bai doinu tradizionalak egokitzerakoan, bai albokagintzan, bai alboka euren taldeetan sartzerakoan.

Asko aurreratu dau albokaren egoerak. Zalantza barik. Albokariak non-nahi dagoz, musika klase anitza jotzen dabe, talde askotan agertzen da alboka beste soinutresnekin batera, kalera eta eskenatokira urten dau. Hau dana hau azken urteotan, 1996tik, batez be. Baina, oraindik nahiko ezezaguna da, presentzia urrikoa eta gauza askotara egokitzeko bidean.

Albokak adorea izan dau. Hogeitalehenengo mendera, sendo eta gaztegin heldu da.

## **ERANSKINA.**

### **Albogueaz aitamenak erdarazko literaturetan**

Alde batera itxirik *albokea* eta alboguearen balizko antzak edo senidetasuna zein diferentziak, historian zehar egin izan diran aitamen batzuk albogueaz, nagusiki autore bik jaso dabez, Manuel García Matosek eta Juan Bautista Varela de Vegak eta, hona ondoren, horretariko batzuk. Honegaz batera, antxinako hiztegi eta historia liburu batzuetan agertzen dana.

– XIII. mendean *Poema de Alexandre* izenekoan, beharbada Juan Lorenzo Segura leondar abadeak idatzita, honelako aitamena dakar:

“El pleyto de ioglares era fiera nota,  
Auye hy simfonia, arba, gíga e rota.  
**Albogues** e salterio, çítola que más trota,  
Çedra e uiola que las coytas enbota”.

– XIV. mendean Joan Roiz, Hita arzipresteak, “El libro del Buen Amor” lanean behin baino sarriago aitatzten ditu. *De cómo don Amor e don Carnal venieron e los salieron a rescibir* izeneko “cantar” dalakoan hau dino:

“El pastor lo atiende fuera de la carrera,  
Taniendo su zamponna et los **albogues** espera,  
Su mozo el caramillo fecho de cannauera,  
Taniendo el rabadán la çítola trotera”

Beste “cantar” baten –*En cuales instrumentos non convienen los cantares de arábigo*– hauxe dakar:

“Arábigo non quiere la biuela de arco,  
Sinfonía, guitarra non son de aqueste marco,  
Çítola, odreçillo non aman caguil hallaco

Mas aman la taberna, e sotar con bellaco.  
**Albogues**, e mandurria, caramillo e çamponna,  
Non se pagan de arábigo quanto dellos Bolonna  
Como quier que por fuerza disenio con vergonna  
Quien gelo desir fesiere, pechar debe colonna”

- XV eta XVI. mendean Juan Encina poetak berak sorturiko gabon kantetan, geroago *Cancionero de Palación* batu ziranak, honelako bi dakarz:

“Levanta toste priado, Toma tu perro e zurrón, Tu zamarra e zamarrón, Tus <b>albogues</b> e cayado”.	“Por tal terruño no abogues, Perdona, zagal, si yerro, Que más sienten de cencerro Que no de buenos <b>albogueros</b> ”
---	--

- Lope de Vega idazle famatuak esakera hau eskribidu egin eban: “... con unos roncós **albogues** de mal juntadas cañas...”

- XVII. mendeko beste esakera edo errefrau hau be badago, bai Correasek (“Vocabulario de refranes y frases proverbiales” de Gonzalo Correás, Madrid, 1924) eta bai Covarrubiasek (Tesoro de la lengua castellana o española, Sebastián de Covarrubias y Orozco, Madrid, 1674) jasoa: “ En casa del **alboguer** todos son **albogueros**.”

Covarrubiasek esandako lanean hauxe dino *alboge* (sic) dalakoaz:

“Es cierta especie de flauta o dulzaina. Latine calamus. Aulos tibia, de la cual usaban en España los Moros, especialmente en sus çambras. Está el vocablo corrompido de albuque, que en su terminación arábigo se dize bucum, que vale tanto como trompetilla, o instrumento de bocam para sonar. Vrra. El Padre Guadix, dize que albogue es un género de gayta de que usan los moros, y le llaman buque, que vale gayta: todo parece que viene a significar una cosa”.

- Cervantesek “El Quijote” lanean behin baino sarriago dakar *alboguearen* aitamena. Bigarren zatiko LXVII atalean (“De la resolución que tomó Don Quijote de hacerse pastor y seguir la vida del campo, en tanto que se pasaba el año de su promesa, con otros sucesos en verdad gustosos y buenos”) hauxe dino:

Válame Dios –dijo Don Quijote–, y qué vida nos hemos de dar, Sancho amigo! ¡Qué de churumbelas han de llegar a nuestros oídos, qué de gaitas zamoranas, qué de tamborines y qué de sonajas, y qué de rabeles! Pues qué, si entre estas diferencias de música resuena la de los **albogues**! Allí se verán casi todos los instrumentos pastorales.

Sanchok itauntzen deutsonean *alboguea* zer dan –ez ekian eta– “¿Qué son **albogues**, que ni los he oído nombrar, ni los he visto en toda mi vida?”, Quijotek hau dinotso:

“**albogues** unas chapas a modo de candeleros de azófar, que dando una con otra por lo vacío y hueco hace un son que si no es muy agradable, no des-

contento, y viene bien con la rusticidad de la gaita y del tamborín: y este nombre, **albogues**, es morisco”.

– Góngora idazle klasikoak, bere *Fábula de Polifemo y Galatean* lehenengoz berba egiterakoan hau bota eban:

“Cera y cáñamo unió, que no debiera,  
cien cañas, cuyo bárbaro ruido  
De más ecos que unió çañamo y cera  
**Albogue** es duramente repetido”

– XVIII. mendean Tomás de Iriarteren *La Música* izeneko poemán artzain sointresnei buruz hauxe dino:

“Perficiona después y dulcifica  
sus rabeles groseros,  
**Albogues**, cornamusas y trompetas,  
Humildes caramillos y panderos  
Chirimías, dulzainas y cornetas”.

– Real Academia Española-k argitaratutako “Diccionario de Autoridades”, 1726. urteko hiztegiari ALBOGUE dalakoaz hau dino:

“Instrumento de la música de los que llaman de viento, ó boca. Especie de flauta, ó dulzaina. Es voz árabe de la palabra ‘Abuaq’, que significa flauta, y con el artículo ‘Al’ acomodando la voz a nuestra pronunciación más suave, Albógue. Lat. ‘Tibia’, a. Fístula, a. GONG. Poliph. Oct.9”.

ALBOGUERO, f. m. El que toca el Albógue por oficio, ó el que hace esta especie de flautas. Es voz formada de la palabra Albógue, Lat. El que las tañe o toca. Auletor. El que las hace. Fistularum constructor, vel tibiaram fabricator.

En casa del Alboguéro todos son Alboguéros. Refr. Que enseña, que conforme á las costumbres de un padre de familias son regularmente las de los hijos, criados, y personas que están a su cargo. Lat.

– Manuel de Larramendik bere “Diccionario Trilingüe del Castellano, Basconce y Latín”, 1745. urtean argitaratu ebanean hau dakar albokari buruz:

Albogue, albogon, *alboquea*. Lat. Fistula, ae; tibia ae.  
Albogero, *alboqueroa*. Lat Auledus, i.

– Juan Antonio Zamakola izeneko eskribau eta militar dimarrak [“Zamakolada” eratu ebanaren anaia], “Historia de la Naciones Bascas de una y otra parte del Pirineo septentrional y costas del mar Cantábrico, desde sus primeros pobladores hasta nuestros días, con la descripción, carácter, fueros, usos, costumbres y leyes de cada uno de los estados bascos que hoy existen” idatzi eban eta 1818an argitaratu Frantzian. Bigarren tomoko “Costumbres de los Bizcaynos” izeneko atalaren barruan, 218. orrialdean hau dino:

“Quando alguno de los Bizcaynos de aquellos tiempos recibia gentes forasteras en su casa, todos los parientes y vecinos le daban la enhorabuena, llevandole de paso algunos manjares para obsequiar al huesped, y si éste era hijo, hermano ó pariente de la casa, entonces le abrazaban todos los hombres y mugeres, sin excepci3n de edad, de cuya costumbre conservan aun algunos restos. Al mismo tiempo corrian los músicos del pueblo con tamboril, silvo, albugue, tuntun, y otros instrumentos á felicitarle, y los aficionados cantaban graciosos versos de improviso al intento, de suerte que hacia durar el regocijo por muchos dias”.

– J. Cénac Moncaut idazle frantziarrak “*Histoire des Peuples eta des États Pyrénéens (France et Espagne)*”, 1860.urtean, bostgarren tomoko zortzigarren atalean (“Langue et littérature romanes”) dagoan 327. orrialdean hau dino:

“Il n’est pas jusqu’aux instruments de musique en usage dans La Catalogne, l’Aragon, la Navarre, le Béarn et le Roussillon, qui ne soient un dernier héritage des musulmans; nous citerons la flûte ou hautbois, appelé albugue en Espagne (en arabe al-boq, flûte), les castagnettes (kas, gobelet, cimbale), et le petit tambour suspendu sous le bras, transformé chez les Béarnais et chez les Basques français en tambourin á quatre cordes”.

Hasieratik, flauta eta oboea –(hautbois), hau da, soinutresna fita-tutuduna– nahasten ditu. Beraz, txistua, dultzaina edo albokari buruz ete dabilen ez dakigu. Baina aitagarria da urte horretan hori esatea.

## II. ZATIA. ALBOKARIEN BIOGRAFIK

### 1. BILBAOTARRAK



**JOSE MARI BILBAO (1886-1977)**

#### 1. Bizitza eta albokaritzza

- Arteako Presalde baserrian jaio zan 1886. urtean.
- Petra Ibarretxegaz ezkondu zan.
- Alaba, Segunda Bilbao Ibarretxe, panderetera ona ei zan. Panderota joten erakutsi egin eutsona, Zeanuriko Leona Ziarrusta, izan zan.

Jose Mari Bilbao Arteako albokaria (arg. Nestor Goikoetxea)

- Jose Mariren aitak ez ekian alboka joten, ez eta egiten be. Bakarrik ikasi egin eban Jose Marik, bai joten bai egiten. Baina, esan behar da Migel Larrinaga "Txuskoa" k izan ebala eragin berezia Jose Mariren alboka joteko moduan.
- Tranbiako kaltzadorea zan ogibidez.
- Kapritxosoa zan esku beharrak egiten. Albokagile lez famatuagoa zan, nahiz eta ezaguna izan albokari lez be. Albokak, lagun askorentzako egiten zituan.
- Ez zan herririk herri ibiltzen alboka joten, lotsatzen zalako. Iluntzetan jotzen eban alboka, leihoan jarrita, urrunetik jendeak entzun egian.
- Artean hil zan, 1977ko garagarriaren 2an.

## LEON BILBAO (1916-1990)

### 1. Bizitza

Leon Bilbao Ibarretxe Arteako Presalde baserrian jaio zan 1916-12-19an.

Klaudia Etxebarriagaz ezkondu zan. Lau seme alaba euki ebezan, mutil bi eta neska bi. Nobiatan, begira begira eukiten eban plazan Leonek. Beti esaten eban ez ekiala albokaren soinuagaz maitemindu egin ete eban. Ezkontzerakoan doinu bat eskeini egin eutson, eta gerora be sarri jotzen egiten eutson alboka. Klaudia-ri asko gustetan ei jakon.

Bizi guztia emon egin eban baserrian, hango beharrak egiten. Horrez gainera, albokak egin eta ehundaka herritan ibili izan zan alboka jotzen. Alboka, egunero, jotzen ei eban. Eujenio Etxebarriak be hala dino "Leonek egunero yotzen eban".

Panderoa be jotzen eban. Bere eritxian, "ondo". Kepa Junkerari lagundu izan eutsonean, pozez beterik egon zan.

Albokak, bere aitak erabilten eban tailer berean egiten ebazan. Tailerrean hil zan 1990.12.18an, egun bat falta ebala 74 urte beteteko. Tailer hori orain Oiarzungo Herri Musikaren Txokoan dago.



Leon Bilbao albokaria eta Maurizia Aldaiturriaga (arg. Juan Miguel. *Egunon* aldizkaria)

Artean 1996. urtean omenaldia egin eutsen, eta urte batzuk lehenago lurretan.

Bere seme dan Jose Leonek badaki alboka joten –Leonek esaten eban ondo joten ebala– baina ez arnasa bueltatzen. Plazan 9 urtegaz jo egin eban lehenengo bider. Baina, 1978tik aurrera ez dau gehiago jo. Orain, bere beste semea den Jabierren semeak –Leonen lobeak– Xabier Bilbaok ederto jotzen dau alboka.

## 2. Albokaria

Leon 12 urtegaz hasi zan alboka joten. Aitarengandik ikasi eban. Plazan lehenengo bider 13 urtegaz jo egin eban. Ikasi, aitarengandik egin eban, baina, besteengandik be bai *“euren etxeetan egozala, ezer esan barik, eh!”*

Gerra aurrean erromerietan jotzen eban, Arratian, Urkiolan, Durangon, Bilbon. Mitinetan be jo egin ei eban.

“Arratia” albokari taldea sortu egin eben. Albokariak hiru ziran, Jose Mari Bilbao, Leon Bilbao eta Gonzalo Urretxa (Gipuzkoarra, Madrilera ingeniari joan zana) eta 5 panderetera.

Gerra ostean gitxi, baina apur bat jotzen eban. “Batallón de trabajadores” dalakotik etxerako bueltan, oso gitxi ibili zan. Leon batu zan **Maurizia Aldaiturriagaz** (Zeberio, 1905–Artea,1988) 1964. urtearen inguruan, lehenengo bider Aretxabaletan jo egin ebela. Antzokietan eta hiletetan hasi ziran. Hemendik aurrera geratu bako ibilbidea egin eben, heriotzak eroan ebazan arte.

Gero **“Karakol”** –Mauriziaren senarra– batu jaken, jendeak eskusoinua eskatuta. Hau nekatu egin zan, eta gero **Bonifazio “Fasio” Arandia** (Igorre, 1909-1987) batu jaken. Hau hildakoan, **Basilio “Txiki” Undagoitia** (Ibarruri, 1907-1988).

Maurizia eta Fasio (eta Klaudia emaztea) erdi batera hil ziran (1987/8). Iztekotan egon zan Leon. Jendeak animatuta, alboka jotzen segitzeko asmoa hartu egin eban, *“putza amaitu arte”*. Alargundutakoan segitzen eutsen poztasunez, tristeziak inora eroaten ez daualako, baina andrea eta lagunak (Maurizia eta Fasio) ahaztu barik. Gero, Zornotzako Eduardo Egiarte soinuujotzaileagaz eta Felisa Arribalzaga pandero jotzaileagaz batu zan.

Mauriziagaz eta Fasiogaz 25-30 urte inguru egin zituan. Denbora horretan, 3.000 joaldi inguru egin ei ebezan, Euskal Herriko leku askotan. Madrilen TVEn, eta PCEn jai baten be (Santiago Carrillok zorionak emon eutsezan). Baita Frantzia be. Ameriketako deia euki ei eben, baina hegazkinari eutsen bildurrak oztopatu egin eban bidaia.

Gaitak edo kornamusak arnasa auspoan batzen dabe. *“Guk, barriz, presión de las alubias erabili behar”*.

Leon Bilbaok alboka sei diskoetan jo eban, honeexek konpainiak argitaratuak: 1975 (Herri Gogoia – Edigsa), 1977 (Kardantxa-Movieplay), 1978 (Bai eus-

karari zuzeneko emonaldia), 1979 (Xoxoa), 1985 (IZ, Juan Mari Beltranek grabatu eta zuzendua), 1988 (Elkar, Ruper Ordorikaren laguntzagaz). Jo zituan piezak jotak, porrusaldak eta martxak izan ziran. Honeen gainera, puntepioa be jo egin eban 1988.urtekoan.

### 3. Albokagilea

Aita hil zanean (1977an) hasi zan albokak egiten. Aurretik, aitari lagundu egiten eutson. Aitak esaten eutson zelan egin behar ziran. Halan da be, fitak Leonek egiten zituan beti.

– Alboka bat egiteko **3 egun** behar izaten ebazan, hau da 32-34 ordu, dana eskuz.

– **Adarrak**, behiarenak zein idiarenak. Hiru, lau edo bost urtetakoak. Behar-bada, seikoak be. Gehiagogaz, ihartu. Mataderotik eroaten ebazan. “*Eskufiña*”, kutxilla eta lija erabilten zituan adarrakaz.

– **Kainaberak** abenduko edo urtarrileko hilberan moztu egin behar dira. Gero, urtebete sikatzen itxi, hobe bi. “*Erreka barrenean dekoguz kaiñoberak. Neguko hilberan ebagi, hotz haundiena dagoenean, gogortu daiten*”. Luzera, 14,5 zm edo 15ekoa, zulotik zulora, gitxi gora behera, kalibre barik. Zuloak, untze beroaz egiten zituan.

– **Buztarria**, egiten eban pagoaz, untzurriaz, gatzainaz, gereziak. Aretxaz laga egin eutson egiteari. Brasilgo egurrak be erabili izan ditu. Plantilla eta taladroa erabilten zituan.

– **Fitak**, beti egin izan ditu. “*Mihiñe edo txapea*” deitzen eutson mihinari. Inoiz euki ditu 14 urtetan fite bardinek. “*Atzanengo beharra, fitak*”. Aitari, berak egiten eutsozan. Esaten ekian “*Nire paparreko uleak mundu guztian zehar dabiz*”.

– **Katea**.

– **Argizeria**.

Artisau azoketan sarri izan zan, standa albokakaz eukala. Estimazino haundia ei euken bere albokak.

Bere bizi guztian alboka asko egin ei ebazan. Urtean 40 edo 50. Inoiz, 70 edo 80.

Salneurriak: 2.500 / 3.000 pzta. (1978an); 5.500 pzta. (1985ean) –dendan 14.000-; 8.000 (1989an) eta dendan 24.000.

Goizeko zortzietan tailerrean sartzen zan egunero, albokak egiteko, eta aktuazinoetarako telefono deien zain.

### 4. Albokariak: eritxiak

– “**Jitano** “ **Aiesta** ez eban inoiz joten ikusi.

- **Amundarainen** piezak, berak lantzerik joten zituan. Eta beste askorenen artean, Pontxorenak.

- Ezagutzen zituan beste albokariei buruz galdetuta, honetxek aitatu ebazan: **Pontxo Orue, Iragorri, "Txilibrin", Alejo Etxezarraga, "Buztarri"...** Pontxok ondo kantatzen ei eban.

- **"Txiskero"** (sic) Hau be ezagutzen eban, nahiz eta besteek emoten eutsen maila emon ez.

- **"Txuskoa"** onena zan Leonentzako. Hau, seguruago, aitak esango eutson, ze Leonek 5 urte ebazanean hil zan Dimako Migel Larrinaga "Txuskoa".

## 5. Alboka mundua: eritxiak

### 5.1. Gerra aurrean

Herriz herri ibiltzen ziran. *"Albokari asko egoan orduen, Lemoan, Dimen, Zea-nurin, hemen da... lehen asko". "Urkiolan, A(ra)ntzazun, Billaron... plazan"*. Bizkaian albokarako afizino haundia egoan, batez be Arratian.

Edozein herritan entzuten zan alboka. Leku askotara joan zan jotera. Soinu-txikerra baino popularragoa ei zan alboka, bera gaztea zanean. Erromerietan gehien gehien alboka, panderoa eta soinu txikerra erabilten ebezan. *"Erromeria aparte, baserrietan be jotzen zan, etxean"*. Herrietako jaietara, batzuetan Arteako pandereterakaz eta hilandera dantzariakaz joaten zan.

*"Erromerietan ibiltzen zan. Gure denporan soinue / akordeoie jotzen zan. Albo-kea, jaietan ta, hasikerea emoteko. Dultzainea, metalezkoa, asko. Edo pandero edo atabalegaz lagundute. Txistue..."*.

### 5.2. Gerra ostean

Gitxi jotzen eben, 1960 urteetara arte. Luzaro ez eben izten alboka eta horrelakoak jotzen; trikitrixa bez, erromerietan. Gerra osteko erromeriak diferentek ziran, atzera lehengora ez eben jo.

Gerrako urteetan izan ezik, alboka jotzen ibili zan beti jai eta erromerietan, baita mitinetan be.

Baina, gauzak aldatu ziran gero. *"Arratian ez dago albokaririk"*, esan eban Leonek, mende azkenetan etorri zan albokari eza autortu gurarik. Beste baten, esan eban berak, "Txilibrin"ek eta Beltranek baino ez ebela alboka jotzen.

### 5.3. Erromeriak

Lehen basoan, ermitak egozan lekuan egiten ziran. Jendeak han denbora emon egiten eban, dantzan eta abar. Txakur haundia zan tokea. Musikarien eza-gunak edo tartekoak kobratzen ibiltzen ziran dantzarietara. Ardaia eta zerbeza eda-



ten zan. Jendea arratsaldeko lauretan hasten zan dantzan. Lehenago, errosarioa. Gero, Aimaritan (iluntzeko kanpaiak) etxera, iluntzen zanean. Noiz ilundu, kanpaiak orduan joten ebezan. Aimaritarako erretiratzen ez bazan jendea, fraileek eta abadeek sermoi gogorrek egiten ebezan, ez soinua joteagaitik dantza lotuan egiteagaitik baino. (Orain, meza entzun eta herrira bajatzen dira orkestinagaz dantzan egitera, Leonen berbatan).

#### 5.4. *Tranbian*

Zeanuritik Arteara tranbian hamabost minututan, gelditu barik, alboka joten sarri egin ei eban ostera.

#### 5.5. *1975/1990 sasoiko joaldiak*

Udan, egun baten, 3 bider jo egiten eben behin baino sarriago. “*Ta lau e(g)iteko abisua. Baina hiru lar da. Amaitu, goizeko lauretan*”. “*Parrandak, onak e(g)in doguz, eta jente asko ezegutu*”. Urtean 100 joaldi egiten ebezan (Udabarritik udaguenera, jaietan, ezkontzetan...). Urtean 80 ekitaldi egin zituan 72 urtegaz.

#### 5.6. *Alboka irakaslea*

Ikastera asko joan jakozan. “*Hona asko etorri dire. Nik ahalegiñak bai eh! Danari. Ikesi, ba... Gaztetxoak etorten dire, ta gero nobie edo, ta adios. Danak ezin dire eta*”. Inoiz esan behar izan eban bera alkate izan balitz, eskola sortu eta berak erakutsiko leukela. Leonek askori erakutsi izan deutse esku zabaltasun osoz eta sekula ez da ibili bere sekretuak gordetera. Gazteenganako joera positibo aitagarria izan eban. Galdetu egin eutsenean etorkizunean ea gazteak, onak ala txarrak izango ete ziran, Leonek “*hobeagoak*” erantzun eban. Hau be esan egin eban: “*Arratian ez dago albokaririk. Bilbon datoz albokariek, gazteak. Ondo yoten deurie*”. Gazteak aitatzerakoan, Joserra Fernández, Ibon Koteron –oso ontzat joten ebana–, Alberto Santamaria eta Jabi Santamaria izentatu ebazan behin.

#### 5.7. *Albokariak batera*

Inoiz albokari batek baino gehiagok batera joten baeben galdetuta, “*Albokari bi batera? Ez, aparte, erromerietan*”.

#### 5.8. *Panderoa*

Panderoagaz lagunduta joten zan gehienetan dantzarako. Inoiz bakarrik be joten zan. Panderoak Bilbon erosten ziran, Galiziatik ekarrita. “*Gure aitak inoz ifini e(g)in eutsen narrue*”. “*Gure arrebak [Segunda] be yoten eban*”. Bizkaian emakume asko ibili izan zan panderoa joten, sasoi baten Leonen berbatan. Berak Leonek be, panderoa ondo joten ei eban.

#### 5.9. *Leonen aniztasuna*

Pontxo Oruek esaten ei eutson “*Zure aurrean ezin lei yo, zuk belarria ifinite, dana ikasi*”. Leonek esaten eban berak danari kopiatzen eutsela, eta aniztasuna eukola

“Yo copio de todos y tengo variedad”. “Txilibrin empezar y acabar lo mismo”. Leonek esaten eban berak belarri ona eta afizinoa zituala. Esaten eutsenean “eres el rey de la alboka”, bere erantzuna behorrek dagozan lekuetan zaldi gazteak jaioten dirala eta batzuk, besteak baino hobeagoak izaten zirala. “Beti pieza batzuk, baina arteagaz”.

#### 5.10. Errepertorioa

“Jota, Porrue, Martxea”. Bakotxa, bere barianteekaz. Hiru pieza honeek beste albokari batzuek jotzen eben modura jotzen ekian, bardin bardin, euren ezau-garriak trebetasun haundiagaz erakusten zituala. Hau da, Amundarainek jotzen ebazan piezak, gero Oruerenak, gero “Txilibrin”enak... danak, bardin bardin. Hortik, uste dot, lehendik ekiazan hiru piezak jantzi egiten ebazala besteengandik hartutako zatiekin, berak asmatutakoekin eta doinuak bersortu, bakotxaren biz-pahiru aldaera desbardinekin. Aitak puntepioa kantatzen ei eban eta Leonek albokaz jo.

#### 5.11. Artzainak eta txilibitua

Leonek esan eban alboka artzainen soinutresna ete zan hori, kontua zala. Artzainek txilibitua jotzen ebela, sei zulokoa. Koteroni behin esan ei eutson “¿Pastores? Igual ni hablar con los pastores”.

#### 5.12. Gehien gustatzen jakon koplak

“Sasian txori larrosa  
Zeure berba hain donoza  
Sarritan emon deustezu  
Zeugaz egoteko poza”.

#### 5.13. Maurizia Aldaiturriaga (Zeberio, 1904 – Artea, 1988).

Hamabi urtegaz hasi zan panderoa jotzen Zeberion. “Bakarrik ikesi neuen dakidan apur hori”.

Lehenengo bider Zeberion Joakin Goitiri laguntzen jo eban. Geroago, ondorengo Zeberioko soinujotzaile honeetxei lagundu egin eutsen: Jose Rotaetxe, Juan Txapel, Benentzio...

Aita, panderojotzailea eban.

Leonegaz 1964. urtearen inguruan hasi zan.

Dardara hasi jakon 1986an eta laga egin eban. Baina, gero bueltatu egin zan. Azkenengo bider Lasarten jo egin eban –Leonek inoanez– Basilio eta beragaz. Izan leiteke urrian izatea, azken diskoa grabatu egin ebenean Lasarteko estudioan eta “aupá Lasarte” esan ebanean. Gero, udabarrian hil zan.

1988. urtean hil zan, Fasiogaz batera antzean. Baita Leonen emaztea eta Basilio Txiki be.

Leonek, Mauriziagaitik, hau esaten ekian: *“Panderojotzaile ona, ona, sano ona. Panderetera baktokak deko bere kantetako modue. Mauriziak gaztetan ikasitako kantak kantetan ebazan”*.

## **2. ELEZKANO URIBARRITARRAK**

### **INAZIO URIBARRI (1883-1958)**

#### **1. Bizitza eta albokaritzea**

Zaratamon bizi izan zan Inazio Uribarri Pujana, eta bertan hil, 1958an, 75 urte gaz.

Soldadutza Andaluzian egin ebala eta, Inazio **“Andaluze”** deitzen eutsen. **“Albokerue”** be euki eban izengoiti lez.

Bere lobei erakutsi egin eutsen alboka joten.

Graziano Lekue **“Txisperue”** gaz oso lagun zan, eta alboka kontuetan sarri alkarregaz ibilten ei ziran. Ikasi, norengandik ikasi egin eban ez dago argi, baina **“Txilibrin”** ek esan eustan behin uste ebala Alejo Etxezarragagaz ikasi egin ebala. Biak –Alejo eta Inazio– Diman jaiok zirala be esan eustan.

### **ELEZKANO URIBARRI SEI ANAIK**

Aita, Antonio Elezkano Mendieta, dantzari ona euki eben, eta osaba (amaren –Teodora Uribarriren– neba) albokaria.

#### **1. Jose Anton (1902-1994)**

Dantzaria. Panderojotzaile ona izan zan. Dultzaina be apur bat joten ekian.

#### **2. Bernardo (1904-2000)**

Dantzari ona izan ei zan. Alboka joten eban. Kantatazen nahiko abila.

#### **3. Tiburtzio (1906-1958)**

Albokaria eta panderojotzailea. Albokari parebakoa izan zan. Bere moduko gitxi egon ei da.

Bere anaia zan Txilibrinek tabakoak galdu ebala esaten dau. Edariak be kalte egin eutsan. Egun guztietan joten ei eban alboka, ordu luzetan.

Galdakaoko Alejo Gurtubai **“Barberue”** gaz, biak batera joten eben alboka, Juan Otxandiok esaten ebanez. Ikusgarria ei zan honeek biak entzutea.

#### **4. Jose (1908-1999)**

Panderojotzaile ona, eta albokaria. Dantzari aparta, harritzeko moduan dantzatan egiten ebana. Koplaria.

## 5. Benito (1910-1967)

Albokari ona eta dantzaria. Anaie-tan, Tiburtzio eta "Txilibrin" ziran albo-kari parebakoak. Beste hiru alboka-rietan, Benitok eukan maila altuagoa, "Txilibrin"en berbatan.

## 6. Silbestre "Txilibrin" (1912-2003)

Albokari eta albokagile famatua, dantzari onenetakoa, panderojotzai-le trebea eta kopla kantaria. Danbo-rra / atabala be jotzen eban eta dul-tzaina (burdinezkoa) piska bat. Dan-tza soltetik aparte, ezpatadantzaria eta aurrekularia be bazan.



Silbestre Elezkano "Txilibrin" albokaria (arg. Elez-kano)

## SILBESTRE ELEZKANO "TXILIBRIN" (1912-2003)

### 1. Bizitza eta Albokaria

Igorren jaio zan Silbestre Elez-kano Uribarri 1912-08-15ean, Ba-sauntzen. Esaten dabe Andra Mari egunean jaio zanez, jaiokeratik entzun ebala musika eta hortik jatorkola berezkoa. 2003.urteko garagarriaren 30ean zendu zan.

Sei urtegaz hasi zan dantzan, auzoan egoan Akilino Bikarregi soinulariegaz –Jose Anton anaiaren kintoa–. Alboka, hamabi-hamairu urtegaz hasi zan jotzen, bere osaba Inazio Uribarrik irakatsita. Plazan, alboka lehenengo bider hamabost urtegaz, soinua Fasio Arandiak eta panderoa Txato Castillok, jo eben.

Emaztea, Etxebarriko Karmen Basterra Goiri (1912-2001) izan zan eta hiru seme euki ebezan.

Barbero ibili zan, gerra aurrean. Oinetakoak konpontzen be baekian, eta horregaitik panderoei narrua aldatzen eutsen.

Musika aparte, arrantza eban afizino nagusia. Arrainkariak eskuz harrapa-tzen ebazan. Kainaberaz arrantzan, Bizkaiko txapeldun ordea izan zan 1979an.

Gerra egin eban. Gernikan suertatu zan bonbardaketa egunean (1937-04-26). Gero gartzelara joan beharra euki eban. Han egoala, Bediako Simon izena eban batek lortu egin eutsan alboka.

Gerra ostean, Galdakaoko Explosivos Rio Tinto izeneko dinamita fabrian hasi zan beharrean. Polizia ondorik ebala, Bilbora alde egin behar izan eban. "Euskalduna" untiolan hasi zan beharrean, kalderetero lanean. Lan hau dala

eta nahiko gortu egin zan, nahiz eta musikari sekula ez itxi. Alboka egunero jotzen izan dau.

Dantzari aparta, gitxiren modukoa izan da. Bizkaiko txapelduna hainbat aldiz izan zan, 7 urtegaz hasita aurkeztu egin eban bere burua jota txapelketetara, 1957ra arte. Aurreskularia eta ezpatadantzaria be bazan. Panderojotzaile lez, oso ona. Euskadiko txapelduna be izan zan 1972an. Atabala be jotzen eban, eta dultzaina apurren bat gaztetan. Etxean esegita eukan burdinezkoa. Balbinori panderoagaz laguntzen, Bizkaiko trikitrixa txapeldunak izan ziran 1971, 72 eta 74an. Euskal Herrikoak 1972an eta txapeldun ordeak 1973an. 1975ean Fasio-gaz batera irabazi egin eben Bizkaikoa.

“Txilibrin” izena, Silbestreren aldaera dala dirudi.

Dantza taldeetako maixu be izan da: Dindirri eta Beti Alai taldeena. Andra Mari taldearen inguruan be ibili izan zan.

Ameriketean –Hegoaldean eta Estatu Batuetan eta Canadian– zenbait alditan izana da.

Omenaldi bi egin deutsez, lehenengoa lurretan 1994. urtean eta bigarrena Bilbon 1998.ean.

Ezkertia izakeran, eskuak bestera ipinten ebazan, hau da, eskuma adar txiki-tik hurrago eta ezkerreko eskua adar nagusiaren aldean. Panderoa be antzera, eskumako eskuaz heldu eta ezkerrekoaz jo egiten eban.

“Txilibrin”ek alboka sei diskoetan jo eban, ondoren datozen argialetxeetan agertuak: 1960/70 (Unesco-Hispavox), 1971 (Columbia), 1975 (Columbia), 1980 (IZ, energia nuklearraren kontrako jaialdi baten zuzenean hartua), 1995 (Ikerfolk-Elkar) eta 1992 (Saga). Jo ebazan piezak: jota, porrusalda eta martxa. Honeen gainera, 1995.urtean grabatutakoan, *Amaia* izeneko “Alboka Soinua”ren aldaera.

“Euskal Herri Musika” [F. Larruquert, 1980] filmean eta “Dantza.Gorbeialdia” [Bolingozo, Galdakao, 1999] bideoan alboka jo egin eban.

## 2. Albokagilea

– **Hamabi urtegaz** hasi zan albokak egiten.

– **Adarrak**, mataderoan erosten ebazan. Ordu erdiz egosi eta barruko hazur-rrak edo naboak urten egiten deutso. Hiru-lau bider egosten eban biguntzeko. Gero fundagaz arteztu. Behi gorriarena zan gehien gustatzen jakona.

– **Buztarria**, lehen untzurriarena eta gero intxaur baltzarena. Adarragaz josi egiten eban tirafondoekin. Lehen egurragaz. Berak asmatu egin ei eban adar nagusia eta buztarriaren arteko hutsunea zabalik lagatea.

– **Tutu burdinezkoak** be egin zituan inoiz.

- **Fitek** (sic).
- **Haria**, kordelarena.
- Alboka egiteko 30 ordu behar izaten zituan.
- Astean bat egiten eban. Bere bizitzan, 2.000 inguru.
- Salneurriak: 4.500 pezeta berak, eta dendan 14.000 (1981).

### 3. Albokariak: eritxia

- **Anbrosio Gorostiaga**, Igorreko albokariaz galdetuta, hau esan eban: *“Anbros?, Ha zan onena. Herri danetan albokea yoten. Gu eskolara yoaten gin-tzezenean, orduen, baserriko etartean egoten zan albokea yoten”*.

- Igorren ze albokari egoan itaunduta, onik ez egoala esan eban (*“zaratea atara bai, afeziñoa”*). Baina, asko bai. Honexek aitatu ebazan, gehiagogaz ezin gomutaturik:

- Anbros;
- Tiburtzio anaia eta bera;
- motorrean edo kotxean hil ziran bi;
- Ameriketara joan zan bat. Bera, “Txilibrin”, Estatu Batuetako Idahon egon zanean, ibili zala haren aztarrenen atzetik, baina ezin izan eban ezer jakin;
- beste bat, “txikerra zana”.

**Tiburtzio** anaiagaitik hau esan eban: *“Bai bastante ona. Ona zan, baina lar edaten eban. Hainbeste erre izan ez baeban, oraindiño bizirik egongo zan. Panderoa be ederto yoten eban”*. Beste anaietan, **Benito** eban onena lez.

**Bernardino Zautua** be aitatu egin eban.

- Zaratamon, osaba, **Inazio Uribarri** “**Andaluze**” eukan. *“Ona zan. Txiskeruegaz [sic] ibilten zan. Panderoa yoten ez ekian”*. Inogaz ikasi egin ete eban galdetuta, *“Dimeko Alejogaz, be(ha)rbada”* erantzun eustan. Izan be, osaba Diman jaioa zala inoan, Alejoren herritarra, beraz. Baina, ez egoan seguru. Zaratamon, beste bi be ei egozan, baina izenak ahantzita zituan.

- Zeberion, **“Txiskerue”** [sic] hau da, **Graziano Lekue**. Oso ona zana. Bere osabagaz joten ei eban: *“gure osabeagaz ibilten zan”*. Beste egun baten galdetuta, ostera, hau erantzun eban *“beti bat, baina ondo yota”*. Beste baten *“Onena”*. Hau be esan eban: *“Albokak barregarri yoten euen, erdi txikerrak. Gaztetan ez neban ezagutu, gerratik ostean hil zan”*.

- Lemoan, albokari asko ei egozan. *“Lau edo bost”*. **Pontxo Orue**, *“trastoa zan”*, kariñoz aitatu eban. *“Asko ibili zan. Kartzelan egon zan.”* Arrañon anaia bi ei egozan, onak ziranak. Biek alboka joten ebela esan eban Txilibrinek. Dultzaina be joten eben. [Iragorritarrak, seguruago].

– Bedian: **Manu Barandika**, “*erdi albokarie*”. Bedian asko ei egozan “Txilibrin”ek inoanez.

– Zeanurin asko ei egozan “Txilibrin”en berbatan. Izenak bi emon zituan, **Sagarna** eta “*alkatea(re)n semea*” (**Goikoetxea**).

– **Leon Bilbaogaitik** galdetuta, “*Beti bat*”. Eta albokagile lez: “*Alboka ordinarioak*”. Eta aitagaitik –**Jose Mari Bilbao**–: “*bardine*”.

– Dima aitatuera, **Alejo Etxezarraga** esan eban, “*Ona* “. Beste egun baten hau esan eban: “*Torpea* “. Beste baten “*Yoteko, apur bat; eiteko, ez*”. Beste baten “*Ondo yoten eban. Baina gu baino zaharragoa zan eta itxi egin eban*”. Gehiago ez ete egoan, esanda, eta nik Eujenio Etxebarria aitatu, bere erantzuna: “*Na’, tie-ne que ser de clase.*”

– **Amundarain** aitatu eban, “*yo, ba, le(he)nakoa*”. Baina, ontzat eukan.

– Galdakaon, **Alejo Gurtubai** aitatu eta berak “*Barberue*” esan eban. “*Txarra zan. Apur bat ekian joten*”. Baita “**Jitano**” **Aiesta** be –kariño haundia eutsana– “*mediano, nahaste borraste*”. Juan Kruz Valle eta Juan Otxandioren izenak emonda, ez zituala ezagutzen esan eban, baina asko egozala esan eban Galdakaon.

– “**Txuskoa**” ontzat eukan.

– Areatzan ez eban ezagutu albokaririk.

– Arantzazuz itaunduta, “**Buztarri**” aitatu egin eban. “*Fuerte*”.

– **Gorrotxategitar**ak aitatuta, bere kontestazinoa “*Ez nebazan eza(g)utu. Yo, ondo, baiña beste klase baten*”.

– Beste batzuk: Joakin eta semea (artzainak), Agustin, Bengetxe...

## 4. Alboka mundua

### 4.1. Txapelketak

Hainbatera aurkeztu izan zan. Lemoan (1935); Galdakaon (1943); Zeberion, pandero barik (1953); Euban (1974).

Galdakaon postura egin eban bere hain laguna zan “Jitano” Aiestagaz 1964an. Galdu egin eban. Esaten eban “Jitano” bere herrian egoanez, horregaitik emon egin eutsela saria.

Beste postura bat egin eban, Dimatik Igorrera alboka joten jaisten.

### 4.2. Bi batera

“Jitano” Aiestagaz “*a duo* “ –biek batera– joten eben. Gazte gaztetatik egin ziran lagun.

1997ko karnabaletan, Bilboko Arenalean, bost albokari batera joten ikusi zituanean, hau esan eban: “*sekula eztoz hainbeste albokari batera joten ikusi*”.

#### 4.3. Talde Lagunak

Albokari lez, “Txilibrin”ek askogaz jo izan eban. Batzuekin edo besteekin, baina ia astero jotzen eban, eta sarritan astean baten baino sarriago. Ezkontzetan, herrietako jaietan, zaharrak alaitzen (“La Caravana de la Alegría” izenekoagaz, 1952tik aurrera)... edozelan. Bilboko Plaza Barriar Santo Tomas egunean sarri jo egin eban alboka. Aitagarrienak:

– **Balbino Ojanguren** (Fika, 1907-Bilbo, 1975), panderoa jotzen eban, “Txilibrin”eri albokari laguntzeko; eta gero, soinu txikia jotzen eban eta “Txilibrin”ek panderoagaz laguntzen eutsan. Alkarregaz, 1942tik 1975ra ibili ziran.

– **Bizkaitarrak**, Txilibrinek alboka eta panderoa jotzen zituan, Gillermo Etxebarria “Artxanda”k (1921-2000) panderoa, Manuel Leginak soinua eta Juan Karlos Roelek txaramelak.

– **Trikitrixa Bizkai**, 1985 inguruan hasi ziran, Imanol Arrola eta Tomas Uriarte.

Honez gainera, panderojotzaile moduan izan ditu: Romualda Zuloaga, Kontxi Urza, Maite Ugarte, Mari Karmen Hermosilla, Mari Anjeles Mendizabal, Arantza Olabarrieta. Lagundu izan deuten soinulari batzuk: Salba Ugarte, Marzelo Arrieta “Borlas”. Gazteagoen artean, Jabier Leiba, Martin Aginagalde,... asko izan dira beragaz batera jo dabenak. Azkenengo ibilitakoa beragaz, Joseba Uria albokaria zan.

Talde honeekin, “La Caravana de la Alegría”gaz –zaharretxeetara joan eta karitatezko lanetan ebilena– be jotzen eben. Eta ia larunbatero, Bilboko jantoki eta diskoteka baten egiten ziran ezkontzetara eta bazkari ostetara joaten ziran. Makina bat saio egin izan ditue aitaturako mundu bien inguruan.

#### 4.4. Erromeriak

Gerra aurrean, Galdakaon, Artetan, ELAk eraturiko jaialdi baten lau albokari batu ziran: Inazio Uribarri, Txiskerue (sic), Alejo (ez dakit bietatik zein) eta bera, “Txilibrin”. Erretratoa be atara egin eutsen, “*trapue ifinite, baina inor eze(gu)tu bez*”.

Upo mendiko erromeriei buruz itaunduta, soinulariak eta albokariak batzen ziralda iñoan. “*Txiskerue*” eta *osabea beti egoten ziran*. “*Jitano*” be bai batzuetan. *Urte baten Zeberion, bestea Zaratamon. Jentea, asko batzen zan. Hau galdute da(g)o*”.

#### 4.5. Batzarrak

Ea albokariak batzen ziran galdetuta, bere erantzuna: “*Albokariak ez zi(r)en batzen. Bakotxak berie*”. Zeanurin badino albokari bik batera jotzen ebela, Sagarinak eta Goikoetxeak. Albokari bi eta panderetera bi alkartzen ei ziran. “*Hil ziran biek gazterik*” [Sagarna 2003ra arte bizi izan da].



#### 4.6. Panderoa eta beste soinutresnak

Albokariak panderoa jotzen ete eban galdetuta, ezetz erantzun eban (Tiburtzio anaiak jotzen ebala esan eban). “Ez. Inok ez. Txikirri txikirri. Holan danak. Panderoak geuza asko dekoz ondo yoteko. Neu onena. Premioatan. Panderoa orain neuk be eztoz jotzen le(he)ngo moduen. Le(he)n, hainkak altzate”. Albokariak eta panderojotzaileak alkarrengandik metro batera egon behar dabe, “Txilibrin”en berbatan.

Bere berbatan albokariak, albokaz landa, ez eban beste soinutresnarik jotzen “Yo, albokea baiño ez”. Gorago, badino Irigorritarrek dultzaina jotzen ebela. Orokorrean, ez ebela besterik jotzen esan nahiko eban. Berak Txilibrinek panderoaz gainera, atabala/danborra jotzen eban, eta dultzaina apurren bat.

Erromualda Zuloaga ona zala inoan. Ondo kantatu eta panderoa ondo jo. Emakumeren bat bakarrik panderoa jo eta koplatan erromeria egiten ikusi izan ete eban galdetuta, baietz esan eban “Bai, barriotan, fiestetan, erromerien”.

#### 4.7. Albokaren tamainuak

Lehen albokak txikiak egiten ei ebezan. “Nik haundiek”. Bera da alboka handiak egiten hasi ei zana.

#### 4.8. Errepertorioa

Txilibrinek eukana jota / porrue / martxea. “Nik beste jota bat diferentea jotzen dot”. Gainera, “Amaia” izeneko pieza be jotzen eban, ‘alboka soiñue’ ren aldaera modukoa zana. Honetaz, errepertorioaz galdetutakoan erantzun bi oso garrantzitsuak emon eustazan:

– “kanta asko hemekoak, baina inok ez eban atara”.

– “beti jota, porrue eta martxea. Orain yo behar dana da «cansiones de euskalherria»”.

#### 4.9. Alboka ondo joteko

Esan eban “yakin e(g)in behar dira jotak, martxas, cansiones... Goizean Parisen, Akerra yantzan. Danak ixildu”.

Beste egun baten, hau esan eban: “Albokaren bersoak yakin. Bere bersoak atara ta kanteu. Yakin ezkeru soiñue”.

“Ondo yoteko, nota asko behar”.

“Ya se ha acabado alboka”.

#### 4.10. Albokaren ingurua

“Lehen ez zan albokarik jotzen. Baserrietan eta tabernean bai. Baina “fiestas vascas”etan eta holan ez. Gero etorri yako albokeari fama”. “Plazan, guk be

ezkendun yoten". Uste dot gitxitan joten ebela esan nahi ebala. Beste baten: "Zeanuriko plazan egundo eztoz yo, Lemoan baten. Igorren gehiago".

"Orduko denporetan (gerra aurrean) albokeak ez eukan hainbesteko indarrik. Albokea hemengo gerrea akabeu ta gero hasi zan indarra hartzen. Berrogetako urtetan hasi zan asuntue fuerte. Lehenengotan, gerra aurretik festibal guztietan yoten gendun, baina ez eukan hainbeste indar. Ta gero hasi ziran Dindirri (1945)... ta hor hasi zan albokearen zera. Gero beste grupo batzuk be hasi ziran, danak deituten eustien".

"Nire osabea, Igorreko eta Dimeko eta beste albokeruek, zaharrak zirean eta albokari gitxi geratu gintzezan. Asko, gerran be hil zirean ta guk segidu".

#### 4.11. Gazteak

"Zaratea atara baiño ez dabe egiten gazte gehienak". "Batzuk ondo yoten deurie".

"Koteronek albokea ondo yoten deu. Dultzaiñea be, yoten deu",

#### 4.12. Txapelketak / Batzarrak

la danetan hartu izan dau parte, danetan ez esateagaitik. Horrela, 1935, 43, 53, 64, 74 txapelketetan, eta 1967, 68, 75, 89, 94, 99 batzarretan edo albokari egunetan.

#### 4.13. Atzerriko ekitaldiak

"Txilibrin"ek Ipar Ameriketara, Estatu Batuetara eta Canadara, hiru joanaldi egin zituan. 1967an hirurogei ekitaldi egin ebazan Olaeta taldeagaz. Hurrengo urtean, hogeitahiru estatuko 64 uritan. 1970ean, hirurogei ekitaldi egin ebezan.

Honen aurretik, 1954an, Beti Alai taldeagaz European barrena ibili zan alboka joten Monako, Erroma, Cannes eta beste toki batzutan. Geroago, Bodelera, Wale-sera...

1987an Hego Ameriketara hasi zan joaten. Hiru ostera (1987, 1989 eta 1990ean) egin zituan Argentina, Txile, Uruguai, Paraguai eta Brasileria.

Bidai honeetara zenbat alboka eroaten zituan itaunduta, hau esan eban "Asko, saltzeko. Yoteko, bi, badaezpada".

## **EUJENIO ETXEBARRIA (1920)**

### **1. Bizitza**

Eujenio Etxebarria Arroita, Dimako Santuru baserrian jaio zan 1920. urteko zemendiaren 6an. Dimatik ordu beteko bidean, eta Igorretik ordu biko bidean dago. Aita Dimakoa zan, baina aitita Zeanurikoa. Bere aitak behorrak eukazan



Manu Gojenola eta Eujenio Etxebarria (arg. J. M. Beltran Argiñena)

Goibialdean, eta aparte, lau-bost zekor eta ahuntzak. Bederatzi neba arreba ziran (mutila, gero bost neska, gero mutila, gero Eujenio eta gero beste mutil bat). Baserrira, arreba bat ezkondu zan. Gaur egun, bederatzietatik, Eujenio baino ez da bizi. Arrigorriagan bizi da.

Bera da alboka joten eban bakarra. Aitak zekorra hil, eta Jose Mari Bilbaok haren adarrekin egin eban alboka, Eujeniok hamairu urte ebazala. Eujenio 41eko kintoa zala, gerra amaitu eta zazpi urtetan *soldaduzkea* egitea tokatu jakon (Logroñon, Ceutan...).

Lanbidea, arrantza eta ehizarako tresnak (itsasoko sareak, eskopetak...) eta beste gauza batzuk egiten, egiten izan dau beharra tailerlean, hiru-lau behargin ebazala. Produktu batzuk berak asmatutakoak ziran, gizon ideosoa eta sortzaila da eta. Espainia guztia egin dau kotxez, lan komertzialak egiten, baita balear eta kanariar irletan be.

Zaldibarrera joan zan beharrera harrobietara eta han urte asko bizi izan zan, eta bertako alaba dan Eurne Garitazelaia ezagutu. Ezkondu eta sei ume ebezela, Arrigorriagara joan ziran eta han zazpigarrena jaio. Zazpi semealabetatik, sei bizi jakez.

Azken albokari eta albokagile tradizionala da. Gaur egun, bera baino ez da geratu. Baina, albokari tradizionaletan, beste batzuek bizi zirala be, lagata euker jotea edota egitea eta Eujeniok bietan jarraitu izan dau.

## 2. Albokaria

Herritarra eban Leon Artabe, bera baino zortzi urte zaharragoa zana, alboka joten hasi zan. Eujeniok hamabi urtegaz nahi izan eban joten ikasi. Dimatik Urkiolara lagun aldra haundia joaten zan: ezpatadantzari talde bi, tanbolinteroak, hamabi panderetera inguru (zortzi eta hamabi urte bitartekoak), eta albokaria, bera.

Leon Artabegaz hasi zan ikasten. Leon Artabek “Goazen Arteara” esan egin eutsan. Leon Artabe, Leon Bilbaoren lagun haundia zan. Jose Mari Bilbaok Leon biei eta Eujeniori erakutsi egin eutsen alboka joten. Dimatik Arteara, oinez, menditik joaten ziran Bilbaotarren etxera, alboka joten ikastera.

Eujenioren lehen albokak Jose Mari Bilbaok eginikoak ziran. Inguruko askorentzat albokak egiten zituan. Leon Bilbao, aita hil eta gero hasi ei zan albokak egiten. Leon Bilbaok hamasei urte ebazan Eujenio bere etxera joaten zanean. Hiruei erakutsi eutsen Jose Marik. Domeketan izaten zan, ze beste egunetan tranbiako trenbidean egiten eban beharra.

Behiak jagoten, joten eban alboka Eujeniok. Baita kortan eta basoan be, ze bere amak ez eban gura izaten baserrietxeko geletan jotea. Ganadoari musika gustatzen jakola dino Eujeniok. Alboka bi egin zituan hamairu urtegaz.

Bere burua entretenitzeko joten eban alboka Eujeniok. Albokak, barriro be, beharretik erretiratu zanetik –Leon hil zanean–, egiten ditu.

Erabili zituan albokak: lehenengo Jose Mari Bilbaorenak, gero berenak (2), gerra ostean Leon Bilbaorenak eta gero berenak. Edurne emazteak esan ebanez, “*umiek albokie apurtu e(g)i(n) (eu)tsen*”.

Dultzaina be beti gustatu izan jako, baina ez eban ikasi. “*Gure izen neuen ikisi, baña e(z)neukan nok erakutsi. Gero eze(gu)tu nebazan Mañariko... eta Bediako Juan... Aiesta... eta Bituriekoko Coppi. Ondo yoten deu, hak emon be e(g)in y(eu)ostan duntziña txikerra*” [txanbela]. Herriko Patxi Bilbaok, “*txapasko*” dultzainea yote(n) eban”. Urrunetik entzuten zan.

Ez daki soltean dantzan.

Semealabatan, ez dau batek be alboka joten. Alaba batek, barriz, pianoa, kitarra eta txalaparta joten ditu. Hiru semek oso ondo kantatzen dabe.

## 3. Albokagilea

Hamairu urtegaz hasi zan albokak egiten. Lehenengo, esan dan moduan, Jose Mari Bilbaok egin eutsan, bere aitak saldu eta hil egin eban basoko zekor baten adarrekaz. Eujeniok ez eukan ez taladrorik eta ez ezer, hasi zanean gartzetan.

Tailerrean, jubilatatu danetik dabil albokak egiten. Leon Bilbao hil zanean hasi zan albokak egiten. Ez eukan erremintarik. Adarrak mataderoko behargin baten

bitartez lortzen ebazan, baina gero hil egin zan. Paseatu eta albokak egiten ditu. Tailerrean egin, eta etxean hamar-hamabi erreserban daukaz.

Saldu egin ditu Euskal Herrian, Ameriketara, Ingalaterrara, Frantziara.

Azoketan ez dau parte hartzen, izan be, berak bakartadea eta nasaitasuna behar ditualako albokak egiteko.

– **Buztarria** egiteko plantilla erabilten dau, taladroa, tornilloa eta lima bizarrak kentzeko, bardintzeko. Egurra, pagoa beti. Orain urte gitxi hasi da EE [Eujenio Etxebarria] iminten buztarriaren beheko erdiko aldean.

– **Adarrak** artezteko takoa. Eta beheko zulorako burdin txikia –plantilla modura–.

– **Kainoberak** [sic] iparraldeko Saran –seme bat bizi jako han– hartzen ebazan. Leon Bilbaok, ostera, etxetik urran eukazan kainoberak. Tutuen neurria be hartu eban arotzen kalibre bategaz.

– **Pitak** [sic]: tornilloan ipini kainobera, serra txiki bategaz ebagi eta kuxtilo txiki bategaz mihina atara. Pitak ez ei dira atara behar albokatik. Bera hamar urtez ibili zan pita bardinekin, sekula atara barik. Piten neurriak hartzeko diametro desbardineta tramankulotxo polit bi ditu, bakotxa bost edo sei kainoberazko biribilekin, berak asmatutakoa. Gizon ideosoa izan da. Bere berbatan, “e(g)in behar”.

– **Argizaria**, eskuagaz ipini behar da, eta gero lima edo kuxtilloagaz pasatu.

Alaba batek inoiz **diapasona** eroan izan deutso baina berak “*nik, horrelako katxarrorik etxoak etxean euki be e(g)in gure*”.

Albokagile barriak be ezagutu ditu: “Coppi”, Beltran, Osses, Atxa, Kanpo.

#### 4. Albokarien gaineko eritxiak eta ezagupideak

– Lemoan, “**Pontxo**” **Orue** bere bigarren lehengusua eban. Pontxo, Eujenio baino hamazortzi urte inguru zaharragoa. Afrikan egin zituan hiru urte eta erdi.

Pontxoren aita, **Juan Bautista Orue**, be albokaria zan. Ladrilloak edo egiten ebazan Boroan.

Eujenioren aita, Etxebarria Orue zan deiturez. Gizon batek, Ramon izeneko bost besotako izan ebazan, eta euren artean, Pontxo eta Eujenioren aititak egizan.

Pontxo gerra aurrean “*leku askotan ibilli zozan, sasoi baten erromeri guztietan. Orduen erromerietan danok yoten gendun*”. *Linoa* –amukoa– erabilten eban *pite-tan*. Galazota euki egin eben, alboka ez joteko. “*Arrebea, kartzelan egon zan*”.

Lemoan “beste satellite bat be bayegoan ba albokea yoten, baina ez dakit ize-na”. Beste egun baten, “Lemoan bi edo hiru yegoazan” esan eban.

Pontxoren anaia, Mateo, bizi da Firestone parean, Arkotxan, “Dinamita”tik ezkerretara, errekaondoan.

– **Alejo Etxezarraga** ezagutu eban, baina ez ei eban entzun joten. “Alejo (bere herritarra) orain nik neure moduan edo yoko eban, urtean birritan edo”. Zaharra zanez, alboka itxita ete eukan ordurako.

– **Juan Lekue**. Herritarra eta kintoa. Eskolan, bera eta Eujenio mahai baten jezarten ziran. Joten ez ekian ondo, edo gitxi. Administrazioan edo egon zan beharrean txofer (Juan Otxandiok inoan biak ibili zirala Transportes Urrutian, geroago). Gero, taxista Bilbon.

Leonen alboka batzuk eskatu egin eutsazan Eujeniori. Gero handik denborara Eujeniok esan eutsan “albokak noz altzatu bier juadaz ba?”. Lekuek: “kotxe-an jeukadaz eta hartuik”. Bat desmontatuta eban, zelan egiten zituan ikasteko. Dana dala, “alanbre fine eta linoa be iminten eutsien”.

**Jauregi** izeneko euren beste kinto bat be ibili zan alboka joten ikasi nahirik.

– **Leon Artabe**, hau be Dimatarra (1912-1996, “Txilibrinen kintoa”). “Hasi zan Jose Mari Bilbaoren alboka bategaz ikisi gurerik. Baiña geuza gitxi”.

– Elezkano-Uribarritarretan, **Tiburtzio Elezkano** ez eban joten entzun inoiz. Ezagutzen ete eban galdetuta, “gitxi, gitxi” erantzun egin eban.

“Txilibrin” dantzari onenetakoa zan. Alboka aparte, panderoa ondo ondo jotekian, eta kantatu be ondo. “Txilibrin”ek berarekiko begionik ez eukan. “Txilibrin”egaz bere bizi guztian berba hiru-lau bider baino ez eban egin. “Txilibrin”ek ez eukan Eujenio aintzat, eta seguruago, horregaitik, hiruzpalau bider baino ez eben egin berba. Baina, esan behar da, “Txilibrin”ek orduan (1971tik 1990. urte ingurura) eban konpetentzi bakararra albokarietan, Leon eta Eujenio zirala.

“Txilibrin” asko goratzen dau Eujeniok, bai dantzan, bai panderoa jotekian. Beregaz egon zan aldi bakarrenetakoan, martxan nota batzuk aldatu behar zituala esan egin behar izan eutsan “Txilibrin”ek. Eujeniok goraitatzen ditu “Txilibrin”ek, bere taldeekin –Bizkaitarrak, eta abar– egiten ebezan saioak “ha zelakoa ataraten eben”. “Onak ziran”.

Talde horretatik, Gillermo Etxebarriak [Gillermin, Eujenioren berbatan] sarri jo egiten panderoa eban Eujenio gaz. Gainera, Legina Eujenioren lagun handia zan.

“Txilibrin” ferietan be aurkitu eban inoiz, Deustuan bai behintzat. Erretra-toa atara egin eutsen Mariano, “Txilibrin”, Lekue eta Eujeniori. “Txilibinek ez ekian buztarrie e(g)iten. Balbino arotza zan eta harek e(g)iten eurion, ferietan

*pitak [sic] e(g)iten egoten zan. Horregatik zan famosoa, eta farola. Baina ez ekian alboka osoa e(g)iten*". "Txilibrin"ek eta Leonek ia hartuemonik be ez euken.

Anaia kojoa, **Jose**, oso ona zan dantzan eta kantatu eta bertsoetan be egiten ei eban. Taberna eukan Urazurrutian dino Eujeniok. Beste anaia batek, "*Galdakaon bizi danak*," alboka ondo jotzen ei eban [**Bernardo**].

"*Bost-sei anaie zoazen*". Zeberiko baserri batera ezkondu zan bat. Jose ta "Txilibrin"ek, alkarregaz dantzan egin eben han taberna baten, akordeoiagaz.

**Inazio "Andaluze"**, ezagutzen eban, baina sekula ez eban jotzen entzun. Haren semea ezagutzen dau.

- "**Andoni Goikoetxea?** *Hori Zeanuriko alkatea(re)n semea izanikoa izango dok? Anaia abadea eukana? Hil zoan abadea, ala bera?*". Gero, beste bat *pastorea* be baegoala Zeanurin esan eban, baina izena ez ekian. Basilioren [Etxebarria] izena be emon eban [baina dultzaineroa baino ez ei zan]. Bere senidea zana. Bere osaba Ramon, pastorearen suina zan. Beraz, Zeanurin baekian albokari bat egoala, Errepublikako sasoian alkate izan zanaren semea. Artzaina, seguruago **Amundarain** zala. Sagarna ez dau ezagutzen, izenez baino.

- **Jose Mari Bilbao** kapataza zan tranbia bidean. Eskubeharrean abila. Ingu-rukoentzat albokak egiten ebazan. **Leon Bilbao** gizon ona ei zan. Bere emaztea eta Eujenio lehengusu-lehengusinak dira, Etxebarria aldetik. Leonen aita-ginarreba eta Eujenioren aita anaiak ziran. Leonen emazteak gaztaiak egiten zituan, Edurnek dinoanez. Seme bi eta alaba bi euki ebezan. Sarri batzen ei ziran Eujenio eta Leon emazteekaz batera. Leoneri albokak saltzen eutsazan iparraldean. "*Leonen arrebak panderoa yoten deurie, eta eurok irakutsi e(g)in eutsien Dimako neskei*". Berak Leonek be jotzen eban panderoa, baina "*nausitena ikesite*".

- "**Jitano** **Aiesta**, "*Usansolon*". Eujenio hamabi hamairu urtegez Igorreko Marianistengana joaten zan. Igorreko Andramarietan hango lagunekin batu zan eta hango barria dan Gezalara joan ziran (Lemoarantza). Orduan, Igorretik Lemoara joateko bide bakarra zan. Taberna baten "Jitano" alboka jotzen egoan kuadrilla bategaz -panderojotzaileak be baegozan-. Gizon sendoa zan, "*bibote haundiekaz*" [sic]. Eujeniok alboka eskatu egin eutsan. Ordu laurdenetik ordu erdira egin eban Eujeniok jotzen. "*Altzau*" egin ebazan *pitak*, "*baju yeuazen, da*" eta atzera emon eutsanean alboka, ezin izan eban jo "Jitano"k. Eujeniok, bada-zepadan, haren hasarrea ikusita hanka egin eban.

- "*Areatzan albokaririk? Ez, danak karlistak*".

- Ez ditu ezagutzen edo ez da gomutatzen honekin: Txisperue, Barandika, Alejo Gurtubai, Juan Otxandio, Irigorri (izenez, ze badaki Lemoan gehiago zirala), Sagarraga, Juan Kruz Valle...

## 5. Alboka mundua

**Erromeriak.** Erromerian, Lemoan eta Artean, Pontxo, “Txilibrin”, “Jitano”k eta berak jo egin eben.

Hamalau urtegaz jo egin eban erromerian, lehenengoz.

Dimako ermitetan, erromerian, tanbolinteroak, dultzaineroak, panderojotzai-leak eta albokariak egoten ziran.

Erromeri guztietan, sasoi baten, txistu eta tanbolina. Albokak be, leku askotan. Panderoagaz. *“Panderoyotzaille asko yegoazan”*.

Erromerietan korroak egoten ziran. Baten, soinujotzailea, bestean tanbolinteroa, bestean albokaria, bestean dultzaineroa, bestean soinujotzailea, eta kobratu egiten eben. Gero, orkestrak hasi ziran.

Erromerietan kobratzea: tanbolinteroek herriak kontratatuta; *“guk ez giñoan kobretan”*; dultzaineroek eta soinulariek, korruan batzen zana. Korruak ziran kobratzeko lekua, txakur haundi bat edo bi. Erreal bat. *“Guk zer e(g)ingo giñoan ba?”*. Diman San Pedrotan, korroak egozan, baten tanbolinteroak, bestean dultzaineroak, akordeonistak bi edo hiru, bakotxa bere korroagaz; albokariak eure-nagaz. Plazan? *“Bai bai, kuadrillan”*. Gerra aurrean erromerietan, Diman jotzen eban. Beti panderojotzaileagaz (hobeto esanda, jotzaileekin, hiru lau eta gehiago be izaten ziran).

Gerragaz, dana desagertu ei zan.

Dimatik Urkiolara eta Dimako barrietara joaten ziran zazpi zortzi panderetera, soinulariak, dultzaineroa. Oinez, zortzi edo hamar kilometro.

Batzokiko jendeagaz, Urkiolara be joaten ziran autobusean dantzariak, txislulariak, panderojotzaileak, eta bera albokaria.

Erromerira Urkiolara *“herri bakotxetik kuadrilla haundi bat yoaten giñan. Dimatik zortzi edo panderetera eta ni albokeagaz eta beste asko. Alboka, pandero, dultzaiña, soiñu txikerra, nausie, txistue be... danetarik, danak egoten ziran, bakotxa leku baten”*. Urkiolako jaietara herri bakotxeko batzokian antolatutako taldeak joaten ziran. Iurretik [sic] bardin, Txilibrin tarteko zala. Bardin Areatzatik, Castillo Elejabeitiatik, Zeanuritik (*“Alkatea(re)n semea zan albokarie eta txistularie [sic]”* –Andoni Goikoetxea–), e. a.

**Gerra ostean barriro plazaratu.** Gerra amaitu eta joteari itxi egin eutson Eujeniok. Galdakaon Mariano Barrenetxeak antolaturiko batzar batera joan zan, eta gogoa etorri jakon, barriz hasteko. Plazan 1971. urtean hasi zan. Toki askotan jo egin eban alboka, orduan egiten ziran soinu tresnen erakusketen barruan eta baita musika festibaletan be. Bizkaian leku askotan ibili izan zan. Panderojotzaile lez, Guillermo Etxebarria eroaten eban. Brusaz jantzita eta joan egin behar izaten eban.



Sasoi baten, Gipuzkoara larunbatero, festibaletara joaten zan. Deustuan, Gillermin Etxebarria altzatu eta eroan, eta ekarri. Hernanin, Lazkaon, Beasainen... Kantariak (Lete, Laboa eta abar) eta bertsolariak be ezagutzen zituan (Lazkao Txiki...). Nafarroan, Araban eta Ipar aldean be jo egiten eban. Leon Bilbaoren albokak jotzen zituan orduan. Donostian, urtean birritan jotzen eban, Gillermo Etxebarriak lagun-duta. Baten baten, Primi Erostarbek. Abuztuan eta irailaren zortzian jotzen eban. Inoiz bi-hiru hilabete jende aurrean jo barik egin zituan. “*Cuando sale*”.

**Errepertorioa:** jota / porrusaldea / martxea.

**Galdakaoko batzarrak.** “*Baten, Marianok deituta batu gintzezan*”. Galdakakoa? “*Bai harean*”. “*Ni orduen gerra ostetik erdi itxita nenbillen albokeagaz. Aita Donostia be bayegoan*” [J. Riezu].

**Upomendi.** Sekula Upo mendiko albokarien batzarretan egon bakoa.

**Tamainoa.** Zaharrek, antzeko albokak –tamainoan– ebezala dino Eujeniok.

**Estiloa.** “*albokea danok bardin ezkendun yoten, bakotxak bere geuzak sartu eta kanbieu piezak*”. “*Danok diferente yoten genduan*”. Leonek behin esan egin eutson, hil baino urte batzuk lehenago, nabaritzen jakola aitaren ikaslea zala, joteko moduan “*zuk, aitaren modure*”.

**Albokaren garrantzia.** Eujeniok esaten daki “*le(he)na(g)o albokeari inportantzirik bez, albokarik da(go)uenik be*”. “*O(rai)n, hartu dau zera*”.

**Panderoa.** Albokari zaharrak jotzen eben panderoa? “*Ez, Txilibrinek bai. Besteak ez*”. Hazparrenen jo egin eban Motrikogaz, orain 20 urte. Kainaberagaz? (panderoaren ordezt) “*Ez, sekula eztot ikusi*”.

**Kolkoan** eroaten ebezen, ez galtzeko, *pitak*. Eta ez desafinatzeko esan behar da.

**Batera.** Bi edo hiru albokari batera? *Bakarka*.

**Adinak.** Albokarien adinak ondo kontrolatzen ditu: Leon Bilbao, bera baino lau urte zaharragoa, eta Pontxo, 18. “*Txilibrin*” eta Artabe kintoak zirala be badino.

**Artzainei buruz** galdetuta, Bilbaotarrak baserritarrak ziran, Pontxok ladrilloak egiten zituan; bera Eujenio ez ei zan pastore ibili, etxetik kanpo.

## JUAN OTXANDIO (1927-2000)

### 1. Bizitza

– Galdakaon jaio zan 1927an, Usansoloko Artetan, Juan Otxandio Gómez.

– Ezkondu egin zan Kresentzi Loroñogaz, Larrabetzuko Berrezoaga izeneko etxera eta auzora. Hiru alaba eta semea euki ebezan.



Juan Otxandio Manu Gojenolarekin Larrabetzun (arg. J. M. Beltran Argiñena)

- Kamioi txofer beharrean ibili izan zan.
- 2000. urteko garagarrilaren 7an hil zan.

Juan Otxandioren alargunaren berben arabera, Berrezoaga etxeak emon eutson Larrabetzuko herriari bere nortasuna, eta Larrabetzuk Gernikari, Goikolejean.

## 2. Albokaria

Lehenengo alboka bere herrikide eban **Alejo Gurtubaik** emon eutson 12 urte zituala. Ordurako, baeukazan 70 urte alboka horrek. Oraindino han Larrabetzun dago hori alboka hori, adar haundia aldatuta badau be “*Galdu ein zan hemekoa, ta hau neuk ein notzon*”.

Ardi eta ahuntzen zain zortzi urtegaz hasi zan. Basoan egoala jotzen eban alboka. Halantxerik ikasi egin eban, basoan bakarrik, ekin eta ekin.

Lehenengo alboka 14 urtegaz egin eban “*hamalau urtegaz, untzurriegaz*”. Urte askotan horretxek alboka biak erabili zituan.

Soldadutza Burgosen egin eban eta hara be eroan egin ebazan alboka biak, eta ahal izaten ebanetan jotzen eban.

Kamioian ibili zan urte askoan. Enpresetako baten –Transportes Urrutian– Juan Lekue albokarietegaz egin eban lana. Albokak lagata zituan. Lanetik erretira-

tu zanean heldu egin eutson barriri albokak egin eta joteari. Eskumako eskuko erdiko hatzamarra gatx mogiten eban istripu baten ondorioz.

*(“Urte askoan itzite. Orduan nik albokea(re)n zera ez dot euki. Jubilau artio, nire albokak egon dire erretiraute. Kamiñoan ibili naz urte askoan, akordau bez albokeagaz. Kamioak apartetan, urtetan da urtetan. Jubilau ta gero, albokea e(g)in bi(har d)ot ta jo e(g)in biot. Gero hatzamarra gaz jo be ezin e(g)in. Le(he)na(g)o yoten neban politxo nik”. “Larrabetzun entera(t)u zi(r)en berandu, albokarie ni(n)tzala”).*

Behin hasi eta gero, alboka asko egin ebazala esaten ekian, batzuk saldu eta beste batzuk emon. (*“Niri alboka asko eroan deustiez. Alabaren eskolara, 30 baino gehia(g)o”*).

Leonen alboka bat be erosi egin eban. Fitak aldatuta zituan.

Osaba dultzaineroa eban, Frantzisko Otxandio, Bediakoa. Igorren bizi izan zan eta “Gaitero” esaten egiten eutsen. *“Gazterik hil zen”*. Aitaren anaia zan, burdinezko dultzaina eukan (*“burdiñezkoa”*). Plazan, erromeri baten, batek nahaste borrarastea atara ez pagatzeko, eta belarria kendu egin eutson dultzainagaz jota.

### 3. Albokagilea

– **Kainabera**, bere baserri ingurukoa erabilten eban. Ahal zala, neguko hilberan moztu egiten eban. Zuloak, untza bategaz egiten ebazan. *“Untze bategaz; taladroaz, brokeaz ta eiteko zabaldu, apurtu eiten da kaiñaberea. Ezteu balio, untzeak ixen behar deu”*. Kainaberaren luzera: 13 zentimetrotakoa (*“Leon, Alejo [Gurtubai], danak hor dabiz”*). Lehenengo zulotik azkenengora: 9,5 cm. Barruan: 7,5 mm, gitxi gora behera. Zuloa, 4 edo 4,5 mm, *“horrenik, neurrie hartu bez”*. **“Argizerie, be bai”**.

– **Adarra**. Bilboko mataderoan lortzen eban. Okerra bazan, egosi eta tornilloan arteztu. *“Adar okerra egosi. Bero bero dago(a)la sartu moldean. Egurre sartu. Asko, bota. Piskabat dekona fazille da. Da asko dekona, holan, holan dauena, ha da gatxa. Adar ona, mehia, hemen material gitxi dekona. Ostantxean...lodi, lodie, ha gatxa. Gero be, komediek egoten dire haregaz”*. Adar ontzat meheak ziranak joten zituan. Ez lodi lodiak. *“Adar haundie ezta pratikue, eztau soiñu haundirik ataraten”* Gero kristala eta li jagaz bardintzen zituazan. Adarrak, kolore gorrikoak nahiago ebazan. *“Niri gustau, adarrak, gorriek”*.

– **‘Buzturrie’** [sic], kutxilloaz eta taladroaz landu. Egurra: gerezia, gaztaina, untzurregaz. *“Gaztaiña, intxurre, kerixea. Paguaz eztot e(g)in inoz be”*.

– **Fitak**, *“fitie ondo ifinita”*.

### 4. Beste albokariei buruzko ezagutza

Albokari tradizionaletan Otxandio gazteena zan. Horri esker gerrarik ez eban egin. Hori dala eta, albokarien ezagupide haundia dauka, ze bera baino zahar-

txoagoak ziranak-ondo ezagutzen zituanak- frentean edo gartzeletan egozan bitartean, berak horreen aurreko belaunaldikoak nahiko entzun eta ondo eza-gutzeko aukera euki eban.

Izenak inoiz sujeritu egiten bajakozan, eta berak ezagutu ez, hauxe esaten eban: “*Danak ezin eza(gu)tu be. Mutikotan, orduen, gaurko modure, ez gint(z)en ibilten. Basoan baiño besterik. Ta basora... zuek hona etorten ziñen, ta beste batzuek haruntz. Ezkiñen juntetan danok batera*”.

Gainera, beti aitatzen dan esparru geografikoa zabaldu egiten eban, beste toki batzuetan be albokariak egozala esanez: Ubidea, Otxandio, Orozko eta Billa-rréal (Legutiano) –Araban– aitatzen zituan beti.

“*Otxandion, bai, egon zien albokariek. Da Billarrealen. Ubidean, **Olanotarrak**. Billaron, bai, albokariek egon dire. Zeanurin, hainbet. Basoan da Zeanurikoak, Gorbeire da... Zeberion be bai, handik aldetik, Orozko aldetik. Orozkon be bai, albokariek. Izenakaz ni neu enaz akordetan baiña...*”.

“*Albokariek, han-hor-hemen, han-hor-hemen egon dire, gehia(g)o be, gehia(g)o be. Klaro. Batzuk za(ha)rrak. Nire aldean za(ha)rrak ixen di(ra)nak eta. Ni ya, hortik ibili barik eta. Ondiño ibilteko gaztea ta erretira(tu)te egon di(ra)nak. Bai, egon dire albokak, bai*”.

“*Dultziñeruek, ez zi(r)en hor asko. Arratia aldean, zenbat dultziñeru euki(e)ben ba? I(g)orren, nire osabea, Bediakue, ta listo. Txistulariek, bai*”.

Herririk herri ze albokari egoan itaunduta, hau erantzun egin eustan:

- Galdakao. **Alejo Gurtubai** (“**Barberue**”, “**Periodiste**”).
- **Juan Kruz Valle**, hau be Galdakaokoa, Alejo baino apur bat gazteagoa.
- Migel Larrinaga “**Txuskoa**”, bere herrian bizi eta bera jaio baino lehenago hila zanaz galdetuta, “*Bekekoa zan* “ erantzun egin eban.
- Lemoan? **Iragorri**, *Arroñokoa, gerran hil zan*. Hau oker dagoala dirudi, ze Benito eta Simeon asko geroago hil ziran. Berak, halan galdetuta, beharbada Anjel edo Gillermo izan leitekela esan eban. (“*Benito barik, Simeon. Ez. Simeon urte asko harotz ibilli zan. Gerran hil zana, albokari ona. Nik hamar urtegaz eza-gutu neban. Gillermo ez, Anjel... Benito... Haren anaie, Anjel, nire izekogaz ezkon-dute. Simeon, ez. Iragorri, Arroñokoa, gerran hil zana. Ona. Albokea yoten, ondo*”). Sagarragaren izenik ez eban sekula entzun.
- **Pontxo Orue**, Lemoakoa (Ildefonso Orue).
- Bedia. “**Jitano**” **Aiesta**, “*Bediakoa, Barrankolobokoa*” (Antonio Aiesta).
- **Manu Barandika**, “*Bediakoa, Zeatakoa, Ereño ondoan*”.

– Zaratamo. **Inazio “Andaluze”**, *“Txilibrinen osabea, Za(ra)tomokoa”* (Inazio Uribarri). Ondo ezagutu eban.

– Zeberio. **“Txisperue”**, *“Zeberio ganekoa”*.

– Zeanurin **Amundarain** (*“semea Larrabetzun bizi jakona eta bere albokak dituana”*), **Sagarna** eta **Goikoetxea** –*“Errepublika denporatako alkatea(re)n semea”*–.

Gorbeian, gehiago egozala esaten eban, euren artean Basilio (Etxebarria. Dultzaineroa, bazan. Baina albokaria ez nago seguru, nahiz eta Otxandiok baietz esan), eta **“Gazte”** –izenik ez ekian–. Gorbeia pastoreak sartzen zirela inoan, eta haren artean albokariak egozala.

– Diman, **Juan Lekue**. Albokak onak eta politak (*“kapritxo haundiekaz”*) egi-ten zituala. *“Ondo yoten eban”*. Besterik ez ei eban ezagutu (*“Dimeko jentea ez dot ezagutu”*). Alejo Etxezarragaren entzutea ez eukan eta Eujenio Etxebarriarena bez. **Leon Artabe** bai. Anaia Lezaman abade daukona (*“Don Pedro”*).

– Igorre. **Tiburtzio Elezkano**, Txilibrinen anaia. Oso ontzat jotzen eban.

*“Albokea, ondo eh!, ondo, ondo eh!, ondo. Txilibrinek baiño bastante hobeto. Harek pentsetan deu bera dala ona baiña... Ni neu txarra naz, baina Txilibrin baino hobea(go)ua, bastante, Tiburtzio zan”*.

*“Hak –Tiburtziok– eta Alejok –Gurtubaik– biek batera, haren alboka soiñuri aparte entzun be(ha)r izaten zan, aparte eh! Haren irrintzia, ata(ra)ten eben musikea, soinua, hain fiñe, ha fiñe, ha fintasune, urrin entzuten zan gero!”*.

*“Endemas gaubean edo izan ezker, hor espaldan (Gorbeiaruntza), eta han espaldan beste batzuek entzuten albokak, okolea be olloan modura. Ze(r)a eitten zan, udan bero e(g)in baina hotzikara sartu, hango albokak entzunde biek batera yoten, Alejo ta Tiburtzio, batera jotzen, batera, biek batera, papapapa baten, baina zelan jo!”*.

*“Erromeri(e)tan, baso erromeri(e)tan, ta igual horreek hona gora etorten zi(r)en, Alejo ta Tiburtzio, Za(ra)tamora joateko Inazio Andaluze osabea(re)nera, batera etorri hortik ta gu beste aldetik Mandoiatik. Baina albokak yo! Hareen albokak entzuten ziren baina urrinetik eh! Niri neuri, aragia, narrue, olloen pikoak lez parate(neu)stan, hareek entzuten. Ea! Irrintzie!”*.

– **“Txilibrin”ek** ez eban gura izaten beste inork albokarik jotea. Ezkontza baten Otxandiok nahi izan eban jo, eta halan esan eutsan Legina soinuariari, bere lagun intimoa zanari *“nik be albokak jo bi(har d)odaz”* eta kotxera alboke-tan abiatu zan baina **“Txilibrin”ek** *“za(ra)tarik bez”* esan egin eutsan kanpora urtenda. Juan Otxandiok *“Nik obedezidu, za(ha)rragoa be bai”*. Albokagile lez, hau esan eban *“Albokak, politek, Txilibriñek”*.

– Saldañen [Saldarian] be albokariak egozala esan eban, baina izenak ez eukozala gomutan. (*“Saldañetik, Saldañe barriada bat da Miraballes ganean,*

*han albokariak egoten ziren. Ez naz akordetan ondo. Iñoz entzunde bai, harrek albokak yoten. Ni basoan ibiltzen nintzen ahuntzekin da ardiekaz. Zortzi urte ezker basorik baso. Harekaz juntau, ta albokak yoten. Ez naz akordetan ixenik...”).*

– Artean, “albokak yoten, **Leon** ona zan. Aite [**Jose Mari**], hobe, bera Leon baiño. (E)ta albokak ei(g)ten be, hobe. Gero, famea...”.

– **Mariano Barrenetxea**, “Alejogaz (Gurtubai) ibilli zan ikesten”. “Mariano ibilli da baztarrotan bille, iñon dan arratoiak baiño... topetan holako izenak edo albokan indarra edo dekienak... beno, danak ibilli ditu, komediek”.

– Gipuzkoako **Gorrotxategitar**ak entzunak ditu.

## 5. Albokari eta albokagileak: eritxiak

### 5.1. Albokari onenak

Berentzako albokari onenak, Graziano Lekue “Txisperue”, Tiburtzio Elezkano eta Alejo Gurtubai ziran. “Ni neutzat, onena, onena, nik entzun(do)tenik onena, “Txisperue”. “Da anaia (“Txilibrin”ena), Tiburtzio, txarragoa, bai?”.

### 5.2. Albokari bi batera

Asko goratzen eban Alejok eta Tiburtziok alkarregaz eta batera joteko euker modua (“Soiñu bat eh! Ez bi. Biek batera yo!”). Beste batzuk be jotzen ei eban alkarregaz, baina batera ez (“Bik alkarregaz? Bai. Baiña batera ez. Bi yoten ibilli ta lau soiñu entzuten zien. Lau albokari eta hamar soiñu”).

### 5.3. Erromeriak

Erromerietan zenbat albokari batzen ziran itaun eginda, desbardindu behar zirala esan eban. Popularrenetara asko joaten ei ziran, eta besteetara gitxiago (hiru edo lau).

Erromerietan alboka jotzen gehien ibili ziran albokariak “Txisperue”, Barandika, Alejo Gurtubai eta Pontxo Orue zirala esaten ekian.

“Buena, segun eta egunek zelan juntetan zi(r)en. Igu(a) hona Ukukurren ez ziren ju(a)ten hiru lau baino. Ta hona Artetara –Usansolotik gora dinamita barruan da(g)o beste ermintxara Julioaren bigarren domekan e(g)iten zan fies-tea– da igual etorten zi(r)en negargarri albokariak. Asko, asko. Lemoakoak ta Manu Barandika, hori, fijo. Ta “Txisperue” ta hori be bai. Ta, gero Upora, Zeberiora, be bai (asko)”.

“Gaur galdute da(g)o (albokea). Plazara, basora ta yoan ta, erromerie ta hori galdute da(g)o”.

“Hau soiñue (albokea) galdute egon da. O(rai)ntxe apur bat bizkortuten hasi de. Total egon da galdute, hau, albokea. Ta dultzaiñea be, asko”.

#### 5.4. **Panderoa**

Panderoaz itauna egin eta (Lehenago pandero hutsagaz joko zan alboka, ezta?) bere erantzuna hauxe izan zan: “*Fanderogaz, besterik ez*”. Kainaberagaz jotzen ete zan galdetuta, panderoaren ordeztu, “*sekula ez dot ikusi*”.

#### 5.5. **Izena**

Izenaz galdetuta, bere erantzuna “*Albokak, bi dire ta. Albokak beti entzun dot. Danari entzu(n deu)tsiet albokak*”.

#### 5.6. **Esparrua**

Herriak eta eremuaz galdetuta, betikoaz gain (Arratia, Galdakao, Zaratamo, Zeberio) beste batzuk be esaten ebazan: Ubidea [Olanotarrak, hango albokariak zirala], Otxandio [“*egon ziren albokariak*”], Billarreal, Orozko. Gorbeiazen inguru zabalean kokatzen zituan albokariak (“*Gorbeien yoten ziran albokak. Hara sar-tzen ziran pastoreak*”). Arratia barruan, Areatza edo Billaron be baegozala inoan.

Aitatutakoan Gernika, Markina eta Bizkaiko alde hori, bere erantzuna: “*Ez. Horra, horra (Gorbeiarantza). Hemen alderditik (Larrabetzutik Busturialdera eta Lea Artibaira) iñoz ez dot eze(gu)tu*”, eskuekin Gorbeiaruntza egiten ebala. “*O(rai)n zabaldu da gazterie*”. Florentzio Egiarteren izena be entzun bakoa eban.

#### 5.7. **Albokaegileei eta tamainuei buruz**

Lehenagoko albokak txikiak ei ziran. Manu Barandika eta “*Txisperue*” hasi ziran alboka haundiagoak egiten. “*Txisperue, Zeberiokoa, le(he)nengoz ikusi haundiekaz*”. Albokaegileetan hiru onenak, bere eritxian, Manu Barandika, “*Txisperue*” eta Alejo “*Barberue*” ziran, Alejo ‘ugazaba’ zala. Gero, Jose Mari Bilbaok be alboka onak egiten ebazan.

#### 5.8. **Upo mendia**

Upomendiko albokari batzarretara be joaten zan.

#### 5.9. **Erreperitorioa**

Hau galdetuta, *jota / porrusaldea / martxea* baino ez ebazan entzun (“*eneban obserbetan, eneban besterik zertu, hori baiño*”). Martxa zan gehien gustatzen jakona.

### EMILIO SAGARNA (1914-2003)

#### 1. **Bizitza**

Emilio Sagarna Uriarte Zeanurin jaio zan 1914an. Aitak, bibolina jotzen eban eta anaiak, flauta zeharkakoa. Zeanurin orduko denboran ehuneko larogeiak



Emilio Sagarna Zeanuriko albokaria (arg. J. M. Beltran Argiñena)

musika ekian, Ibargutxi izeneko abadeari esker. Solfeo apurra bae-kian Emiliok. Beharra garajetan mekaniko lez egin eban. “Euskalduna” untziolan be egin eban sasoi baten. Ezkondua zan, semea eta hiru alaba zituala. 2003. urteko zezeilaren 21ean hil zan.

Azken aldiz, Bilboko Coliseo Alban jo egin eban orain berroge-tazak urte.

## 2. Albokaria

– Eleuterio Goikoetxeak, alkateak, “*ikesi e(g)in bi(her d)ozue*”, Emiliori eta bere semea zan Andoniri esan eutsen.

– Alboka egin, **Juan Jose Amundarain “Jose Muñegi”**k, egin eutsen bieri. Oraindik, etxean dauke Emilionean. Eta gainera, Amundarain izan eben maisu alboka ikasterakoan.

– Hasikeran kostatu egin jaken “*Gazteakaz olgetea guraño, baina, albokea yo behar.*” Gero gustorago ibili ziran “*Guk albokeagaz asko disfrutatu dogu gartzetan.*”

– Berak eta **Andoni Goikoetxeak** bardin bardin jotzen eben. Zaharrek ez eben bik batera jotzen. Gero, pandereterak eukezan laguntzen.

– “*Bezperan, jaboiegaz eta uregaz*” ipinten ebezan fitak, ‘sasoitsu’ egoteko. “*Bigun bigun, samur samur.*”

– Sagarna eta Goikoetxea izan ziran, Emiliok dinoskunez, alboka menditik atara ebenak eta kale girora sartu ebenak “*Le(he)nengo urten geurien, Bizkai osoa etorri zan. Mundu guztia etorri zan entzutera. Inon ez zan albokarik entzuten ordurarte. Ordureko, Jose Muñegik [J. J. Amundarainek] edo joko eban. Baina bestela, ez zan albokarik entzuten.*”

– “*Albokak kolkoan, Juventud Vasca Aita Donostigaz Bidebarrietatik bagentozen, tranbiatik ez urrun, eta Asaltoko Guardiak: Quieto ahí! Arriba las manos. [Katxoa] A ver qué es esto? Un instrumento musical. De dónde?. Nosotros tocamos esto. Venga, fuera de aquí!*”

– Luis Arana Goirik eroan ebazan bere etxera bazkaltzera bera eta Goikoetxea, Santurtziko Batzokia edegi zanean. Sagarnak egun horren gomuta estimu haundian eban.



– **Mitinetan** eta asko ibili ziran. “*Gerra amaieran, Durangon mitiñe, frontoia-  
ren atzean. Beterik egoan. Nagusiak: J. A. Agirre ... Zelako errezibimientoak  
e(g)iten euskuezan. Abando, Begoña, Deusto, Bitorien goiz ta arrasti, gehiena  
batzokian, baina plazan be bai... Alonsotegin gehien apreziadu, Balmasedan,  
Enkartazinoetan... Euskalduna frontoian*”.

– Aita Donostiak ipini egin eutsen diapasona inoiz.

– Politikatik eta erromerietatik aparte be ibili izan ziran. Adibidez: “*Semana  
Hospitalaria*”, beharrianean egozan familientzako. *Txarrie Miserikordian, Aiun-  
tamientora Autonomia guztitik alboka yoten, Zabalburu, Hurtado Amezaga, den-  
pora guztien, San Frantzisko, San Anton, Ribera, Aiuntamientue. Alboka yoten, ta  
jente ugari ikusten, pausurik ein ezinde*”.

– Andoni Goikoetxea ospitalera gaixorik eroan eben eta bertan egoala benta-  
natik jausi zan. Arrebak, Begoñak, restaurantea dauka Arkotxan.

### 3. Albokarien ezagupidea

– “**Jitano**” **Aiesta** asko ezagutu egiten eban.

– **Alejo Etxezarraga**, “*pastorea zan, altoa*”.

– **Inazio “Andaluze”**, entzutez.

– **Leon Bilbao** asko ezagutu eban. Leonek alboka bat emon be egin eutsan.  
Buztarriaren alde baten “LB” eta bestean “ES” dauka.

– **Elezkanotarrak**, “*urtenegiak*”. “**Txilibrin**”, “*harrotxo*”. **Jose** –kojoa– *jantzarie*.

– **Iragorri**, “*Bai, eta onak izaten ziran, uste dot. Gure kuadrillan eta ez zi(r)en  
ibilten*”.

– **Leon Artabe**, ezagutu bai. Jo, mendian egiten eban, herrietan ez.

– “*Dimakoa orain lau urte hil zan*” [1996] (**Lekue**).

– Ezagutu ez zituanak: J. K. Valle, Juan Otxandio, Eujenio Etxebarria...

### 4. Bere ikuspegia alboka munduaz

– “*Ixilean, etxean egozan albokari danak. Kalean ez ebilen albokarik*”.

– “*Lehenengoak urteten*”, Sagarna eta Goikoetxea izan ziran.

– **Hiruk batera**. Jose Muñegik, Andoni Goikok eta berak hirurak batera inoiz  
jo egin eben. Lehenengo bider urten egin ebenean, beragaz jo eben.

– “*Gure gerizpetik askok urten dabe*”.

- *“Zaharrak? Albokarik badau bez. Ez gindun yakiten. Etxean. Mendian. Baserrian bez. Panderoa bai”.*

- *“Horreek danak gure ostean izan dire. Yoaten ginen edozein herrire, eta handik lasterrera etorten yakuzan gizon edadekoren bat albokea poltsan dabela”. Arratikoak? “Asko. Lemoako bat”. Arratikoak aparte? “Gitxi. Sano gitxi”. “Etorri egiten yakuzen albora. “Ni be albokaria naz. Instrumentoa be ekarri e(g)iten eurien. Zaharrak ziran”.*

- Upomendin? *“Ez, entzutea bez. Arteatik ensegida”.*

- Erromerian, Sagarna, Goikoetxea eta 3 panderetera (Goikoetxea, Reka gorri eta beste bat).

- Txisperue erromerietan? *“Ez, ez, inor bez. Jose Mari Bilbao bez. Leon gure ostean hasi zan.” “Lehelangoak, gu. Erromerietan, inor bez. Dultzaina, Naparra. Hemengoa burdinezkoa. Basiliok bai. Orain semeak.”*

- **Artzainak.** *“Pastoreak danak. Erromerietan inor bez. Eze(gu)tu be ez genduzen e(g)iten gük.*

- **Errepertorioa:** *jota / porrue / martxea. “Apur bat barieü, geure erara.”* Puntopia ezagutzen dau. Obabatxoa inoiz jo egin eban.

- Amundaraineri nork erakutsi? *“Ez dakit. Nonork izan bier. Danak pastoreak”.* *“Albokea, dana mendian”.*

- *“Erromerietan ez dogu inoz ikusi. Galdakaon edo...”.*

- *“Sekula ez gendun kobreu, biajea eta bazkarie baino”. Dultzaineroek bai, kobreten eben”.*

- Fitek, joaldietara, bi baino ez ebezan eroaten, eta alboka bana -eukena-.

## **2. SASI BIOGRAFIK**

### **ANTONIO AIESTA “JITANO” (1910-1971)**

Antonio Aiesta Aiesta Bediako Barrankalobon jaio zan 1910ean, Bazterretxea baserrian. “Jitano” eta “Zelebrea” zituan izenordeak. Galdakaon bizi izan zan, eta bertan hil 1971ean. Gizon oso umoretsua eta jatorra izan ei zan.

Bere maisua, aitite eban. Alejo Gurtubai “Barberue”k be lagundu egin eutsan ikasten hasikeran.

Beharra, tratante lez ibili zan, eta Galdakaoko tailer baten be egin izan eban.

Errepertorioa: jota, porrusalda eta martxa.

Albokaria aparte, panderojotzailea be bazan.

Albokagile lez *herribeien* adarrak gustatzen jakozan, eta buztarria, intzurria edo pagoaz egiten eban.

Albokaria izan zan “Dindirri” eta “Andra Mari” taldeetan. Bere ikasleetan, Jon Beni Egiguren aitatu leike. Semeei be irakutsi egin ei eutsen zeozer.

Estatu Batuetako telebisino batek grabatu zituan 1967an, bera alboka joten eta Maurizia panderojotzaile. Baita Suediako unibertsitate batekoek be grabatu egin eben Aiesta.

Egin izan diran albokari lehiaketa eta txapelketetan sarri jo egin eban. Esate baterako, 1953an Galdakaon, eta 1965ean “Txilibrin”egaz postura egin eban. Hau be, bere herrian.

### JUAN JOSE AMUNDARAIN (1895-1969)

Juan Jose Amundarain, Zeanuriko Muñegi baserrian jaio zan 1895eko urtarilaren 2an. Lemoara ezkondu zan. 1969ko apirilaren 28an hil zan.

Artzaina zan lanbidez, eta Gorbeialdian ebilen ardiekaz. Bizi guztia Gorbeian emon eban, ardiekin, alboka joten.



Antonio Aiesta “Jitano” albokaria eta Balbino Ojanguren (arg. Dindirri)



Juan Jose Amundarain Zeanuriko albokaria (arg. Txistulari aldizkaria)

Ikasle bi zituan, Andoni Goikoetxea (1918-1974) eta Emilio Sagarna (1914-2003). Biak erabilten eben berak egindako alboka. Sagarnarenean oraindino badauke.

Txilibrinek beragaitik hau esan eban: *“ezagutu izan dodan albokari oneneta-koa izan da”*. Basilio Pujana, Zeanuriko bertsolariak, Amundarainek aitarengandik ikasi ebala alboka joten uste dau. Beraz, etxeko gauza.

Lehiaketetara bere burua aurkeztea ez eban gogoko, baina erromeriak gus-  
tutzen jakozan.

### **LEON ARTABE (1912-1996)**

Leon Artabe Dimako Ziarrusta auzoko Etxenagusia baserrian jaio zan 1912.urtean. Gero Lemoara ezkondu zan, eta 1996.urtean hil zan.

Jose Mari Bilbaoren alboka bategaz hasi zan ikasten. Leon Artabe, Leon Bilbaoren lagun haundia zan. Jose Mari Bilbaok Leon biei eta Eujenio Etxebarriari erakutsi egin eutsen alboka joten. Dimatik Arteara, oinez, menditik joaten ziran Bilbaotarren etxera, Artabe eta Etxebarria. Jo, mendian egiten eban, herrietan ez. Soldadutzara joan zanean itxi egin eutsan joteari. Handik gerora hasi zan ostera, apur bat.

### **ANDONI GOIKOETXEA (1918-1974)**

Zeanurin jaio zan 1918an. Neba-arreba askoko familia zan. Arreba batek, gixtienez, panderoa joten eban. Bere aita, Eleuterio, herriko alkatea zan. Beronek animatu eban alboka joten ikastera.

Juan Jose Amundarain euki eban maisu. Alboka be beronek egin eutsan. Emilio Sagarnagaz batera, bi-hiru pandereterek lagunduta, batzoki eta herri askotan ibili zan alboka joten.

Alan Lomax ipar amerikarrak grabatu egin eban 1952. urteko abuztuan jota, porrusalda eta martxa joten, panderoan Arantza arrebak lagunduta. Diskoan agertu ziran porrusalda eta martxa.

Bilboko Euskalduna untziolara etorri zan beharrera, eta Deustuan bizi izaten zan. Basurtoko Ospitalean hil zan 1974an.

### **BENITO IRAGORRI (1906-1973)**

Benito Irigorri Izagirre, Lemoako Arrañon jaio zan 1906an. Zazpi anaia izan ziran: Felipe, Anjel, Simeon, Benito, Guillermo, Dionisio eta Ildefonso. Gaztetan geratu ziran umezurtz. Baserrian, nagusia, Felipe geratu zan. Benito Labea(ga)ra joan zan baserri batera. Gaztetan ikasi egin eban arotz beharra. Martina Zabala



Ezkerretik eskumara: Jose Elezkano, Pontxo Orue eta Benito Iragorri (arg. Nestor Goikoetxea)

Ibarragaz ezkondu zan 1932an eta Labean bizi izan ziran. Alaba euki eben, hil zana, eta gero, semea eta alaba, Amaia, euki ebezan.

Alboka eta dultzaina, biak, jotzen zituan. Eta baita biak egin be. Bere moduz hasi zan bata zein bestea jotzen ikasten. Alboka kontuetan, hartuemonak ei ebazan Bediako errementari bategaz, albokaria ei zana. Benitok oso belarri ona eban, eta alboka oso ondo jotzen eban albokari zaharren arabera.

Anaietan, Simeonek dultzaina jotzen eban eta Gillermok danborra. Gerran hil zan Dionisiok dultzaina jotzen ei eban. Juan Otxandio albokariak inoan gerran hildako Iragorritar batek alboka oso ondo jotzen ebala. Simeon anaia, dultzainero trebea ei zan.

Ezkondu aurretik, erromerietan jotzen ibiltzen zan, alboka zein dultzaina. Erromerietan lagunak anaiak ebazan, Simeon dultzaina jotzen eta Gillermo danborragaz izaten zituan. Erromerietan joteko, herrietara joaten ziran, Arratia guztia eta inguruetako herrietara. Dultzaina biek batera jotzen eben. Ezkondu ostean, etxean baino ez eban jotzen. Denporaldiak zituan, baina sarri jotzen eban. Baten, urten egin eban jaietan karroza baten gainean alboka jotzen.

Jota, porrusalda eta martxea jotzen zituan, baina aldaerak baebazan baktxarenak. Panderoa ez eban jotzen, ez zan kantazale ez dantzazalea. Alboka eta dultzaina nahiko zan, eta biak modu bikainean jota.

Albokak bere aroztegia eban tailerrean egiten zituan. Kainaberak, etxeoak zituan eta adarrak mataderotik eroaten zituan. Adar beta edo zerrodunak, auke-  
ran, gurago ebazan. Enkarguz, inoiz egin ebazan. Berak joteko, lau alboka zituan.  
Bera, eskubeharrean oso kurioa zan. Albokak politak egiten zituan. Bat, bere-  
ziki, inkrustazioakaz, benetan ikusteko alboka. Egurrezko dultzaina be egin eban.  
Burdinezkoa be baeban, eta hil zanean, Simeon anaiak eroan ebazan biak.

Galdakaoko Labean hil zan 1973.urteko maiatzaren 8an.

### **LUZIANO LANGARA (1898-1979)**

Diman jaio zan 1898. urtean eta Galdakaora joan zan bizi izatera, Tximilarre  
azura. Bertan hil zan 1979. urteko zezeilean.

Alboka joten 40 urtegaz ikasi egin eban, Alejo Gurtubaik irakatsita. Domeka  
goizeetan joaten ziran “Barberue” rengana bera eta Quintana izeneko bere lagun  
bat. Jende aurrean ez eban inoiz jo. Bazkaldu ostean, eskaratzean joteko ohitu-  
ra eban. Ez eban sekula albokarik egin, baina fitak egiten ebazan.

### **JUAN LEKUE (1920-1996)**

Juan Lekue lurrebaso. Diman jaio zan (Arostegieta, Dima, 1920-1996). Gura-  
soak, Nikomenes eta Segunda. Eskolan, bera eta Eujenio Etxebarria mahai baten  
jezarten ziran. Gizon haundia: 1,90 metro ingurukoa. Ezkondu zan Dimako Bal-  
tzola baserriko Inozentzia Astigarragagaz, 1951ean. Hiru alaba ebezan. Adminis-  
trazinoan edo egon zan beharrean txofer. Juan Otxandiok inoan, gero, biak ibili  
zirala Transportes Urrutian. Gero, taxista Bilbon.

Bere kintoak ziran Eujenio Etxebarria eta Jauregi izeneko bat be ibili ziran alboka  
joten ikasten. Alejo Etxezarraga, bere herritarragaz, hasi zan ikasten Lekue.

Leonen alboka batzuk eskatu egin eutsazan Eujeniori zelan egiten ziran ikus-  
teko (edo gomutatu eragiteko). Albokak onak eta politak (“*kapritxo haundiekaz*”)  
egiten zituala esan eban Juan Otxandiok eta baita hau be: “*Ondo yoten eban*”.  
Eujenio Etxebarriaren arabera hau azkana ez dago hain argi. Alboka asko saldu  
zituan, eta gaur egun be hortik badira bere hainbat alboka. Artisau azoketan be  
ibiltzen zan.

### **ILDEFONSO “PONTXO” ORUE (1902-1980)**

Lemoan jaio zan 1902an eta bertan bizi izan zan. Baserriko lanak aparte,  
ladrillogintzan be ibili zan, aitaren modura. 1980ean hil zan, urtarrilaren 16an.

Alboka joten bere aitak irakutsi egin eutsan. Erromerietan sarri ibili zan albo-  
kari modura gerra aurrean. Gerra ostean, goardia zibilakaz izan ebazan gorabe-  
herak zirala eta, etxean baino ez eban alboka joten. Eujenio Etxebarria alboka-  
riaren bigarren lehengusua zan.

## BIBLIOGRAFIA

### Funtsezkoa

ARANZADI, Telesforo: "Alboka y Albogues. Dos pies para un banco musical-transfilológico". In: *Euskal Erria*, lehen seilabetekaria, Donostia/San Sebastián: 1916; 152-158 orr.

AZKUE, R. M: *Cancionero Popular Vasco*, Bilbao: Euskaltzaindia, 1990; 1.152 or.

BAINES, Anthony: *Bagpipes*. 3<sup>rd</sup> Ed. (1995). Oxford: Pitt Rivers Museum, University of Oxford, 1960; 147 or.

BARRENETXEA, Mariano:

- *Folklore Vasco. Andra Mari*, Galdácano. Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaina, 1963; 16 or.
- *Alboka. Entorno folklórico*. Lekaroz: Archivo P. Donostia, 1976; 107 or.
- "La Alboka". In: *Cuaderno de Sección. Folklore*. Donostia/San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1983; 155-170 orr.
- *La alboka y su música popular vasca*. Galdakao: 1986; 59 or.
- "Alboka". In: *Euskonews*, 10. zenbakia. Eusko Ikaskuntzaren web orria, 1999; [www.euskonews.com](http://www.euskonews.com)
- *Aclaraciones sobre la alboka*. Galdakao: 2000; 69 or.

BELTRAN, Juan Mari:

- *Euskal Herriko Soinutresnak*. Donostia/San Sebastián: IZ 1985 / Ikuskin 1996; kassettea, bideoa, CDa.
- *Soinutresnak Euskal Herri musikan*. Donostia: Orain, S. A.; 1996; 159 or.
- *Euskal Herriko soinu-tresnak*. Donostia: Elhuyar eta Herri Musikaren Txokoa, 1999; CDROMa.
- *Euskal Instrumentuak*. In: [euskadi.net/kultura/musica/musica00\\_e.htm](http://euskadi.net/kultura/musica/musica00_e.htm)
- "Alboka" in *Anuario da Gaita*, 17. zenbakia. Ourense: Escola provincial de Gaitas. Deputación de Ourense, 2002; 87-89 orr.

BERGUICES, Aingeru:

- *Dos siglos de música culta y tradicional en el Duranguesado (1800-1986)*. Argitaratu bakoa, 1986; 142 or.
- *Trikitrixa (Farrea) y Acordeón en Busturialdea. Historia y Hombres*. Argitaratu bakoa, 1990; 91 or.

DONOSTIA, Aita: *Obras Completas*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1983; 2249 or.

GARCÍA MATOS, Manuel: "La Alboka". In: *Instrumentos Musicales Folklóricos de España, Anuario Musical*, 11. Barcelona: 1956; 131-163 orr.

DE DIOS, Federico: *La acústica de la Alboka*. Argitaratu bakoa, 2003; 7 orrialde.

KOTERON, Ibon:

- *Folklore y Folklorismo. Algunas consideraciones sobre el caso de la alboka*, Soinutresna Tradizionalen Irakasleen Gaitasunerako kurtsoa. Eibar: 1993-1994; 9 or. In: [www.alboka.net](http://www.alboka.net)

- "La alboka, clarinete doble de Euskal Herria". In: *Interfolk*, 2. zkia. Madrid: 1999; 31-34 orr.
  - "Tradizioa kolokan". In: *Zazpika*, Gararen aldizkaria, 3. zkia., 1999.02.14. Pamplona/Iruña: 1999; 15. or.
  - Alboka web orria ([www.alboka.net](http://www.alboka.net)).
  - *Alboka*. In: [www.dantzak.com](http://www.dantzak.com)
  - "Digitación y Escala de la Alboka". In: *La porra* aldizkaria, 20. zkia. Vilanova i la Geltrú: 2002. urteko maiatzean; 8-14 orr. Baita [www.alboka.net](http://www.alboka.net) orrian be.
- LARREA, Jesus: "La Alboka". In: *Euskalerraren Alde*, nº 20. Donostia/San Sebastián: 1930; 173-179 orr.
- LÓPEZ DE ELORRIAGA, Jose Mari ("Coppi"): "La Alboka". In: *Sociedad Excursionista "Manuel Iradier"*, 102 zkia., 1968 eta 104-105 zkia., 1969. Vitoria/Gasteiz: 1968; 33-44 orr. eta 1969; 22-29 orr.
- SACHS, Curt: *Historia Universal de los Instrumentos Musicales*. Buenos Aires: Edición Centurión, 1947; 445 orr.
- VARELA DE VEGA, Juan Bautista: "Anotaciones históricas sobre el albogue". In: *Revista de Folklore*, 4. Valladolid: 1981; 21-27 orr.

## Lagungarria

- AMURIZA, Xabier: "Koplaritza". In: *Bizkaiko Bertsogintza*, Izengabeak I. Bilbao: Bizkaiko Bertsolari Elkarte-Bizkaiko AEK-Tinkoketa, 1995; 17-346 orr.
- ARISTI, Pako: *Euskal Kantagintza Berria*. Donostia: Erein, 1985; 243 orr.
- ATXOTEGI, Jose Luis: *La vie musicale dans trois villages de la vallee d' Arratia. Mémoire d'etnomusicologie*, Paris: ERHE, 1975; 213 orr.
- AZKUE, R. M: *Euskalerraren Yakintza*. Bilbao: Euskaltzaindia & Espasa Calpe, 1989; 1820 orr.
- BELTRAN, Juan Mari: "Gipuzkoako Dultzaina". In: *Cuadernos de Sección. Folklore 4*. Donostia/San Sebastian: Eusko Ikaskuntza, 1991; 185-232 orr.
- CARO BAROJA, Julio: *Los Vascos*. Madrid: Ediciones Istmo, 1972; 384 orr.
- DE PABLO, MEES, RDZ. RANZ: *El péndulo patriótico I*. Barcelona: Ed. Crítica, 1999; 398 orr.
- FRAI BARTOLOME SANTA TERESA: *Idazlan guztiak*. Bilbao: Euskararen Lekukoak-20, Karmel Sorta-12. Euskaltzaindia, 2000; 1556 orr.
- GALLOP, Rodney:
- *The Basques*. London: MacMillan and Co. Ltd., 1930; 294 orr.
  - "Quelques observations sur l'alboka". In: *Bulletin du Musée Basque*, 8. Baiona: 1931; 155-156 orr.
  - "The Alboka, A Basque survival". In: *The monthly Musical Record*. Vol. 69 No. 804 London: Feb. 1939; 41-44 orr.



HUMBOLDT, Wilhelm von: *Los Vascos*, 2. arg. Donostia/San Sebastian: Roger Editor, 1999; 230 or.

INTXAUSTI, Joseba: *Euskara, Euskaldunon Hizkuntza*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1990; 211 or.

IRIGOIEN, Iñaki: "Dultzaina-Gaita Bizkaian". In: *Bizkaiko Dultzaina-La Dulzaina en Bizkaia*. Bilbao: Bizkaiko Foru Ahaldundia, 1994; 15-38 orr.

IZTUETA, Juan Inazio: *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia, 1824*. Bilbao: Euskal Editoreen Elkarte, Mensajero, 1990; 359 or.

ORONOZ, Belen: *Gazteri berria, Kantagintza Berria*. Donostia: Erein, 2000; 143 or.

PARRA, Edurne eta SÁNCHEZ, Ángel: *La Alboka*. Argitaratu bakoa; 20 or.

RODRÍGUEZ, Carmen: *Los txistularis de la villa de Bilbao*. Bilbao: Temas vizcainos 296, Bbk. 1999; 105 or.

SANTAMARIA, Jabier: "Bizkaiko Dultzaina". In: [www.dantzak.com](http://www.dantzak.com)

## **GRABAKETAK**

Leon Bilbao: 1982 / 1985 / 1988 / 1988.11.21

Silbestre Elezkano "Txilibrin": 1998.06.23 / 1999.01.15 / 1999.09.14

Eujenio Etxebarria: 1999.06.21 / 1999.07.01 / 1999.10.26 / 2000.03.03 / 2000.06.21

Juan Otxandio: 1998.08.XX / 1999.07.30

Emilio Sagarna: 2000.05.19

Horreetan datetan eginiko grabaketak, kasette, film edo bideoan dagoz jasota. Beste alkarrizketa batzuek ez nebazan grabatu, baina idatziz hartu nituen oharrak.

## **ESKERRAK EMOTEA**

E.1) Euregaz egoteko aukera emon deusten albokari tradizionaleri eta euren senideei.

E.2) Mariano Barrenetxea, Juan Mari Beltran eta Ibon Koteroni, alboka munduko hainbat gauzetaz berba egiteko aukera emon deustelako. Eurengandik ikasi dodanagaitik.

E.3) Zerrenda honetako danei lagundu deusten guztiagaitik, bai grabaketak zein materiala, bai eritxiak zein informazioa emoteagaitik, nahiz eta ni sarritan "mendia jo, atxa jo" ibili:

- Tim Fuson (Department of Music, University of California, Berkeley)
- Andrew Kaye (Professor of Music, Albright College, Reading, Pennsylvania)
- Emilio Rey García (Real Conservatorio de Madrid)
- Matthew Barton and Anna Lomax Chairetakis (The Association for Cultural Equity; The Alan Lomax Collection)
- Gerda Lechleitner and Dietrich Schueller (Phonogrammarchiv der Oesterreichischen Akademie der Wissenschaften)
- Judith Gray (Reference Specialist, American Folklife Center, Library of Congress, Washington D. C.)
- Marie-Laure Manigand and Claire Gilliam (British Library National Sound Archive)
- Dr. Susanne Ziegler (Musikethnologie Ethnologisches Museum Berlin)
- Clifford Sloane (US musicologist)
- Jonathan Stock (UK musicologist)
- Dr. H. La Rue (Lecturer/Curator of the Bate Collection and the Musical Collections in the Pitt Rivers Museum, Oxford)
- Joaquín Díaz (Urueña, Valladolideko Centro Etnográfico Joaquín Díaz);
- Nigel Gallop (UK musicologist)
- eta Maria Carmen García Matosi (Madril).

E.4) Fede de Dios, Iñaki Elezkano, Kepa Pérez Urraza eta Jabi Santamariari materiala eta informazioagaitik.

E.5) Imanol Atxa Goitiari, albokagintzaz erakutsi egin deustanagaitik.

E.6) “Infernuko Auspoa / Leonen orroak” izenpetan dabilzan talde anitzetako albokariei, lagun onak eta jende jatorra izateagaitik. Eta eurek batzuegandik informazioa be inoiz jaso izan dodalako.

E.7) Nestor Goikoetxeari grabaketa bat eta argazkiak emon egin eustazalako. Aingeru Berguices, Emilio Donado, Jon Beni Egiguren, Sabin Egiguren, Iñaki Irigoien, Jose Mari López de Elorriaga “Coppi”ri eta Juan Carlos Loroñori euren denboraren zatitxu bat emon eustelako. Jon Aurre lagunari, Juan Otxandioaren oinartzen bidea esan egin eustalako. Jon Goikoetxea Etxebarria adiskideari, bere osaba albokariaren barri emon eta haren alboka itxi egin eustalako 1970ean.

E.8) Andres Urrutiari, betiko adiskide eta lagun hurkoari, hain esku zabal hartzen naualako beti eta lan honi begirada emoteagaitik, hizkuntza kontuetan gauza batzuk ingeleza edo euskara ete ziran argitu egin deustazalako.

E.9) Anaiatzat jotzen nindun Mario Onaindia lehengusu *bikiari*, beharra irakurtzeagaitik.

E.10) Eta Aneri. Lagundu egin deustan guztiagaitik.